



Nazio Ikurren Gida

Euskal Herria
Nafarroa
Baskonia
EH Nabarra
Euskadi
 ...



*Zazpiak bat,
 Nafarroakoa,
 Bostak bat?*



Ikurrina? Nafarroakoa?
Bien uztarketa?



Ereserkirako *Gernikako Arbola* askatasuna iruditzen duelako?



Bateratua,
 Elkarteek antolatua?
 Deszentralizatua?
 Orreagan?

Abendua								
					1	2		
3	4	5	6	7	8	9		
10	11	12	13	14	15	16		
17	18	19	20	21	22	23		
24	25	26	27	28	29	30		
31								

Gure jaiak: Martxoak 8, Aberri Eguna, Ekainak 24, Abuztuak 15, Abenduak 3 eta... independentzia lortzen dugun eguna

Aldarria:
Aberri librearen alde, jende libreazutik (Obanos)
Gora Euskadi askatuta...



Bien urtarketa?



.eus, .eh, nb.?

2020.04.05eko bertsioa, Aberri Egunaren atarian

Aurkibidea

0. Sarrerakoak.....	3
1. Izena: <i>Euskal Herria, Nafarroa, Baskonia, EH Nabarra, Euskadi</i> , etab.....	11
2. Armarrria: <i>Zazpiak bat, Nafarroakoa, Bostak bat</i>	17
3. Bandera: <i>Ikurrina, Nafarroakoa</i> , bien uztarketa (<i>Nabarrina, EH-NA...</i>), etab.....	22
4. Ereserkia: <i>Gernikako Arbola, Nafarroako Ereserkia, Eusko Gudariak</i> , etab.	32
5. Nazio Eguna eta Egutegia: <i>Aberri Eguna, Orrega Eguna, Euskeraren Eguna...</i> ...	37
6. Aldarria: <i>Aberri librearen alde, jende librea zutik, Gora Euskadi askatuta</i> . etab	42
7. Nortasun agiria: <i>ENA, EHNA, NA, pasaporte</i> , etab:	44
8. Domeinuak: <i>.nb/.nv, .eus, .bk, ehn...</i>	48
9. Bestelako ikurrak: <i>Lauburua, Eguzkilorea</i> , etab.	49
10. Ekarpinak	51
a) Urtzi Ihitza eta Patxi Alaña	51
b) Jaime Albillos.....	51
c) Nabarralde.....	51
d) Iñaki Arrieta.....	51
e) Naziogintza.....	51
f) EH Askatasunak.....	51
g) Eneko Bidegain	52
h) Felipe Campo Ramirez	53
i) Iparla: <i>Euskal Herriaren Hizkuntza, Erresuma ta Ikurrei buruzko adierazpena</i>	55
j) Iparla: <i>Declaración sobre el Idioma, el Estado y los símbolos del Pueblo Vasco</i>	57
k) Andoni Espartza: <i>Heráldica Institucional en los territorios de habla vasca</i>	58
l) Andoni Espartza: <i>Euskal Herriko blasoia finkatzeko beharra eta Euskal Herriak ez du himnorik</i>	59
m) Andoni Esparza: <i>Euskal Herriko armarrria: Zazpiak bat</i>	60
n) Odon Ulibarrena: <i>La Ikurriña y Euskadi: simbología y concepto para la reincorporación del Pueblo Basko</i>	62
o) Iñaki Azkoaga	64
p) Tomás Urzainki: <i>No basta con Euskal Herria</i>	65
q) Jose Mari Espartza: <i>Gernikako Arbola</i>	69
r) Eneko del Castillo: <i>izenaz, armarriaz eta banderaz</i>	71
s) Jose Luis Erdozia Mauleon: <i>Baskonia, Nabarra, Euskara, Euskal Herria</i>	74
t) Hainbaten artean	77
u) Rafa Santxez Muxika: <i>zenbait proposamen</i>	79
11. Eranskinak	
a) 181027 <i>Lehenengo Biltzarraren aurkezpena</i>	83
b) 181030 <i>Prentsa oharra Burujabetzarako bidean, nazio ikurrak eguneratu?</i>	84
c) 181102 <i>Erreportajea Berrian: Herria nola irudikatu</i>	86
d) 190527 <i>Nazio ikurrei buruzko eztabaida eta hitzaldiak ekainean</i>	88

0. Sarrerakoak

a) Abiapuntua

Herria egituratzen laguntzeko osagai asko dugu. Garrantzitsuena hizkuntza da eta berarekin batera literatura, bertsoaritza, euskal musika, dantzak, antzerkia... Edota beste batzuek diotenez, euskal gizabidea edo euskal sena, gure herriak milaka urtez irauteko bide eman omen diguna.

Aurrekoek gain eta herria irudikatzeko ere, hainbat osagai dugu edo izan dugu azken mendean, besteak beste Zazpiak bat armarrria, euskal banderak (Ikurrina, Nafarroakoa, arrano beltza...), "Gora Euskadi askatuta" eta beste zenbait eslogan, ereserkiak (Nafarroako Gorteena, EA Erena, Agur jaunak, Txoriak txori...), euskal egutegi nazionala, euskal nortasun agiriak, etab. Horiek kontzientzia nazionala sendotzen asko lagundu digute.

40 urte hauetako autonomialdia dela medio, badirudi ikur edo errepresentazio hauetako batzuek ez dutela haien funtzioa behar bezala betetzen. Adibidez, *Euskadi* hitza Euskal Erkidego autonomoa izendatzeko erabiltzen da, Nafarroatik aldentuta eta horrek bere hasierako esanahia galtzera darama. *Euskadi* entzuten dugunean zertaz ari dira? Hiru ala zazpi lurraldeez? Bestetik *Nafarroa* edo *Nabarra* esaten dugunean zertaz ari gara? Oraingoaz ala Nafarroa historikoaz?

Ikurrina gobernu zibiletan ikusten dugunean edo independentziaren aurkako adierazpenak etengabe esaten dituztenen eskuetan ikusten dugunean... noraezean uzten gaituzte. Horregatik katalanek izarra jarri zioten independentzia aldarrikatzeko bidelagun behar zuten senyerari. Guk ez genuke independentziaren aldeko ikurrina edo Nafarroako bandera egokitu bat beharko? Ala biak uztartuta, horietako bat hemengo 8 puntatako izarrekin? Ala beste modu batera?

Horrez gain Zazpiak bat armarrrian ez litzateke agian Nafarroako armarriri dagokion espazioa gehiago nabarmendu beharko? (Estatu espainiarraren armarrrian %25a betetzen du eta gurean %17a). Bestetik diasporak ez luke lekurik izan beharko gure armarrrian?

Sabin Aranaren eslogana eguneratu beharko litzateke gaur egun indarra izango duen baten truke eta ereserkiari dagokionez ere berdin: Nafarroako Gorteetakoa ala Aranek proposatutakoa? Ala Gernikako Arbola ala Agur Jaunak? Ala Txoriak txori? Ala besteren bat?

Ez aurrekoa bakarrik, gai gehiago erabaki behar ditugu. Katalanek Catalunya izendapena dute, baina guk ze izen jarriko diogu gure herriaren nazio mailako egitura burujabeari? Euskadi, Euskal Herria, Nabarra, Nafarroa, Baskonia, Euskal Herri Nabarra? Eta ingelesez? Basque Country? Navarre? Baskland? Eta kontu gehiago ditugu: egutegi nazionala egingo bagenu ze jai gehituko genuke, zeintzuk kendu...? Edo nortasun agiria: ENA? Naziotasun Aitormena?

Eztabaida pil-pilean dago eta maila askotan ematen ari da baina bada ordua modu antolatuan egiteko, parte hartzeko aukera asko eskainita. Horretarako, euskal nafar gizarteari eztabaida zabal bat egitea proposatu nahi diogu 2018ko urrian hasi eta 2020ko udaberrian amaituko den prozesu baten bidez.

Ikurren gai honetan bi arazo handi dugu: batetik mendebaldean sortutako sinbologiaren (ikurrina...) eta ekialdean sortutako sinbologiaren artean (Nafarroakoa) dagoen talka gainditzea, batzuk bateraezinak ikusten dituztelako. Eta bigarren eztabaida nagusia da ea egoera berri batean gauden eta, egongo bagina, ea *euskal nafar* ikurrak bateratu, eguneratu edo aldatu behar ditugun ala ez. Gure uste apalean aurrera egiten lagunduko diguten ikurrak bultzatu behar ditugu eta, bide horretan, zerbait egiteko garaia heldu da.

Ongi etorri nazio ikurrak hobetzeko gune honetara!

b) Orain arte egindakoa

2018

- Irailean: talde sustatzailea sortzea, proiektua parte hartu nahi duten erakundeekin (geroago ere sartu badaiteke ere). Zirriborroan ekarpenak egiteko aukera.
- Urriaren: prozesuaren aurkezpen eta hedapen publikoa
- Urriaren amaieran: 1. biltzarra. Ikurren txosten honetako azalpen eta egoera osatzea, ikurrak berritzeko edo erabakitzeko irizpideen zirriborroa egitea

2019

- Urtarriletik abuztura: ikurrak berritzeko proposamenak egitea eta hitzaldiak
- Irailetik urrira: jasotako proposamenak lantzea eta hitzaldiak
- Urriaren 2. biltzarra: jasotako proposamenen inguruan adostasunak bilatzen saiatzea
- Azarotik aurrera: adostutakoa zabaltzea gogoeta egin dezagun

c) Biltzarrak Bilbon eta Iruñan

Euskal Herria / Nafarroa irudikatu izan duten armarrri, bandera eta beste ikurren historia txiki bat egiten hasi gara eta txosten honetan horren zirriborroa duzu.

Urriaren 27an lehenengo biltzarra egin genuen Bilbon eta 2019ko urriaren 26an bigarrena Iruñan. Asmoa gogoeta sakon eta zabala egitea da, burujabetasunerako bidean laguntzaile izango ditugun ikurrei buruz gogoeta egiteko.

Lehenengo biltzarra Bilbon egitearen arrazoia da bertan Sabin Aranek abertzaletasuna sortzean ikur asko sortu eta hedatu izana. Eta urte beteko gogoetaren ondoren, 2019ko Biltzarra Iruñan izango da, Kanpion gogoratzeko eta Erreinuaren erdigunea izan zelako.

Bilboko 1. Biltzarra 2018ko urriaren 27an

Biltzar honen helburua ikur nazionaleri buruz jasotako informazioa osatzea eta ikur horiek berritzekotan zeintzuk izan daitezkeen irizpideak biltzea izan zen.

Egunean zehar ikurrak aztertu eta partaideen iritzia jaso ziren, ikus guztiei buruz: nazio izena, armarrria, bandera, ereserkia, nazio eguna, egutegia, eslogana, nortasun agiria eta beste zenbait ikur.

Biltzarra eta gero, 2019ko udaberrian zehar, hitzaldiak egin genituen Bilbon, Altsasun eta Zarautzen, gaia zabaltzeko eta herritarren iritzia jasotzeko.

Iruñako 2. Biltzarra 2019ko urriaren 26an

Iruñan Nazio Ikurrei buruzko II. Biltzarra egin genuen, eta hitzaldietan eta beste bideetatik jaso ziren proposamen berriak gehitu ziren eta partaide berriak izan genituen.

Bigarren biltzarraren bideoak ere ikusgai daude, ikur bakoitzari buruz jaso diren proposamenak ikusteko.

3. Zabalpena

Orain orain artekoa zabaltzea nahi dugu, batetik, herritarrek gure ikurren historia ezagutzeko eta, bestetik, etorkizunari begira nondik jo beharko genukeen gogoeta zabala egiteko.

c) Nazio Ikurren gogoeta prozesua 2018ko urritik 2020ko apirilera

Gidaliburu honetan urte eta erdi hauetan egin dugun lanaren emaitza duzu. Batetik ikur bakoitzari buruzko historia eta zehaztapenak jasotzen joan izan gara, denak hemen bilduta eskaintzeko. Lehenengo bertsioa egin genuenetik ekarpen eta zehaztapen nahikotxo jaso dira eta horri esker, ikur bakoitzaren “argazkia” hobetu dugu.

Gure ustez, orain arte bederen, nazio ikur guztiei buruzko horrelako lana egin gabe zegoen eta zentzu horretan, lehenengo harria jarri dugulakoan gaude, abertzale guztiok ezagutu behar dugun arlo hau hobeto ezagutu dezagun.

Bestetik oraingo egoera islatzen ere saiatu gara, herritarren joerak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Komunitateak egiten duten ikurren erabileraz, etab...

Azkenik, noski, etorkizuna irudikatzen saiatu gara, burujabe izan nahi duen herri honek bere askatasunaren biderako lagungarri izango zaizkion ikurrak aldatu eta mantendu behar dituen ikusten saiatzeko.

Hiru hitzaldietan eta 2. biltzarrean parte hartu genuenok bozketa xume bat egin genuen, gutxi gorabehera partaideen joerak zeintzuk diren ikusteko. Parte hartze txikia beraz, eta ikur batzuetan erantzun gutxi gainera. Gainera, 2. biltzarrean aurkeztu ziren proposamen berriak ez zeuden hitzaldietan eta, beraz, ez ziren horietan bozkatu. Beraz, hutsune guzti horiek kontuan hartuta, orain arte jasotako iritziekin argazki bat eskaintzen saiatuko gara, baina, oso partziala denez, bere neurrian hartu behar dela kontuan hartu.

Horrez gain, esan beharra dago herriak erabakitzen duela zein nazio ikur maite dituen, zeintzuk erabiltzeko prest dagoen... Goitik datorrenean, estatu askotan ikusten dugun moduan, nazio ikur horiek batzeko baino banatzeko tresnak izan daitezke.

Beraz, 18 hilabeteko gogoeta honen ondoren, ikurrei buruz jasotako material eta gogoeta hau herriratu nahi dugu, eta zerbaiterako lagungarri izango delakoan gaude. Bestetik adostasun maila altuagoa jaso duten ikurren kasuetan, *Obanoseko aldarria*, *Gernikako Arbola* edo *Egutegi Nazionala* adibidez, horiek zabaltzeko lana ere egingo dugu, gure neurrian. Gainerakoetan eztabaida eta kontraste lanarekin jarraituko dugu ea proposamen hauetako batzuk elkartzen diren edo txukuntzen diren.

Ikus ditzagun ikurrei buruz esandako gauzak:

Nazioaren izena

Euskal Herria: %44rentzat izen egokiena izan da, lurralde osoa irudikatzen duelako, euskeraz horrela beti erabili delako.

Nafarroa: beste %22k *Euskal Herria* izenak ez dituela gure historia eta izan dugun estatua islatzen diote, nahiz eta hizkuntza eta kultur ikuspegitik ondo ikusten duten baina *Nafarroa* hobetsi behar dela ikusten dute, historiari traiziorik ez egiteko. Horien barruan baten batek euskerazko izen zaharra hobetsi beharko genukeela dio eta *Nabarra* hizkuntza guztietarako erabili, edo bereizteagatik eta oraingorekin nahasketa ez sortzeagatik, burujabetza lortu arte, *Nabarre* deitu.

Baskonia: Nafarroakoa baino egitura politiko zaharragoa dela, gaur egun ere erabiltzen dela eta nahasketarik sortzen ez duela defendatuz, %14k horren alde egin du.

EH Nabarra: beste %11k estatu eta kultur eta herri izenak uztartu behar direla diote eta izen hau proposatu dute. Osorik idatzita honela: *Euskal Herri Nabarra*.

Euskadi: historikoki ere oso garrantzitsua izan da baina une honetan EAerekin erabat lotuta dagoenez, izen horrekin nazio osoa irudikatzea oso zaila dela aipatu da eta bozka gutxi jaso du.

Baskonabarra: izen hau historiari erreparatzeko balioko lukeela, oraingo Nafarroako Komunitatearekin ez litzatekeela nahastuko, eta gainera, EAE barne hobeto adierazita egongo litzatekeela hartuko lukeela iritzita, proposamen honek aldeketasun batzuk ere jaso ditu.

Euskal Herriaren Konfederazio Nafarra: proposamen bat ildo honetan egon da, nolabait izen historiko biak batuz, EH Nabarraren izenaren antzera.

Armarria


Zazpiak bat: %50ak honen alde egin du: betikoa, argia, onartua, zabaldua... horren alde egiteko arrazoi asko eman dira.

Nafarroakoa: historikoki armarriz zaharrena da, Zazpiak batek baino 700 urte gehiagorekin, gure herria eta egitura politikoa identifikatu dituen..., eta %32k horren alde egin du.

Bostak bat: Nafarroako armarriz dagokion garrantzia emateko baina beste errealitate historikoak, hau da, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Lapurdi zein Zuberoa ere jasotzeko, proposamen berria egon da inkestatuen %17ekin.



Zazpiak bat



Nafarroakoa



Bostak bat


Bandera

Ikurrina: %24ak ikurrinaren alde egin du. Hemen aldaera txiki bat Naziogintzak proposatu du, ikurrinari 8 puntako izar bat jarrita, burujabetzarako ikurrina ohiko eredutik bereizteko eta katalanek egin duten antzera burujabetzarako lagunduko gaituena bereizteko. Baina gehienak betiko ereduaren alde daudela dirudi.



Ikurrina

Izardun ikurrina



Nafarroako bandera

Nafarroako armarridun bandera

Nafarroakoa: beste %24ak Nafarroako banderaren alde kokatu da. Horren barruan bi ildo daude, orain dela 500 urteko banderaren oinarrituta egindakoa ala fondo gorriaren gainean


betiko armarria duena. Nafarroako armarria babesteko emandako argudio berdintsuak ikusi dira banderaren kasuan: ikurrina baino 700 urte zaharragoa dela eta gure herria eta egitura politikoa identifikatu dituela.

Bandera biak, ikurrina eta Nafarroakoa elkarrekin erabiltzearen aldeko beste proposamen bat egon da.

Ikurrina eta Nafarroako banderaren uztarketekin zenbait proposamen egon dira eta boto batzuk jaso dituzte:

Nabarrina: gure herriaren alde odola eman duten bandera biak uztartu behar direla diote horren sustatzaileek. Guztira, %24k horren alde egin du.

EH-NA, EH-NA Batasun Ikurria eta Gure Banderak: beste hiru proposamen hauek ere ikur biak uztartzearen alde egin dute, aukera desberdinak eskainita.



Arranobeltza, Lemuria, EH Beltza, Berria: beste lau hauek ere proposatu dira eta hemen jaso ditugu:



Banderei dagokienez aipatu diren arazo nagusiak hauek izan dira: Ikurrina EAerekin eta Nafarroakoa Nafarroako komunitatearekin gero eta gehiago identifikatzen direla, Ikurrinak ez duela azken 800 urteko Nafarroako Erreinuaren historia jaso, Nafarroakoa ez dela euskararekin identifikatzen edo euskal kulturarekin, ikur biak uztartzen dituzten bandera berriak batzuei ez zaizkie gustatu, bandera biak (Ikurrina eta Nafarroakoa) elkarrekin erabili daitezkeela...

Ereserkia

Gernikako Arbola: gure askatasuna ondoen islatzen duen kanta dela iritzita %39k horren alde egin du. Jose Mari Espartzak kanta horri buruz 2. biltzarrean eman zituen azalpenek asko horren alde egitera bultzatu zituzten.

Nafarroako ereserkia: Altsasuko hitzaldian Enrike Zelaiak Wilkinson ingelesak lehengo karlistadetan, 1938an, jasotako ereserki hau jo zuen eta jendeari gustatu zitzaion. Horren alde daudenek ereserkitzat egokia dela diote eta %22k horren alde egin du.

Eusko gudariak: herri honek bere burujabetzaren alde erakutsi duen irmotasunaren ikur honek partaideen %17ko aldeotasuna jaso du.

Nafarroako Gorteetakoa: tradizioz betetako kanta %13 jaso du.

Beste proposamenak: Boga-boga eta Jaiki-jaiki boto ere proposatu dira.

Aberri Eguna eta egutegi nazionala

Aberri Eguna: oraingo egunari eustearen alde %35 azaldu da. Batzuek honen alde baina baita Euskeraren Egunaren alde ere egin dute: jai politikoa eta jai kulturala biak ospatu behar direlako, katalanek San Jordi eta Diada biak ospatzen duten moduan. Batzuk zertxobait aurreratuko lukete, martxora, Aste Santuan ez jausteko edota ildo erlijiosoa ez emateko. Horren ildotik, proposamen bat egon da udaberriaren hasieran ospatzeko, martxoaren 21etik hurbilen dagoen igandera, balitekeelako gure urte hasierak data horietan ospatzea ikerle batek proposatu duen moduan (ikus Nazio Ikurren Gida).

Aberri Egunaren inguruan, dataz gain, beste kontu asko eztabaidatu dira: alderdien esku geratu denetik zatiketa handiagoa dela, antolaketa herrikoia izan behar dela, deszentralizatzea ere aukera bat dela ala urtero herrialde batean egitea hasieran egin ziren bezala, etab.

Orreaga Eguna: %24k herri honek izan duen gudu garrantzitsuenetakoa gogoratzeko proposatu dute, abuztuaren 15ean aberri eguna jartzeko.

Euskeraren Eguna: abenduaren 3an beste %12rentzat egokia da nazio eguna izateko.

Beste batzuk: Gudari Eguna, Amerria (Nabar sorterriaren eguna): aberriaren eguna.

Bestetik, egutegi nazionalari buruz, oro har, Udalbiltzak bere garaian egin zuen proposamena ontzat ikusi da, egun batzuekin osatuta: Urtarrilak 1 Urtats, Martxoak 8 Emakumearen Eguna, Martxo-apirilean Aberri Eguna, Maiatzak 1 Langileen eguna, Ekainak 24 San Juan eguna, Abenduak 15 Orreaga Eguna, Irailak 27 Gudarien Eguna, Abenduak 3 Euskeraren Eguna.

Aldarria

Aberri librearen alde, jende librea zutik: Obanoseko aldarri zaharra baina inoiz zaharkituko ez denak ikur guztien artean adostasun indizirik handiena lortu duena da, %64rekin. Egia esan lerro batean ezin da hain ondo laburtu herri aske batek herritar askeak behar dituela. Latinezko izen zaharra ere mantendu behar dela aipatu da.

Gainerakoak: beste izenetan jada aldeotasun gutxiago jaso dira,; *Gora Euskadi Askatuta, Gora Euskal Herria, Izan ginelako gara izan garelako izango dira, Denok bat eta Ez dago zapaltzaileen hizkuntzan askatu den herririk.*

Nortasun agiriak

ENA: aldekotasun gehiago jaso du, %50rekin, baina horietako askoi orain arte egon diren bi agirien uztarketa egin behar dela ikusten dute, ENA eta EHNA, eta gainera oso erraza dela. Bide horretatik ENAk Udalbiltzarekin bilera batzuk egin zituen baina azkenik Udalbiltzak ez du proiektu horrekin jarraituko oraingoz eta ez da ezer egin.

EHNA: Udalbiltzak bere garaian egin zuen agiri honek %25eko aldekotasuna jaso du.

Beste proposamenak: NA Nafar Agiria, EN Euskal Herri Naparra, euskalduntasuna erakutsiko lukeena edo pasaportea erabilita nortasun agiririk ez dela behar proposatu izan dira.

Domeinuak

Ikur honi buruz galdetzean jende gutxik erantzun du inketan, zalantza ugari dagoela erakusten diguna.

.nv ala .nb: Bandera eta armarrarian Nafarroakoa proposatu duten moduan, hemen ildo beretik joan behar dela diote batzuk.

.eus: uste baino atxikimendu gutxiago jaso du.

Beste batzuk: .bk (Baskonia), .eh (Euskal Herria), edo .ehn (Euskal Herri Nabarra)


Ikurren proposamenak eta jasotako atxikimenduak

Ikurra	Proposamena	%
Izena	Euskal Herria	44
	Nafarroa (Aldaerak: Nabarra, Nabarre)	22
	Baskonia	14
	EH Nabarra (osorik: Euskal Herri Nabarra)	11
	Euskadi	3
	Baskonabarra	3
	Euskal Herriaren Konfederazio Nafarra	3
Armarria	Zazpiak Bat	50
	Nafarroakoa	32
	Bostak bat	14
	Ez da armarririk behar	5
Bandera	Ikurrina	24
	Nafarroakoa	24
	Ikurrina-Nafarroakoaren uztarketak: Nabarrina	24
	“ EH-NA	3
	“ EH-NA Batasun ikurra	3
	“ Gure banderak	3
	“ Biak erabili, elkarren ondoan	3
	Naziogintza: ikurrina izarduna	3
	Arranobeltza	3
	Euskaldunia	3
	Berria (hori-beltza)	3
	EH Beltza	3


Ikurra	Proposamena	%
Ereserkia	Gernikako Arbola	39
	Nafarrokoa ereserkia (Wilkinson-Zelaia)	22
	Eusko Gudariak	17
	Nafarroako Gorteetakoa	13
	Boga-boga	4
	Jaiki-jaiki	4
Aberri Eguna	Pazko igandea, betikoa	36
	Orreaga Eguna	25
	Euskararen Eguna	13
	Gudari eguna, irailak 27	6
	Abuztuak 15, Abenduak 3	6
	Amerria (Nabar sorterrria)	6
	Urte hasiera ilargi egutegian: martx. 21	6
Egutegia	Egutegi nazionala: Udalbiltzakoa jai batzuekin osatuta	100
Aldarria	Aberri librearen alde, jende librea zutik (Obanos)	64
	Gora Euskadi Askatuta	7
	Gora Euskal Herria	7
	Izan ginelako gara, izan garelako izango dira	7
	Denok bat	7
	Ez dago zapaltzaileen hizkuntzan askatu den herririk	7
Nortasun Agiriak	ENA (erantzun batzuk EHNArekin uztartuta)	50
	EHNA	25
	NA Nafar Agiria	6
	EN Euskal Herri Naparra	6
	Gure euskalduntasuna azaltzen duena	6
	Pasaportea soilik erabiltzea, nortasun agiririk ez	6
Domeinua	.nv / .nb	33
	.eus	17
	.bk / .ek	17
	.eh	17
	.ehn	17

1. Izena: Euskal Herria, Nafarroa, Baskonia, EH Nabarra, Euskadi...

1.1. Azalpena



Baskoniako dukerriaren mapa.



Baskoniako dukerria Poitiersko guduaren ondoren (734-743)

a) Vasconia – Wasconia – Gascaña – Gascogne – Gaskoinia - Baskonia

“*Vasconia* izena 394 urte inguruan agertu zen idatzita lehen aldiz, Paulino de Nolak Ausoniori bidalitako gutun batean (konparazio baterako, gaztelaniazko *País Vasco* izena ez da dokumentatzen 1818 urtera arte. Hori baino lehen Tito Livio (76 K.aurretik: *vasconum*), Plinio Zaharra, Estrabon eta Klaudio Ptolomeo historialari klasikoek aipatua zuten baskoien lurraldea, bertan bi alde bereiziz: *Vasconum saltus* eta *Vasconum agrum*.”

Bisigodoen eta frankoen garaian, Tourseko Gregoriok *Wasconia* izena erabili zuen Ipar Euskal Herriko lurraldeak izendatzeko. Aldaera horren bilakaera fonetikotik heldu da *Gascaña*, *Gascogne* edo *Gaskoinia* izena, Ipar Euskal Herriaren ondoko lurraldea izendatzeko.

Saint-Sever-eko mapamundian (XI. mendearen hasiera) *Wasconia* ageri zen. Bere kokapena: Aquitania eta Gallicia bitartean, eta honen ondoan Lusitania. Letra txikiz *Aftures* eta *Cantabria* ere ageri dira. *Francia* izena iparralderago ageri da, *Gallia Lugdunense* eta *Gallia Belgicaren* ostean. Egilea, Estefano Garcia, Zuberoako bizkondeen familiakoa zen. Armando Besgaren iritziz, mapamundi horretan ageri den *Wasconia* hori gaur eguneko *Gaskoiniari* dagokio (Ipar Euskal Herria barne). Aldiz, *Kantabria* izena Iruñako Erresumaren izendapen bat izan omen zen (orduaz Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroaren zati bat barnean hartzen zituela).” Iturria: Wikipedia

Jose Luis Erdoziak bidalitakoaren arabera, etimologia hauxe izan daiteke: *Baskonia* <**baskonea* < **basokonea* < *basoko* + *-(e)nea*). Euskaltzaindiaren Hiztegian, *baskoi*, *eusko* eta *euskotar* ageri zaizkigu definiturik eta kontsonante berberak erabiltzen dituzte: *basko/vasco/eusko* (b/v/u, s eta c/k). Basokoak, beraz, euskaldunok, etimologia honen arabera. Basoko, mendialdeko edo “montañés”, bestela esanda, egungo ‘eusko/vasco’. Nafarroako erregeak ere, Nafarroakoak soilik izan baino lehen, “Rey de Navarra y de las Montañas”.



Iruñeko Erresuma 1030ean



Nafarroa XII. mendean

b) Navarra – Navarre – Nabarra - Nafarroa

[Nafarroako Erresuma](#) Europako Erdi Aroan IX eta XVII. mendeen artean izan zen Euskal Herriko egitura politiko independentea.

Hasierako garaian *Iruñeko Erresuma* izena hartu zuen, Eneko Aritza buruzagiak sortu zuenean 824an, hiri hartatik hasi baitzen hedatzen. *Irunia* izena 968an dokumentatuta dago. Erresumaren hedadura XII. mendetik gutxituz joan zen, batetik Gaztelako Erresumak Nafarroa Garaia inbaditu zuenean, eta bestetik Piriniotik iparraldera geratu ziren lurraldeak Frantziako koroarekin lotu zirenean. Hedadurarik zabalena Antso III.a Handia errege zela lortu zuen, egungo Euskal Herriko lurralde guztiak batzeaz gain, mendebalderantz eta Ebro ibaitik hegoalderantz zabalduta.

Erresuma independentea izateari 1620an utzi ziola esan daiteke. Erresuma izena behin betiko 1841. urtean (Lehen Karlistaldia amaitu ondoren) galdu zuen Nafarroa Garaiak eta 1789. urtean (Frantziako Iraultzarekin) Nafarroa Behereak.” Wikipedia.

Nabarra jatorriz euskal izena bada ere, 1643tik euskeraz *Nafarroa* hitza erabiltzen dugu (Axular). Bitartean jatorrizko hitza erdaldunek bereganatu eta grafia aldatu diote *Navarra* bihurtuz. Horregatik batzuek jatorrizko hitza berriro hartzea proposatzen dute eta euskeraz zein erderaz *Nabarra* erabiltzea, pasa den mendera arte erderaz erabiltzen zen bezala (Kanpionek adibidez).

Jose Luis Erdoziak dauden proposamen etimologikoak jaso ditu: **Aymeric Picaud**: *navarrus* (“non verus”, ez benetakoa); **Jean Orpustan**: *nava* (mendi arteko zelaia) edo *nabar* (kolore arrea); **Alfonso Irigoien**: *nabar* + *-oa* > **Nabarroa* > *Nafarroa* > *Naparroa*; **Caro Baroja**: “... ‘nabar’, ‘nabar’, desde el punto de vista geográfico, quiere decir ‘sierra’ y no ‘nava’ = llanura. (...) Los ‘navarros’ podrían ser -en suma- algo así como los serranos...”; **Goitia Blanco**: “NA = plano, plana + BARR = barras o rocas paralelas + A = artículo vasco” (que se ven en las Bardenas). **Manuel Lekuona**: *un radical de tipo semítico, árabe-hebreo, nahar, en significación de “río”. Nahar, naharra = río, ribera.*” (porque hay una mención: “Rey de Navarra y de las Montañas).




c) Euskal Herria - Eusquel erria – Eskual Herria – Euskalerria

“Euskal Herria hitzez hitz hartzen badugu, euskararen lurraldea eta jendea esan nahi du, hau da, euskeraz egiten den lur eremua, hori duelako hasierako esanahia. Alabaina, azken mendeotan zazpi herrialdeak izendatzeko erabili da. Ezagunak diren Euskal Herria izenaren aipamenik zaharrenak XVI. mendekoak dira (lehenago ere erabiliko zela diote euskalariak, baina gutxi dira mende horiek baino lehenagoko euskararen zuzeneko lekukotasunak) ([Wikipedia](#)):

- Etxepare (1545): *heuscaldun* eta *euscara*
- Joanes Leizarragaren lapurtarraren Testamentu Berrian (1571): *Heuscal-herrian*
- Joan Perez Lazarraga arabarraren eskuizkribuan (1567-1602): *Eusquel Erria*
- Axular nafarrak, Gero liburuan (1643): *Euscal Herria*

Euskal Herria ere erabili izan da mende askotan. Adibidez, Azkuek “nire aberria *Euskal Herria* da” esan zuen. Euskaltzaindiak, batua zela eta, *Euskal Herria* hobetsi zuen.

Jose Luis Erdoziak Euskal Herriaren izenaz zehaztapen batzuk egin ditu: “Baskonia izen nagusiaren kasuan, **basoko** izenetik abiatuak, **basko** izen sinkopatura iritsi gara. Bilakaera: *basoko* > *basko* > *vasko* > *uasko* > *ausko* > **eusko** (Euskaraz) eta > **vasco** (Gaztelera). Behin hitz elkartuetako lehen osagai gisa baliatzen dugun *eusko* erdietsita, honetatik abiatuak, **Euskara** eta **Euskal Herria** izenak ere ondoriozta ditzakegu.



d) Kantabria eta Bizkaia

Gaur egun eremu osorako izen hauek galduta badaude ere, gure herria edo hizkuntza izendatzeko sarritan erabili izan dira orain gutxi arte (*lengua cántabra*, *lengua vizcaina*).

Nafarroako Erresumaren hasierako izena Kantabriako Erresuma izan omen zen.

Loiolako Inaziok Pariseko Sorbona Unibertsitatean izena ematean “cantaber” zela esan zuen. San Frantzisko Xabierren 1544ko gutun batean bere hizkuntza euskera zela esateko zenbait bertsio dago:

- “la lengua del santo es la celtíbera que, añaden, “vulgarmente llamada vascuence”. Y es que todas las copias que se remiten al original contienen que la lengua del santo era el euskera, al que la mayoría denomina *vizcaína* y unas pocas *vascuence*.” [-\(San Francisco Javier\)](#)
- “Jamás olvidó su tierra natal, ni su hogar en Javier, el cual tenía el sueño de reconstruir (fue destrozado parcialmente durante la invasión), pero tal vez por rechazo a la conquista de su reino, se autonombra de nacionalidad cántabro o vizcaíno” [\(S. Fco. Javier\)](#)
- “Navarrorum. Dos mil años de documentos navarros sobre el Euskera” erakusketan, San Frantzisko Xabierren 1544ko gutuna ikusgai dago. Bertan une batean dio “y como ellos no me entendiesen ni yo a ellos, por su lengua ser natural malabar y la mía vizcaína...”

Euskerari buruzko liburu historiko askotan (Poza lizentziatua 1587, Baltasar Etxabe 1607, Agosti Xaho 1847) “lengua cántabra o vascongada” deitu izan diote etengabe, biak sinonimotzat hartuz. Edo Larramendik euskaldunak garaituak eta erromanizatuak izan ez ziren kantabriarregandik gatzela defendatu zuen. Pasa den mendera arte erabili da, Txirritaren 1931ko bertso honetan ikusten den bezala: «Miñez egon naiz juan dan berrogei / eta amabost urtian; nere malkorik ezta legortu / ordutik orañ artian, / gure izkuntza maitagarriya / sartu nai dute lurpian, / baño gurekiñ ibilliko da / Kantabria'ko partian.

Batzuek diotenez, euskaldunak itsasoan identifikatzeko *bizcayno* hitza erabili da: “Bizkaiko Golkoa” baina baita nafarra ere.

Beste ikerleen arabera ([Aitzol Altuna...](#)) *kantabroa* batik bat gaztelera erabiltzen zen eta hizkuntza baino endadierazteko erabili zen baina nafarra, euskeraren sinonimotzat hartu izan da beti: “lingua navarrorum” adibidez.



Googlen “Euskadi” hitza bilatu eta lehenengo 16 mapetatik 14 EAerekin lortzen ditu eta, solik 2 Euskal Herriarekin

e) Euzkadi – Euskadi

Sabin Aranaren garaian *Euskalerrria* alderdi politiko foruzalea zen eta horregatik berak ez zuen hitz hori begi onez ikusten, mugimendu horrekin nahastuko zelako, *Euskalerrriakoekin*. Horregatik hitz berri bat sortzea pentsatu zuen, euskal estatua irudikatzeko: *Euzkadi*.

“Askotan aipatu izan da Sabin Aranak, Euzkadi hitza asmatzeko, oinarriztat erabili zuela euzko hitza (euskera batuan, eusko) eta -di atzikia, eta euzko hitza eguzki izenetik hartu zuela, antzinako euskal herritarrek eguzkia gurtzen zutelakoan. (Xabier Zabaltza: [«El significado oculto de la palabra Euzkadi»](#)).

Alabaina, 1896 arte Sabin Aranak *eusk-* erroa duten hitz guztiak ese letrarekin idatzi izan zituen beti-beti: eusko, euskera, euskeldun, Euskeria. Zeta letra, lehenengo aldiz, Euzkadi hitzarekin agertu zen, 1896ko irailean. Eta Euzkadi idazkera hartu zuen, hain zuzen, Bizkaiaren etimologiatzat be-euzko-di-a jo zuelako. Euskaltzaindiak Euzkadi idaztea hobetsi ondoren, horrela zabaldu da bere erabilera.”

Errepublikara garaian eta frankismo luzean ere indarra zuen berba genuen: “Gora Euzkadi askatuta”, eta argi adierazten zuen proiektu independentista zela.

Baina hitz horren esanahia aldatu da azken 40 urte hauetan. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan autonomia erkidegoa sortzean eta nahiz eta izen ofiziala *Euskal Herria*, *Euskadi* eta gaztelerez *País Vasco*, izan, praktikan *Euskadi* hitza erabili izan da eta orduan, bere jatorrizko esanahia ahulduz joan da.

Horrela, *Euskadi* gaur egun kasu gehienetan hiru lurraldeetan funtzionatzen duten egituretarako baino ez da erabiltzen, batez ere, administrazio publikoen alorrean. Horrela, termino hori gero eta urrunago geratu zaie nafargaraitarrei eta iparraldetarrei. Gaztelerez *Euskadi* hitzaren erabilera oker hau oraindik handiagoa da.

e) Beste izen batzuk edota bakoitzaren esanahia bereiztea: Euskaldunia, Nafarroa osoa, Euskal Herri Nafarra, Euskal Herria Nabarra, Euskaria, Euskaria...

Historian zehar eta azken urteotan beste izen batzuk entzuten hasi gara.

Beste batzuek izen bakoitzak esanahi desberdina duela diote:

- Baskonia: eremu geografikoa Garona eta Ebro ur isuriak barne hartuz
- Euskal Herria: nazio kulturala, euskara eta euskal kultura oinarri duen nazioa.
- Nafarroa/Nabarra: estatua edo nazio politikoa

g) Herritar izena

Herri izenaren arabera herritarrak honela izendatuko genituzke:

- Euskal Herria: euskal herritarrak
- Nafarroa: nafarrak
- Nabarre: nabartarrak (proposamen berria)

Orain arte erabili diren beste izendapen batzuk:

- Euskotarrak: Sabino Aranak sortutako hitza, Euskadikoei esleitzeko.
- Baskonafarrak / Vasconavarros-as: erabili izan da sarri historian zehar, denak izendatzeko.
- Baskongadoak: Nafarroan sarritan erabiltzen zen izendapena da "romanzados"ekin bereizteko, hau da euskeraz mintzo ziren herriak.

1.2. Egoera

Gure herria izendatzeko zein hitz aukeratu beharko genukeen ezbaida zabala baina aldi berean garrantzitsua da. Atzean ere ikuspegi estrategiko oso desberdinak daude eta gainera, mundu ikuskera desberdinak ere baditugu: zeren eta nazio bakarreko errepublika bat ala nazio anitzekoa sortu beharko genuke: euskalherria, gaskoiak, errioxa... haiek gure proiektu politikoan parte hartu nahiko balute?

Eztabaida handia dago *Euskal Herria* arlo kultural-linguistikorako eta *Euskadi* edo *Nafarroa* arlo instituzional-politikorako erabili behar diren. Hau da, bi errealitate desberdin izendatzeko bi izen mota erabili behar dela. Beste batzuek diotenez, Euskal Herria gauza guztietarako erabiltzen da, Nafarroa hitza euskalduntasunarekin lotuta ez omen dagoelakoan.

1.3. Jasotako proposamenak

a) Euskal Herria

[Foroan](#) testu osoak ikusgai

Eneko Bidegain. Herri honen izen zaharra, mendeetan zehar iraun duena, zazpi herrialdeetan erabiltzen dena eta, oraingoz behintzat, zazpi herrialdeak barne biltzen dituena. Euskaltzaindiak ere argi definitzen du zer den Euskal Herria. Erne ibili behar dugu, ordea: ez dugu utzi behar *Euskadi* hitzari gertatu zaiona gertatzera. (...)

Andoni Esparza Leibar. Pertsona gehienentzat, Euskal Herria da gure nazioaren izena. Euskadi hiru lurralde dira (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa) eta, legez, horrela arautua dago. Nafarroa, bestalde, bi herrialde dira (Foru Komunitatea eta Iparraldekoa). (...)

Aldaburu'tar Patxi: Gure nazioa (edo estatua) izendatzeko Euskal Herria egokiena dela deritzot. Izan ere, gure herriaren ezaugarri antzinakoenari adiera egiten dio nire iritziz. Zalantzarik gabe eusk (edo ausk) da gutarrak eta gure ezaugarriak adierazteko dugun hitz-erroa, lurraldea barne. Horrela da euskara, euskaldunak... geure ezaugarri behinena, hizkuntzari aipamena egitean, eta geure jendea aipatzean. (...)

Naziogintza taldea. Guk uste osoa dugu gure Herriaren elementu objektibo bereizgarriena, espainolengandik eta frantsesengandik gehien ezberdintzen gaituena, gure hizkuntza dela. Euskarak Nazio egiten gaitu. Euskarak izena eta izana ematen dio gure Herriari. Horregatik, NAZIOGINTZA TALDEarentzat gure Nazioaren izendapena EUSKAL HERRIA da, Euskararen Herria. EUSKAL HERRIA da gainera modu naturalean zazpi herrialdetako euskaldunek erabiltzen duten hitza gure Herri osoa izendatzeko. Hori gutxi balitz, EUSKAL HERRIA da gure hizkuntzaren akademiak, Euskaltzaindiak, proposatzen duen hitza zazpi lurralde historikoen multzoari izendatzeko.

Jose Luis Erdozia: frantsesa..... Frantzian; espainiera Espainian; italiara ...

	Italian; ingelesa ... Ingalaterran; suediera ... Suedian; germaniera ... Germanian; katalaniera ...Katalunian; galegoa ... Galizian; errusiera ... Errusian. Eta horrela jarraitu dezakegu luze. Kasu guztiak ez dira horrelakoak, baina gehienak bai, zalantzarik gabe. Orduan... euskara..... Euskal Herrian (euskararen herrian).
b) Nabarra Nafarroa Navarra Navarre	<p>Iturralde y Suit, Kanpionek eta beste batzuek gazteleraz eta euskeraz <i>Nabarra</i> erabiltzen zuten. Askok <i>Nafarroa</i> nahiago dute estatu izen bezala, gaurko ahoskapenaz.</p> <p>Eneko del Castillo: <u>Navarra-Navarre-Nabarra-Nafarroa</u>. Hau euskaldunon Estatuaren izen historikoa da. Nahiz eta XII mende arte izen ofiziala Iruñako Erreinua izan, nafarren izena VIII mendetik erabiltzen zen. Aragoitik banandu zenean, 1134an, Nabarrako izena Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Naxera (Errioxa), Iruñaldea, Tuter (Erribera) eta Iparraldeko alderako erabili izan zen. Denak nafartzat ezagutzen ziren eta bestetik hizkuntza Euskara zen: lingua navarrorum. Hauxe izan behar da gure estatuaren izena. <i>Ikusi eranskinean beste izenei buruz dituen proposamenak.</i></p>
c) Euskal Herri Nabarra	Leire Saitua Iribar. Euskal Herria gure betiko euskal izena baina Nabarra hitza gehituta, nabar aniztasunaren zentzuan gainera.
d) EHnabarra EH-Nabarra	Jose Maria Lexardi, Gabixola. Euskal Herriaren EH hartu eta Nabarrarekin elkartuta biak batzen ditugu, ildo biak.
e) Nabarre NabarrE Nabarreus	Patxi Alaña Arrinda. Ekialdeko eta mendebaleko mugimendu nazionalak ezkondu behar ditugu. Antzina bi erreinu elkartzten zirenean bien logoak jartzen zituzten armarrietan eta kitto. Nazio ikur guztietan (armarria, bandera, izena...) antzeko zerbait proposatu nahi dugu, bien batuketa bat. Izan dugun azken estatuaren jatorrizko izena Nabarra denez horixe hartuko genuke eta izen hori Euskal Herriaren hitzarekin nola lotu? Bai E bat jarrita: Nabarre. E hori Euskal Herriaren E da, euskeraren E , emakumeen E, ekologiararen E. “Nafarroa” edo “Navarra” erabiliko bagenitu oraingoarekin nahastuko ginatke. Izenak ez dira nahasgarriak izan behar. Euskal Herria bikain dago baina gure ondare politikoaz ez baliatzea da (...)
f) Eusgadi	Sabin Arana gogoratuz eta berak sortutako Euskadi izena hiru lurralde izendatzeko txarto erabiltzen denean, protesta moduko izendapena.
g) EHKONA (EuskalHerriaren Konfederazio Nafarra) edo EHBANA: (EuskalHerriaren Batasun Nafarra)	<p>Rafa Santxez Muxika. Badakit inork ez duela halako izen luzeak solasaldi arruntean erabiliko. Agian, auto matrikuletan, nortasun agirietan eta halakoetarako izango litzateke. Bestela, Euskal Herria-Nafarroa, edota Euskal Herria-Nabarra esango litzateke. Luzeegia oraindik? Ba ziurrenik batzuek Euskal Herria hobetsiko dute eta beste batzuek Nabarra edo Nafarroa.</p> <p>Erdaraz Vasconia hitza erabiltzeari egoki deritzot. País Vasco CAVekin identifikatzen ohi da eta Navarra baztertzen du gehien imajinarioan; eta, gainera, Komunitate Foraleko batzuei Vasconia hurbilagoa egingo zaielakoan nago. Vasco-navarro izendapena arazorik gabe erabiliko nuke.</p>

2. Armarria: Zazpiak bat, Nafarroakoa, berri bat?

2.1. Azalpena



Orreaga kolegiatan dauden kateak, kondairaren arabera Antso VIIak Navas de Tolosatik ekarri zituen, eta ondoren armarrian jarri.



XIII-XVII. mendeko armarria

a) Nafarroako Armarriaren sorrera

“Kondairaren arabera, Antso Azkarraren armarria izan zen, bereizgarritzat hartu zuena 1212an, penintsularen konkista garaietan, Nafarroa, Gaztela eta Aragoiko erregeek gerlari musulmanak garaitu zituztenean Tolosako Nabetako guduan, oraingo Jaenen.

Armarriko kateak Miramamolin Berdea (Muhammad An-Nasir) errege mairuaren denda inguratzen zutenak omen dira, Antso Azkarrak berak hautsi omen zituen bere ezpatarekin.

Erdian dagoen esmeraldak errege mairuak durbantean zeramana irudikatzen du. Antso Azkarrak kateak aukeratu zituen bereizgarri heraldikotzat, ordu arte erabiltzen zuen Arrano Beltzaren ordeztzat.” (navarra.es)

Hala ere, historialariek frogatu dute Arnould Oihenartek XVII mendean Notitia Utriusque Vasconiae liburuan salatzen zuena: Nafarroako armarria sorreran karbunklo bat zela eta ez zirela kateak. XV mende inguruan hasi ziren armarria Navas de Tolosako batailarekin lotzen, eta XVI. mende bukaeran hasi ziren karbunkloa kateengatik ordezkatzeko.

Tomas Urzainkiren iritziz, badaude karbunkloa irudikatzen duten irudiak gudua baino antzinagoak direnak Lizarrako Done Mikel elizan (1160), Iruñako Bibliaren miniaturretan (1189)... nahiz eta batzuk ados ez egon.

Pedro Esarteren arabera ere, Nafarroako armarrian kateak konkista eta gero agertzen hasi ziren, Teobaldotarren garaitik erabiltzen ziren karbunkloaren ordeztzat.

Karbunklo edo karbunkulua sorreran harri mistiko bat zen, argia bizi bat igortzen zuena eta gauaren iluntasunean argizatzen zuena. Heraldika arloan, karbunklo izena erabiltzen da izpi radialen eskema bat izendatzeko eta ez erdiko harri mistikoari bakarrik, nahiz eta hortik hartu duen izena. [Armarriari buruzko informazio gehiago: Nabarlur](#)

Nafarroako armarri historikoaren atalak



Ahoa



Azala




Karbunkulua (harribitxia)



Karbunkulu irekia



Karbunkulu itxia




Karbunkulu pomelatua

Federico Krutwig-ek ere 1963ko bere *Vasconia* liburuan ondorengo aipatu zuenez jatorrizko Nafarroako armarrak ez zuen Navas de Tolosako kateekin zer ikusirik. Harribitxi bat zela urrezko izpiak igortzen zituena.

Urfe izeneko armarren liburuan, 1360 eta 1370 urteen artean sortua, honela deskribatu zen Nafarroako armarrak: “de gueles à l'escarboucle d'or pommelée alumée de sinoble en la moyenne en guise d'esmeralde” (gorria, urrezko karbunkulu pomelatua, erdian berdez argitua esmeralda gisan).

Nahiz eta Karlos III-ak eta Karlos IV-ak, Bianako printzeak, Nafarroako armariaren karbunkulua kate modura izendatu, karbunkulua erabili zuten orduko Nafarroako eta Iruñeko armarrak.



Armariaren aldaketak (Nabarlur)



Euskal Herriaren Adiskideen Erret Elkarte
Frantzisko Xabier Munibe
Manuel Salvador Carmona

b) 1765ean Hirurak bat

Irurak bat Gipuzkoan sortutako Euskal Herriaren Adiskideen Erret Elkartearen eslogana eta sinboloa izan ziren eta ba dira, elkarte bizirik dagoelako: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren batasuna sinbolizatzen duen hiru esku lotuta.

Eslogan edo lema sortzailea Frantzisko Xabier Munibe izan zen eta irudiaren diseinatzailea Manuel Salvador Carmona artista puzelaterra. Munibe, azkoitiarra jaiotzez, Jesuitekin ikasi zuen txikitan eta gero Okzitaniako Tolosan zientzia ikasketak egin zituen. Aita hil eta herrira bueltatu behar izan zen, ezkondu, eta herriko alkatea hainbat urtez izanda, Gipuzkoako Ahaldu Nagusia eta Madrilan ere gorteetako diputatua izan zelarik.




Pedro Egaña

c) Laurak Bat

Pedro Egaña arabarrak *Laurak Bat* armarria sortu zuen 1867 Iruñan egin zen nekazaritza azoka batean.

Egilearen helburua lau aldundiak elkartu eta batera hainbat ekimen egitea zen, baina bigarren gudu karlistarekin (1876) bertan behera geratu zen proiektua.

Gero 1936an Eusko Jaurlaritzak sortu zenean bere eredia hartu zuten, Gernikako Arbolaren haritz hostoak eta guzti.




Juan Iturralde eta Suit

d) 1877 Nafarroako Euskara Elkartea

Zazpiak baten kontzeptua zazpi mendiz osatutako ikur honetan jaso zen lehenengo aldiz. Ikur horretan, Nafarroako armarria, haritz bat eta eguzki izpiak ere agertzen ziren.

Ikur hau Juan Iturralde eta Suitek egin zuen Nafarroako Euskara Elkarterako. Ondoren Baskoniako Bankuak ikur hori hartu zuen sinbolotzat eta bere eraikinean egon zen jarrita. (Andoni Esparza)



Jean Jaurgain

e) 1892an Jean Jaurgainen Zazpiak Bat armarria

Ezagutzen dugun lehendabiziko ZAZPIAK BAT 1892an diseinatu zen, Donibane Lohitzunen izandako Lore Jokoetarako kartel batean. Eredu honetan Nafarroako kateak dira lehenak agertzen, goian ezkerrean, gero Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Lapurdi eta Zuberoa.

Euskal Lore Jokoen bultzatzaile eta antolatzaile izan zen Abadia eta agian berak edo beste euskaltzale batek enkargatu zion Jean Jaurgain medikuari Euskal Herri osoaren armarria diseinatzea, heraldikan ere zaletua eta aditua zelako: Donibane Lohitzuneko Euskal Ohituraren Biltzarra eta Festak (*Congrés et Fetes de la Tradition Basque*).

Lapurdi eta Zuberoak haien armarririk ez zuten, bizkondeen eta Urruña eta Uztaritzekoekin ikurrekin osatu zituen. (Andoni Esparza)

Armarri honek aldaketa asko izan ditu azken 100 urteotan: Gipuzkoakoan kainoiak eta erregea kentzean, Lapurdikoan lis lorea kentzean, etab.

f) 1896an Zazpiak Bat armarriaren bigarren bertsioa: Sabin Arana




Sabin Arana

Hegoaldean, Sabin Aranak erakutsi zuen lehendabizi **ZAZPIAK BAT** armarria bere *Bizkaiaren Edestija ta Izkerea Pizkundera - Lecciones de Euskera Bizkaino* liburuan, baina oraingo honetan herrialdeen izenen siglen ordena alfabetikoan jarri zuen: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa(k) eta Zuberoa.


Eredu hau gehiago zabaldu izan da eta aldaketa asko ere izan ditu. Gaur egun erakunde askok erabiltzen dute: alderdiek, elkarteek (ENA...), Udalbiltzak, etab.

Batzuek diotenez, *Seiak Bat* deitu beharko litzateke, Nafarroa lurralde bakarra delakoan.

Zazpiak batek bertsio asko izan ditu:



g) Iparraldeko armarria



Iparraldeko armarria

Iparralderako armarri gisa hiru lurraldeak batu zituen: Xiberua, Lapurdi, Baxenabarre eta Frantziako koroaren lis loreak.


Lis lore gabe erabili ere zen.

Armarri hau mundu gerra eta gero zabaldu zen, Pirinio Atlantikoen eremuan Ipar Euskalerria nolabait bereizteko.

h) 1936an Eusko Jaurlaritzaren armarria



1936-1985



1985etik aurrera

1931n Amantzio Urriolabeitiak beste bertsio bat egin zuen: Zazpiak bat, Aralarreko goiaingeru, Jaingoikoa eta Lege Zaharra eslogan eta Gernikako arbolarekin. Proposamen horrek ez zuen aurrera egin alderdi batzuk ados ez zeudelako eta azkenik,

Jaurlaritzak Pedro Egañaren Laurak bat hartu zuen, Amantziok jarritako Gernikako hostoekin. 1985ean orduko APk (PP) errekurritu zuen eta Nafarroako kateak kendu behar izan ziren.

2.2. Egoera

Zazpiak Bat armariak onespén handia du eta herrialdeen batasuna adierazten du. Seguruenik adostasun handiena duen ikurra da, batez ere, lurralde guztiak barne hartzen dituelako.

Hala ere galdera batzuk egin beharrean gaude:

- Ez litzaioke agian Nafarroako armariari dagokion espazioa gehiago nabarmendu beharko? Izan ere estatu espainiarrean Nafarroak espazio osoaren %25a betetzen du (laurdenak) eta Zazpiak batean %17a baino ez. Edo Nafarroakoa aski izango litzateke?
- Edo Diasporak lekuri izan beharko armarrarian? Edo Itsasoak nazioari egin dion ekarpena ez litzateke armarrarian Gipuzkoako aldean dagoena baino gehiago nabarmendu behar?
- Edo ez da hobeto dagoen moduan utzi, onartua bada? Baina zergatik dago ordena alfabetikoaren arabera (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa...) eta ez garrantziaren arabera? Edo Gipuzkoakoan zuhaitzak itsas ondoan baina ez itsas gainean jarri jatorrizkoan bezala?


2.3. Jasotako proposamenak

Eneko del Castillo: Bostak bat

Nafarroako armaria ez zen 1212an jaio, lehenago baizik. XII. mendean erabili izan zen eta beraz Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Errioxa ere ordezkatu izan zuen Gaztelak hartu arte Nafarroako eskualdeak zirelako. Hau irudikatzeke beti erabili izan den karbunkloekin egin behar da, ez oraingo kateekin, historia interpretatzeko ikuspegi oso berezi bategatik aldatu zelako.

Beraz, batasuna politiko bat heldu bitartean, Zazpiak bat Nafarroako armekin errespetu gehiago duen bertsio honengatik ordeztea proposatu nahi dut: Bostak bat.

Izan ere, Nafarroako armaria *Laurak Baten* laukian sartzea Nafarroako iraingarria eta batu beharrean erregionalismo espainiarra indartzen lagundu du. Bi erkidegoak batzeko eta Iparraldeko bi lurralde ordezkatzeko egokiagoa litzateke



Bostak bat

Patxi Alaña Arrinda: Armarrina

Diaspora eta itsasoa txertatzeko eta Nabarrako armariari dagokion zentralitatea emateko.

Etorkizunean, sartu nahi izanez gero beste lurraldeen armariak ere sartu litezke: Errioxa, Biarno..



Armarrina

3. Bandera: Ikurrina, Nafarroakoa, bien urtarketa...

3.1. Azalpena



a) 1194an Arrano Beltzarekin izenpea


“[Antso Azkarrak](#) (1194-1234an errege) Euskal Herri gehiena hartu zuen erresumako errege euskaldunak ikur hau erabili zuen. Agian bere aitak Gartzia Ramirez Berrezarleak (1134-1150) sortuko zuen; Normandiako Margarita de l’Aiglerekin ezkondu baitzen eta Margaritaren familiak ba omen zuen jadanik arrano hau armarrarian.

Ignacio Vicente Cascanteren iritziz Antxo IV Pañalengoak (1054-1076) jadanik izenpetzeko erabiltzen zuen.”



Representación del escudo de Nabarra en uno de los armoriales europeos de la época (Armorial Beyeren, Holanda, 1405)

1405eko nafar armarrria



XVI. mendean sarri aipatu zen bandera eta hau Belgikako Museo batean gordeta dago, mende horretan egindako marrazki batean

b) Nafarroako bandera XV. eta XVI. mendeetan

XIV. mendean, Martin Larraiotzen esanetan, jadanik Paris konkistatzen saiatu ziren Karlos II.a Nafarroakoaren soldaduek txapela gorriak zeramatzaten.

1405ean, Holandan, Europako armarrrien bilduma batean Nafarroako armarrria agertzen da.

1450 urte inguruan, Bianako printzeari buruzko testu batean, bere armarritik hartutako Nafarroako armekin bakarrik bandera bat eginik bere aurkarien kontra joan zela borroka egitera idatzita agertu zen. Mikel Zuzak aurkitu du erreferentzia hori eta 2018an argitaratu zuen "Principe de Viana el hombre que pudo reinar" liburuan. Bianako printzearen armarrria ezaguna da eta bertako Nafarroako armak, karbunkulua, itxia eta borobiltxoekin da eta erdian borobiltxo berde batekin.


1512an ere, Nafarroako konkistaren garaian, Fadrique Alvarez de Toledo Albako Dukearen kronista zen Luis Correak ere horrela zioen: “aurrekaldean inoiz babesik gabe uztea zin egindako eta zenbait urrezko xarpak zituen bandera gorritadun hirurehun lagun inguru zutik itxoiten zeuden.”

[Wikipedia](#)

1555 urtean, Henrike II.a Nafarroako erregearen hiletan Nafarroako bandera handi bat eraman zuten. Kronika dago idatzita antzinako frantsesezko testu batean.

1558 urtean, Carlos V. enperadorearen hiletan ere ikus daiteke Nafar bandera. Bertan inperioaren menpe zeuden estatuak agertzen dira, Flandria, Austria, Sardinia, Aragoi,... gaur egungo bandera berdinarekin. Bertan ikus daitekeen Nafarroako bandera ondorengoa da: Karbunkloa bandera osoan, itxia, borobiltxoekin eta erdian borobiltxo berdea.


1638an, Arnault Oihenarten “Notitia Utriusque Vasconiae” liburuan bertzio hau agertu zen zuribeltzean. Eskuinean koloreetan jarri da, hobeto ikusteko:



1803-1811 urteetan, Joseph Garat Hiriartek, euskal estatu proiektua bat proposatzean Napoleonen inperio barruan, Nafarroako bandera proposatu zuen estatu horren bandera modura.



Nafarroako bandera historikoaren atalak



XVI. mendeko irudia. Bruselaseko Alberto I Museo eta nafarroako bandera historikoaren atalak



Agosti Xaho

c) 1838an Zazpi Uscal Herrialdeen bandera

Agosti Xaho xiberutarrak 1838an diseinatu zuen Euskal Herri osorako bandera hau: ezkerreko koartela beltza eta eskumakoa gorria zen. Bandera gero gehiagorik erabili izan ez den arren, bandera berdintsua Hendrike IV.k 1603an Miarrizti emana zen. Beste batzuek diotenez erdiko marra, goitik beherakoa baino zeharrekoa zen.

Xaho, 1810ean jaio zen Atharratzen eta 1858an hil zen Baionan. Xaho gabe nekez uler daiteke Iparraldeko politika, komunikazioa eta kultura: Parisen ekialdeko hizkuntzak ikasi, Baionan Uskal Herrico Gaseta sortu, 12 liburu frantsesez eta eskuaraz 3 idatzi, politikari bilakatu, kantutegi bat egin, euskera-gaztelera-frantsesa-latina hiztegi bat amaitu gabe utzi, Gasteizen exiliatu... Esan beharra dago 1789an Parisen izandako iraultzan hasi zirela banderak erakusten. Ordura arte erregeek erabiltzen zituzten pendoiak, goitik beherakoak, ezkerretik eskumatarakoak bilakatzen hasi zirenean eta erregeek edo hauen menekoek eramatetik herritarrak erabiltzera pasa zenean.




Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
elkartuetako bandera

d) 1859an Irurac bat bandera

Izen bereko armarrarian oinarrituta IRURAC BAT bandera sortu zuten: hondo gorriaren gainean hiru esku lotuta eta goialdean **irurac bat** eslogana idatzita.

Eslogan hutsetik bandera izan arte ia 100 urte pasa ziren: **1765-1859**.




Victor Hugoren jaiotzaren 80.
urteurrenean erakutsitakoa

e) 1881ean Laurac bat edo Euscal Erriaren bandera

Ezkerreko gorriak Nafarroa ordezkatzeko eta eskumako zuriak Hegoaldeko gainerako hirurak. Era berean izar bakoitzak herrialde bana ere.

Parisen erakutsi zen munduko 324 estandarte eta banderen artean Euskal Herriaz maitemindutako Victor Hugo poeta frantsesaren jaiotzaren urteurrenaren harira. Victor Hugo hainbat aldiz egona zen Euskal Herrian. Pedro Soraluze Zubizarreta historialaria, kazetaria eta iragarkigile donostiarrak berreskuratuak da.




Sabin eta Luis Arana Goiri

f) 1894an Ikurrina: Sabin eta Luis Arana Goiri

1894an Sabin eta Luis Arana anaiek Bizkaiko armarrarian oinarrituta proportzio honetan diseinatu zuten Ikurrina.

Arana anaiek ikurrinean gure sinismen eta legeak irudikatu nahi izan zituzten kolore bakoitzari esanahi berezia emanez: gorria arraza eta odolaren sinboloa, berdea Gernikako Arbola eta gizakien legeak eta ondorioz gure erakunde propioak eta, azkenik, arraza eta legeen gainean, zuria, Kristoren legea ordezkatzeko duena.


Gurutze bikoitzak ere bere sinbologia du, euskal jentilek gurtu zituzten bi ikurren arteko bateratzea delako: gurutze bertikala eta gurutze



gurutze zeharra. Lehenak eguzkia esanahi zuen, gaur egungo nazionalistentzat Jainkoa; bigarrenak ilargia irudikatzen zuen. 1910an euskal abertzaletasunarekin batera ikurrina Nafarroa Garaian hedatzen hasi zen eta urte berean Nafarroako Diputazioak Euskara Elkartearen partaideei (Kanpion, Iturralde...) Nafarroako bandera diseinatzea agindu zien, hauek urte biren ondoren egin zutena. 1930ean Iparraldean Piarres Laffite idazle euskaltzalearen bidez zabaltzen hasi zen Ikurrina.

1932an Bilbon, 1933an Donostian, 1934an Gasteizen, 1935ean Iruñan... lehenengo aldiz egin ziren Aberri Egunek ere izugarritzko hauspoa eman zioten erabilerari.

Informazio gehigarria: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Ikurrin> [Nabarlur](#)




Luis Arana Goiri


g) 1907an Euskadiko Konfederaziorako bandera

Urte horretan Luis Aranak, Sabin anaia jadanik 4 urte hil zela, aurkeztu zituen gainerako euskal herrialde eta konfederaziorako banderen diseinuak, anaiarekin pentsatu eta diseinatu bezala.

1950ean Santurtzin hil zen arte, Luis Aranak Konfederaziorako bandera aldarrikatzen jarraitu izan zuen.



1910 Kanpion, Altadill eta Oloritz



1931-1937an ofiziala



1937-1981 ofiziala (laureatua)

h) 1910ean Arturo Kanpion, Altadill eta Oloritz

Espainiako Gobernuak estatuko bandera 1910etik aurrera eraikin publiko guztietan jartzea agindu zuen. Bestetik, Euskal abertzaletasuna Nafarroan orduan hasi zen hedatzen. Egoera hartan Aldundiak Nafarroako bandera [diseinatzea](#) agindu zion bitzta osoan euskaltzalea izan zen Arturo Kanpioni. Horrek, Altadill eta Oloritzekin batera lehenengo proposamena egin zuen. Uztailaren 16an «Jauregiko Tronu Aretoaren balkoian» eskegi zen lehendabizi eta aurkezpen zabala Tolosako Nabetako Guduaren urteurrenean, 1912an izan zen. ([Ohorezko domina bandera egiteagatik](#))


Kanpion eta gainerako *euskaroak*, kateen armarrarian oinarritu ziren, kolore gorriaren gainean. Kolore gorria inoiz errege nafarrek erabilia izan zela diote kronista batzuek. Koroa ere erreinua gogoratzeko jarri zuten.

Hasieran Espainiako Gobernuak ez zuen begi onez ikusi eta debekua Primo de Riveraren garaian izan zen. <http://nabarralde.eus/reflexiones-sobre-banderas/>

Errepublikara garaian ere ofiziala izan zen baina frankismoak ereinotza jarri zion eta koroa aldatu.

1975etik aurrera, Ezker Abertzaleak koroarik gabeko eredu erabili izan du.

Azken 40 urteotan indarrean egon den eredu ereinotza kendu da baina ez da Errepublikako koroa jarri.



1975etik Ezker Abertzalea




1982tik ofiziala Nafarroa Garaian

Informazio gehiago:

[Wikipedia](#)
[Nafarroako bandera](#)

[Wikipedia](#)
[Escudo de Navarra](#)



1936an Euzkadiko Jaurlaritzak onetsitako eredua

i) 1936an Euzkadiko Jaurlaritzaren bandera

“Urriaren 19an, Jose Antonio Agirre lehendakaria zela eta Santiago Aznar Industria sailburu sozialistaren proposamenez, ikurrina orduko Euskadiren bandera ofizialtzat hartu zen.

Horrela, 40 urte lehenago Arana anaiek diseinatutako Ikurrinak aitopen instituzionala jaso eta eraikin ofizialetan jartzen hasi zen.

Baina aldaketa batekin, Victor Bilbao Goioagak Aldasoro sailburuari ikurrinaren zerrenda zuri eta berdeak urrutitik hobekiago ikus zitezen (itsasontzietan adibidez) zabalagoak izatea komeni zela aipatu zion. Eta halaxe egin zen oraingo itxura hartuz.

1938-1977 Debekua Hegoaldean. Gerra galtzean, 1938an, faxistek ikurrina debekatu zuten. Hala ere, ordurako Iparraldean erabiltzen zen eta Hegoaldean, debekuen gainetik, erabiltzen jarraitu zen, klandestinitatean bazen ere, batez ere, 1960ko hamarkadatik aurrera.

1977an Hegoaldean debekatuta egoteari utzi eta Eusko Jaurlaritzak 1979tik aurrera berriro EAEko bandera ofizialtzat hartu zuen...”. [Wikipedia](#)



j) 1978an Arrano Beltza: ikurretik banderara

1194ko zigiluan oinarrituta, Arrano Beltzaren bandera berria aurkeztu zuen Enkoari elkarteak 1978an Auritzen antolatutako Arbasoen Egunean, milaka pertsonen artean.

Urte hartako abuztuaren 15ean ikurrina berri bat eta Aberri Egun berri bat ere proposatu ziren. Hondo horia gehiago nabarmentzeko hautatu zuten.

Orreagako guduaren urteurrenean, Nafarroan 33 herritan eta gainerako Euskal Herrian ere jai delak hartuz aukeratu zuten eguna.

Aberri Egun berriak ez zuen arrakastarik izan baina Arrano Beltzak, EHrako beste ikurrina berri bat, Nafarroako Erresuma independentea izandako garaia gogoratuz zein gaur independentzia nahi dutenenak hor dirau. Gero etorriko ziren HBren herriko tabernek, 33 izan arte, Arrano izena hartzen. Lehenengoa, dena dela, Donostiako EHEren Arrano egoitza izan zen.

Azken urteetan, 2012 urtetik aurrera arrano historikoa fondo gorriarekin erabiltzen hasi da, bai Indar Gorrikoek eta bai, Iruñeko peña eta elkarteetan jaiak direnean.

[Informazio gehiago: Martin Ttipia: Arrano-beltza-un-estandarte-con-mayusculas/](#)



Saint Pierre eta Mikelune



Johnson konderria – AEB



Luis XIV.ren armarrria

k) Ikurrinaren eta Nafarroako armarrriaren hedapena munduan

Munduan ikurrina osagai gisa duten bi bandera ofizialak dira, euskal arrantzaleen eraginagatik: [Saint-Pierre eta Mikelune](#) eta [Johnson konderria, AEB](#).

Bestetik Nafarroako Armarrria Nafarroatik kanpo asko erabili dute, Frantzia nagusiki, eta hango jauregi eta leku askotan ikusten da.

3.2. Egoera

Azken urteotan eztabaida zabala dugu gure estatua irudikatzeko zein den banderarik egokiena mahai gainean jartzen dugunean: ikurrina? Nafarroako bandera?

Batzuentzat Nafarroako bandera hobesten badugu, izan genuen Erreinitik estatua berreskuratzeko bidea erraztuko litzateke. Gainera, diotenez, Nafarroako ikurra ikurrina baino askoz zaharragoa da, 7 mende dituelako, eta gure historiarekin hobeto lotzen gaitu. Ez hori bakarrik, Nafarroa historikoan (Burgosetik Akitaniaraino) oraindik abegikotasuna zabaltzen duela, ikurrinak lortu omen ez duena. Amaiurren edo Noainen independentziaren alde borrokatu zutenen ikurra izan zela. Azkenik, nafar guztiak bat egiteko, ekialdeko guztiekin batez ere, ikurrik proposena dela.

Beste askorentzat ikurrina debekuen gainera aurrera joan nahi duen herriaren eta aldi berean, herriaren alde bizitza eman dutenen ordezkari egokia dela esaten dute: errepublika garaian, frankismoan... Baita euskal nazioarekin, euskerarekin eta euskal kulturarekin hobeto lotzen gaituela.

Eztabaida horren erdian, ez dugu ahaztu behar gaur egun ikurrina zein Nafarroako bandera ikur autonomiko bihurtu dizkigutela, eta horrela, erkidego bana ordezkatzeko erabiltzen direla. Ondorioz, espainiar gobernuaren ordezkartzetan edo estatu bien egiturak onartzen dituzten gobernuetan eskegita daudela.

Katalanek izar bat jarri zioten euren banderari, estelada sortuz, egoera berri bat irudikatu ahal izateko: burujabetasunaren bila doan herri bat direla adierazteko. Naziogintza taldeak euskal izarra gehitu dio ikurrinari egoera berri hori islatzeko eta Ezkurra anaiek Nafarroakoari ere. Norabide horretan, independentzia bilatu nahi badugu, zerbait egin behar dugula argi dago: ikur biak uztartu eta nafar ikurrina sortu? Naziogintzaren eredua hobetsi? Nafarroakoari eta Ikurrinari izarra jarri? Beste berri bat sortu?


3.3. Azken urteotan ikusitakoak eta foroan jasotako proposamenak

Azken urteotan ikusitako banderak

 <p>2000 Wikipedia-Udalbiltza</p> <p>Diseinu hau Nafarroako bandera historikoa oinarri hartuta, wikipediarako digitalizatu zuten, wikipedia sortzean eta ondoren 2013an Udalbiltzak bandera historiko hau proposatu zuen Ikurrinarekin batera.</p>	 <p>2009 Hainbat kolektibo</p> <p>Hainbat kolektibok egindako egokitzapena da kateen armarrria duen banderan, karbunkulua duen armarrria jarri eta kateak ordezkatzuz.</p>	 <p>2018</p> <p>Ezkurra anaiek (Iñigo-Karlos) diseinatu dute 2018an, Herri-tar Batasunarentzat. Bandera honek independentzia (nafar armarrria) eta sozialismoa (izar gorria) uztartzen ditu.</p>	
 <p>1986an Euskal Herri Berriaren ikur berri gisa sortua. Ortzadarraren zazpi koloreetako bakoitzak euskal herrialde bana irudikatzen du: Nafarroa gorria, Gipuzkoa laranja, Araba horia, Baxe Nabarra berdea, Lapurdi urdin argia, Bizkaia urdin iluna, Zuberoa morea. Urtzi Ihitzak egindakoa.</p>	 <p>2013n hasi zen <i>Euskal Herri Nafarra</i> izen berria proposatzen, hain zuzen ere, 2012an konkistatu gintuztenen 500. urteurrenaren ondoren. Jarraian etorri zen ere ikurrina eta Nafarroako bandera uztartuz, honako eredu berria, 2014an. Batzuek Nafarroakoa ezkerrean jartzea diote.</p>	 <p>Ikurrina eta Zazpiak bat</p>	
 <p>ABC egunkaria</p>	 <p>Egileari buruzko informaziorik ez</p>	 <p>2012 Achilles Tsomkopoulos</p>	 <p>(Ez dugu irudi osoa lortzerik izan)</p>

Foroan jasotako proposamenak

a) Izardun ikurrina




Naziogintza taldea.

2017an Naziogintza taldeak erabiltzen duen bandera berria. Taldearen oinarriak zehatzak bezain zuzenak dira: *euskara, independentzia, identitatea*.

Hemen horren azalpen eta arrazoiak:

www.naziogintza.eus/gure-ikurra/.

b) Nafarroakoa



Enrique Arriaga: Nafarroako banderaren alde (foroan sartuta)

- Por cómo se ha manejado el uso de la ikurriña en Navarra, se produjo en su día en Navarra un rechazo amplio a la misma dado además que luego ha sido la oficial de Euskadi y bajo el lema de Nafarroa, Euskadi da, hemos conseguido que estemos como estamos.
- En el modelo que se recibió en rojo y la ikurriña pequeña en una esquina., y aunque lleve el escudo de Navarra en medio, no creo que sea aceptada en bastantes zonas de Navarra
- La ikurriña no es aceptada o genera repulsa, y sin embargo la de Navarra es aceptada por todos, incluso quienes también quieren la ikurriña.
- A otros efectos, hay que pensar en una Navarra OSOA, y en base a ello y teniendo en cuenta que NAVARRA ES UNA NACION CONQUISTADA POR LAS ARMAS, y a día de hoy lo sigue siendo permanentemente -Navarra es cuestión de estado (español) conquistada, tenemos el DERECHO LEGITIMO INTERNACIONALMENTE RECONOCIDO a volver a ser un estado independiente, como éramos ya hace siglos. Ésto nos tiene que hacer pensar que, por ej. el escudo de Navarra está esculpido en edificios de hace siglos identificando a una nación libre y soberana.
- La ikurriña es artificial y total tiene cien años, no identifica y legitima algo más amplio que la actual Euskadi, al margen de que en Iparralde, por ej. se usa de modo cultural, y de que en su día en Hegoalde identificase la disidencia, pero al ser adoptada por un ente político concreto creado ya ha perdido vigor como para asumirlo como común por parte de muchos navarros. La de Navarra se mantiene como la de todos los vascos: NAVARRE IS THE STATE OF DE BASQUE COUNTRY. Ya dijo alguien SOY VASCO DE LINAJE Y NAVARRO DE NACIÓN.


c) Euskal Herria beltza



Koldo Urrutia

- Bandera beltza eta erdian lauburu zuria
- Piraten bandera, boterearen aurka daudenean bandera

d) Gure banderak



- Diseinua azaltzera pasa aurretik, nire ikurrin gisa euskal herriaren gehiengoak libreki berea egin duen eta Euskal herriko lurraldea ordezkatzen duen edozein ikur onartzen dudala aurreratu nahi dut
- Lehenengo geruza: Atzealde gorriarekin, Ikurrina eta Nafarroako bandera bezala.
- Bigarren geruza: Goian ezkerrean Ikurrina itsatsita, inguruan zazpi puntako zazpi izar zuri dituelarik. (Izar hauek zazpi herrialdeen adierazle direlarik "Zazpiak bat").

Iñaki Laka. Eredu berria (foroan sartuta)

- Bilbon aurreratu nizuenaren harira, ikurrina eta Nafarroako bandera, euskaldunongandik odola isurtze arte errespetatu eta defendatuak izan direla pentsatzen jarraitzen dut.
- Bi ikur hauek bat egiterakoan, ezin da hauetako inor baliogabetu bere osotasunean, eta are gutxiago herriaren gehiengoak defendatzen dituztenean.
- Hori dela eta, sentimendu edota ikur bi hauekin bakarri sortu nahi izan dut, nire irizpideen arabera bakoitzaren ezaugarri garrantzitsuenak mantenduz.

e) Berria




Aldaburu'eta Aizpurua'tar Patxi. Eredu berria (foroan sartuta)

- Biltzarrerri nire bandera proposatzerakoan izan dudana honako hau da: askatasuna. Horregatik askatasunaren ikurriña edo bandera deitu izan diot. Izan ere, gure herria oso antzinakoa izanik, historiaurretik hel diezaiokegu bere izaerari, eta zer esanik ez historiari. Hala ere, nik ikusten dudanez, eta aztertu ondoren ateratako ondorioa da, euskaldunok,
- guztiok geure euskaltasunari uko egin gabe eta horretaz harro egonda ere, elkarren aurka egin dugula etengabe, talde edo multzo batzuk beste batzuen kontra. Gainera, beti, edo ia beti, kanpoko beste herri baten interes edo eraginaren jardunean jardun dugu. Hori bai, bakoitzak berea inor baino euskaldunagotzat hartuta.
- Gaur eguneko zazpi lurraldeetatik iparraldekoak kontuan baditugu frantsesen gudan ibili ziren euskaldunak, nahiz eta euren euskalduntasunari uko egin nahi ez. Egun, berriz, euskalduntasuna adierazteko, eurek bi gurutzetako Sabinoren ikurrina dute ikur, batik bat.
- Gainerako lurraldeetan, hegoaldean alegia, euskaltasunak ikur berberak adierazten du, Sabinorenak; baina, Espainiar estatuaren mende egoteak euren gudetan sarrarazi die euskaldunei, bananduz eta elkarren aurka jardutera behartuz. Hor dira karlistak: independentzia gordetzen zuten foruen aldekoak, nafarrak eurak. Sutsu aritu izan dira guda horretan, nahiz eta gero esan independentzia 1512 konkistan galdu zutela. Hori guztia galdu ondoren Sabinoren erreakzioa atera zen, askatasun-eske. Zazpi lurraldeetan zabaldua. Hala ere, espainiar azken (aurreko) gudan berriro karlistek (nabarmen espainiar zati batekin elkartuta) sabindarren ikurriña-pean ari ziren gudarien aurka, harro nabarmendu ziren. Sabindarrak, berriz, espainiarren zati bat defenditzen sutsu, haien ondoan (espainiar errepublika zaleen ondoan, alegia).
- Hemendik guztiagatik zer atera daiteke? Odola eta mina; oraindik ere hor dirauena. Baina, batez ere zatiketa; kanpotarrek eragindako euskaldunen zatiketa.
- Historian ikasitakoa, desikasten ikasi behar izan dut. Eta denaren atzean euskaldunon herria: jendea, lurra, kultura, bizitzeko eta elkar ezagutzeko modu berezi bat, eta mundua ezagutzeko modu berezi bat badugula seguru nago.

- Horretxek ematen dit kemena zerbait berria ateratzeko: atzeko loturak utzi eta euskaldunok batuko gaituen zerbait asmatzeko indarra sentitu dut, orain artekoak ez baitu erremediorik, nire ustez. Beraz, askatasun horretatik abiatuta, herri zahar honen gaur eguneko oinordekoentzat, nire proposamena da euskaldun guztiok ezagutu eta batuko gaituen badera berri bat; espiritu askatzailetik egindakoa.
- Esan bezala, bandera hori egiteko ez dut kontuan hartu aurreko historia (ez kontatzen digutena; ez benetakoa); edo sinbologia (beti kanpotarren interesak kutsatua, dena esan behar bada); ezta erlijioarekin zerikusirik duena ere.
- Gainera, sinpletasuna bilatu dut, edozeinek bizirauteko baldintza kaskarrenetan ere, edozein zapirekin egiteko modukoa; eta ikusgarritasuna. Umeek ere, etxean edo ikastoletan, erraz egin eta irudikatu dezaketena, alegia.
- Bi kolore ditu: oinarrian horia da, gure herri askearen esanahia har dezakeena, bi marra beltzekin. Marra hauek gure kultura eta izaera berezia adierazi ahal dute, batez ere gure hizkuntza, euskara; kontatzeko eta idazteko legenda baten moduan.

f) Nabarrina




Webguneetarako, euskera irudikatzeko

Jose Mari Lejardi eta Patxi Alaña Arrinda

- Nabarrako bandera eta Ikurrina uztartu behar ditugu.
- Biak batzen baditugu bien sentimenduak jasota geratuko dira.
- Nabarrako bandera ikurrinaren erdian zentratuta ondo geratzen da. Bietan gurutze biak daudelako eta kolore nagusia, gorria, partekatzen dutelako.
- Odola isuri duten gure aberkideek eraman izan dituzten bi ikurrak dira: Nafarroakoa Noainen Nabarrerren alde eta ikurrina azken mendean Euskal Herriaren alde.
- Jende gehienak aldaketa gutxi nahi ditu eta Nabarrinan legitimitate eta sentimendu biak ikusten dira eta biak oso garrantzitsuak dira.


g) Nabarra-Ikurrina



Batzuen artean

- Bi ikurrak erabili nahi badira, erdi eta erdi ere erabili daiteke.
- Altsasun diseinu honekin mural bat dago margotua.
- Bere erabilpenerako bat bankuko kutxazainetan eta webguneetan euskara aukeratzeko ikurra izan daiteke.

h) EH-NA ikur kuartelatua.



Rafa Santxex Muxika

- Ez dago zalantzan Ikurrina eta Nafarroaren gorria, biak ala biak, euskaldun guztion ikurrak direnik. Ez du axola, nork asmatutakoa edo zein erabilera egin zaion bakoitzari, batez ere azken urteotan. Ikurrina Euskal Herriaren eta bere naziotasunaren ikurtzat hartzen dut nik. Nafarroako armarrria eta bandera gorria, aldiz, euskaldunak/baskoiak egitura estatalean antolatu direnean Europako erresumen artean identifikatzeko ikurra. Nire proposamena beraz, bandera bakar batean euskal herritar eta nafar guztion ikur biak uztartzea.

4. Ereserkia: Gernikako Arbola, Nafarroako Ereserkia, Eusko Gudariak, Gorteetako, etab.

4.1. Azalpena

Gernikako Arbola da bedeinkatua euskaldunen artean guztiz maitatua. Eman ta zabal zazu munduan frutua adoratzen zaitugu Arbola santua

Mila urte inguru da esaten dutela Jainkoak jarri zuela Gernikako Arbola. Zaude bada zutikan orain ta denbora eroritzen bazera arras galdu gera

[Letra osoa](#)

a) Gernikako Arbola

Letra Jose Maria Iparragirre musikari eta olerkariak idatzi zuen arbolaren eta Euskal Herriko foruen omenez.

Musika Lekeitioko organista zen Juan Maria Blas Altuna Maskaruak konposatu zuen.

Herritar askok ereserkitzat hartzen dute, EAEn ofiziala den *Gora ta Goraren* ordez. Bietan Gernikako Arbola aipatzen da.



Eusko Gudariak gara Euskadi askatzeko, gerturik daukagu odola bere alde emateko.

Irrintzi bat entzun da mendi tontorrean, goazen gudari danok Ikurriñan atzean.

Faxistak datoz eta Euskadi da altxatzen. goazen gudari danok gure aberria askatzen.



b) Eusko Gudariak

“1932an Jose Maria Garatek idatzi zuen (gero EAJko EBBko presidente izango zena). Doinua *Atzo Bilbon nengoen* arabar abesti herrikoian oinarrituta. Gerra zibilean, Alejandro Lizaso kapitainak letra aldatu zion azkeneko estrofari kutsu borrokalariagoa emateko.

Gerra Zibilean eta baita frankismoaren garaietan ere Euskal Herriko ereserkitzat erabiltzen zen, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak 1936an Eusko Abendaren Ereserkia (Gora ta gora) hautatu. 1983an, Euskal Autonomi Erkidegoko bandera eta ereserkia erabaki zituztenean, *Eusko gudariak* izan zen ereserkia izateko aukeretariko bat (Besteak Gernikako arbola eta Eusko Abendaren Ereserkia ziren).” [Wikipedia](#)

Dena dela, *Eusko gudariak* asko erabiltzen da ereserki modura, manifestazio eta elkarretara-tzeetan.

*Nafarroa,
lur haundi ta azkar
beti leial,
zure ospea da
antzinako lege zaharra.*

*Nafarroa,
gizon askatuen sorlekua,
zuri nahi dizugu
gaur kanta.*

*Gaiten denok bat,
denok gogo bat.
Behin betiko
iritsi dezagun
aintza, pake eta maitasuna.*



c) Nafarroako Gorteetako ereserkia

“Gorteen Ereserkia Nafarroako Foru Erkidegoko ereserki ofiziala da. .. Jatorrizko doinua, "Erresumako Gortearen Sartzerako Martxa" izeneko pasaklaustro barrokoa da, Iruñeko katedraleko klaustroan jotzen zen Nafarroako Gorteetako kideak batzarretara zihoazenean.

Martxa hori XIX. mendetik jotzen zen ospakizun ofizial nagusietan... Nafarroako Gobernuak ereserkiaren harmonizazio ofiziala onartu zuen 1993an eta Manuel Iribarrenek 1971n idatzitako hitzak erantsi zizkion Jose Maria Azpirozek euskeratu zituelarik.” [Wikipedia](#)

*Gora ta Gora Euskadi
aintza ta aintza
bere goiko Jaun Onari.
Areiz bat Bizkaian da
Zar, sendo, zindo
bera ta bere lagia lakua
Areiz gainean dogu
gurutza deuna
beti geure goi buru
Abestu gora Euskadi
aintza ta aintza
bere goiko Jaun Onari*

d) Gora ta gora ereserkia

“Eusko Abendaren ereserkia (Euskadiko ereserkia, orobat *Gora ta Gora* deitua. Jatorrizko izena, Euzko Abendaren Ereserkija) antzina dantza ekitaldiei hasiera eman aurretik jotzen zen doinua da. Hitzak berriagoak dira, Sabin Aranak 1902an sortu eta idatziak. Abenda hitzak arraza esan nahi du. 1983ko apirilaren 14an, Eusko Legebiltzarrak EAeko ereserki ofizialtzat onartu zuen doinu hau. Hala eta guztiz ere, jende asko horren kontra azaldu zen, ereserkitzat nahiago baitzuen Jose Maria Garateren Eusko Gudariak edota Jose Mari Iparragirrereren Gernikako Arbola.” [Wikipedia](#)



Agur, jaunak!
 ta andreak!
 agur t'erdia.
 Danak berdinak
 eñak gire:
 zuek eta
 bai gu ere.
 Agur, jaunak!
 ta andreak
 Agur t'erdia.
 Hemen gire.
 Agur, denak!



e) Agur jaunak

“Abesti hau XIX. mendean sortu zen. Antonio Peña y Goñi musikariak Felipe Pedrelli 1892an bidalitako eskutitz batean Errenteriako jatetxe batean Urtxalle pelotari ospetsuaren-gandik jasotako doinuaren berri ematen dio...

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1917ko abuztuaren 13an Mikeleten klarin-dei moduan onartu zuen. Jose Olaizola Gabarain musikariak sortu zuen abestiaren lehenengo bertsioa "Lapurdiko aspaldiko ehiza-kanta bat egokituta". Abestia 1918ko abuztuaren 1.an aurkeztu zen lehenengoz Loiolako Santutegian. Oso ezagun bihurtu zen hilabete bat geroago Oñatin egin zen Eusko Ikaskuntzako Bilkuran.

Halere, sortzailea nor izan zen, hainbat bertsio dago; badirudi abestiaren sortzailea, zabaltzailea edo lehen omendu ezaguna izan zela Manuel F. Lekuona pilotari eta bertsolaria.

Jose Luis Ansorena musikariak 1955ean doinu bera zuen Vienako aspaldiko melodia baten berri jaso zuen.”


EHUren bertsio parekidea egin zuen, hemen jaso duguna.

[Wikipedia](#)

Hegoak ebaki banizkie
 nerea izango zen,
 ez zuen alde egingo. (bis)

Bainan, honela
 ez zen gehiago txoria izango (bis)

eta nik...
 txoria nuen maite (bis)



Irudia: Erlantz Ortiz

f) Txoria Txori

“Txoria txori euskal poema eta abesti herrikoia da. Hitzak Joxean Artzek idatziak dira; doinua, berriz, Mikel Laboak sortua. Artzek, Donostiako Parte Urbieta kaleko jatetxe batean, paperezko ezpainzapi batean idatzi zuen poema; Laboaren emazte Marisol Bastidari gustatu egin zitzaion; eta Mikel Laboak ezpainzapia etxera eraman eta musika jarri zion. Askatasun ukatuari egindako abestia da.

Lehendabizikoz Astoria antzokian jo zuenetik ospetsu bilakatu zen”.

Askatasunarekin duen loturagatik, agian, horrenbeste arrakasta lortu duen kanta dugu.

[Wikipedia](#)

4.2. Egoera

Gainerako ikurretan bezala, ereserkia zein izan behar den sarri eztabaidatzen den gaia da eta ez dago gutxieneko adostasunik. Hauetako bi, dagoeneko, ofizialak dira baina lurralde desberdinetan: EAEn *Gora ta Gora* hautatu zuten eta Nafarroa Garaian *Gorteetako Ereserkia*.

Zenbait ekitalditan bakarra jo beharrean, adibidez, bi jotzen dira, ikuspegi zabalagoa eskaintzearren.

Zein aukeratu herri burujaberako?

4.3. Jasotako proposamenak

<p>a) Jaiki-jaiki</p>	<p>Jaiki jaiki gehitu</p> <p>Jeiki, jeiki etxeoak, Argia da zabala, Argia da zabala! Itsasotik mintzatzen da Zilarrezko tronpeta Bai eta ere ikaratzen Olandresen ibarra! [bis]</p> <p>Jeiki, jeiki etxeoak, Argia da zabala, Argia da zabala! Itsasotik hurbiltzen da</p> <p>Untzi bat kargatua; Gaitzen denak mentura Haren atakatzera! [bis]</p> <p>Jeiki, jeiki etxeoak, argia da zabala, argia da zabala. Itsasoan agiri da argi gozo biguna, bere aurrean beldurtuta ihes doa iluna, ihes doa iluna.</p>
<p>b) Nola zabaldu</p>	<p>Andoni Esparza</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nire ustez, ongi legokela, grabazio batean proposatzen diren ereserki guztiak jartzea (ez ahaztu "Jeiki-Jeiki euskotarrak": doinuna Iparraldekoa da eta hitzak Hegoaldean jarri zizkioten). - Adibide gisa, Youtuben ikusi dut (irudiak ere jartzen dizkiote), "Russian anthems history". 39:06 minutu irauten du eta tsarren garaitik hasita, Sobien Batasunetik pasa eta gaur arte iristen da. Interesgarria da.
<p>c) Nafarroako Ereserkia</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Enrike Zelaiak 1838n Wilkinson musikatu du Iruñako Foruen Monumentuan dagoen testua. <p>Nafarroako Ereserkia Enrike Zelaiak akordeoiarekin joa.mp3</p>
<p>d) Gernikako Arbola</p>	<p>Jose Mari Espartza</p> <ul style="list-style-type: none"> - Iturraldek esan zuenez Gernikako Arbola da gure ereserki nazionala da. - Askatasunaren ikurtzat hartu zen eta Tuteratik Baionaraino. Adibidez, alemaniarrengandik askatzean Gernikako Arbola eta Marseillesa kantatu zuten. - Iparragirre horregatik kanporatu zuten. Lau aldundiek pentsio bat ordaindu zioten Iparragirreri sortzeagatik eta hain kanta garrantzitsu bihurtzeagatik. - 1893ko San Ferminetan Gernikako Arbola debekatu zuten baina azkenean baimena eman behar izan zuten. Zezen bakoitzarekin Gernikako Arbola kantatzen zuten. Olerki bat egin zuten, “el toro asoma el hocico y la plaza canta el zortziko”, “Rueda el toro hecho una bola y la plaza recita el Gernikako Arbola”. Tafallan eta Tuteran erderaz kantatzen ziren “Tafalla te saludo Diputacion Foral..... y anadie a nuestros foros y prefieren la muerte sin honor” - Zergatik bonbardatu zuten Gernika? askatasunen ikurra zelako. - EAEko bozketan PSOE eta PP alde baina EAJrena atera zen. - Gora eta Gora eta Nafarroako Gorteetako ereserkiak ez dira zabaldu. Aukera ona da. - Ez da ofiziala eta hori ona da.
<p>e) Zenbait irizpide</p>	<p>Rafa Santxez Muxika</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bateragarria, kantagarria, solemnea: Euskal-nafarroak abeslari herri bat izan gara beti. Ez ditut oso egoki jotzen oraingo Hegoaldeko erkidego banaketan dauden Gora ta Gora edo Nafarroako Gortetako. Gora ta Gora EAJarekin

lerratuegia iruditzen zaidalako. Letra inork gutxik daki abesten gainera. Bestalde, Nafarroako Gorteetakoa egungo erkide foralekoa delako. Hala ere, Nafarroako Gorteetakoa ekitaldi instituzionalerako gordeko nuke daukan ondare historikoagatik eta solemnitategatik. Nafarroako Gorteetako Ereserkia, berriz, kantatzeko zaila iruditu zait beti; kantatuta entzun dudan bakoitzean koroa ezinean zebilela iruditu zait ia beti.

- Gernikako Arbola: ereserki historikoa eta solemnea ere bai. Onartua bai Gernikako Haritzaren aurrean zein Gaztelu Plazan, abertzaleek zein karlistek abestutakoa. Gaur egun, osteran, askoren aburuz Jainkoaren aipamen erlijiosoa tokiz kanpo egon daiteke.
- Agur Jauna: letra erraza, laburra, errez ikasteko modukoa, solemnea. Berdintasunaren mezua oso egokia gaur egun. Baina, beti ere letrari moldaketa parekide eta erlijio kutxu barekoa emanez, EHUK egindakoaren bidetik. Iparraldean ereserki moduan kirol partidenetan abesten da sarri. Nafarroa Osoan onartua -mendebaldeko Euskadin zein Nafarroa Garaian ere guztiz onartuta.
- Txoriak Txori: letra erraza, laburra, oso herrikoa. Mezua oso egokia. Behar bezain solemnea ereserki baterako ote da? Moldaketa orkestralaren arabera oso egokia izan daiteke ekitaldi ofizialetarako zein jendetza handiak abesteko ere.
- Eusko Gudaria: letra erraza, laburra, oso herrikoa. Baina, aukeran, ekitaldi gehienerako militarregia. Bere tokia omenaldietan izan beharko luke. Gainera, Euzkadi hitza, bakarrik, erabiltzea oztopo izan daiteke.
- Jaiki-jaiki: letra erraz samarra, laburra, oso solemnea baina ezezagun samarra.
- Txanton Piperri (Euskal Herriko semeak gera...): letra erraz samarra, laburra, oso solemnea baina ezezagun samarra.

5. Nazio eguna eta egutegia: Aberri Eguna, Orreaga Eguna, Euskeraren Eguna ...

5.1. Azalpena



a) Nazio Eguna: Aberri Eguna

“Lehenengo Aberri Eguna Bilbon izan zen 1932ean, Euzko Alderdi Jeltzaleak deitua. Manifestaldi bat izan zen eta Sabin Aranaren etxean bukatu zen. Jendetza mobilizatu zen (60.000 lagun inguru).

Frankismoan egun hau guztiz debekatua izan zen eta horregatik aldarrikapen nazionalareko erabili ohi zen. Aberri Egun batean ere ETAK bere burua aurkeztu zuen publikoki Galdakaoko eliza batean.”

Azken bi hamarkadak: “EAJk Aberri Eguna jaiari balio instituzional handiagoa emango dio, irailean ospatzen den Alderdi Egunerako (EAJ-PNVren Eguna), jendetza biltzearen ahalegina utziz. Bitartean Ezker Abertzaleak ohiko duen bezala Nafarroaren barneratze instituzionala aldarrikatzeko Aberri Eguna Iruñean ospatzen du.(...)”

1998tik aurrera Udalbiltzak saiakerak egin izan zituen Aberri Egun bateratuak deitzeko eta honek oihartzuna izan du Ipar Euskal Herrian. Azken urteotan Independentistak sareak deitu du hainbat Aberri Egun bateratu...” [Wikipedia](#)



b) Nazio Eguna: Orreaga Eguna / Askatasunaren Eguna

Orreaga Fundazioak urtero Orreaga Eguna antolatzen du Ibaetan, Abuztuaren 15ean, eta azken urteotan Iruñan ere. Izan ere, Orreaga baino lehen frankoek hiriburua zelan suntsitu zuten gogoan ere izaten dute.

Bestetik Orreaga Taldeak zenbait urtetan eta Herritar Batasunak azken urtean, Independentzia edo Askatasunaren Egunaren lelopean, abuztuaren 15 ospatzera deitu dute, data horretan izan dugun garaipen garrantzitsuena behar bezala oroitzeko.

Ospakizun batzuk Orreagan bertan egiten dira eta beste batzuk Pasaian.

Frankoen aurka izandako gudu horretan, Nafarroako Erreinaua sortzeko aukera izan genuen eta eguna oso adierazgarritzat hartzen dute batzuek.

Aberri Eguna ere deitu izan diote egun horri.



c) Nazio Eguna: Independentzia Eguna

Independentistak sareak azken urteotan egun hau ospatzen du, egun eta herri desberdinetan: Larrabetzun, Araian, Sestaon, Gernikan...

Bai Euskal Herriari mugimenduak ere Euskal Herria Eguna ospatu izan zuen zenbait urtetan.

JAI EGUNEN AUZIA Abenduak 3an (Euskararen Eguna) jai egitea proposatu du 'NEAE' elkarteak

■ Ekitaldia antolatuta du NEAEK: 12:00etan Plaza Berria ■ Zenbait komertzio eta erakundeek jai egingo dute ■ Udal zerbitzu askok jai egunelako funtzionamendua izango dute.



d) Egutegia: 2001ean NEAE-Hernaniko Nazio Egutegiaren Aldeko Ekimena

2001 urterako Hernanin sortutako NEAE-Nazio Egutegiaren Aldeko Ekimena, udal langileek, merkatariek eta ikasleek sortutakoa, uztailaren 25eko, urriaren 12ko eta abenduaren 6ko inposizioaren aurka azaldu eta egutegi propioa aldarrikatzen hasi ziren.

Ondorengo urteetan, irakaskuntzan batez ere, zabaldu egin zen eta egun hauetako batzuetan ikasleek ikasgeletan edo langile batzuk lanean egon izan dira. [Kronika](#)

e) Egutegia: Ikasle abertzaleek, Euskal Herriak Bere Eskola, etab.

Azken urteotan jaitsi da erreibindikazio hau, tamalez, nahiz eta irakaskuntza arloan oraindik, zorionez, ez duten ahaztu, [ikasle abertzaleek](#), [Euskal Herriak Bere Eskolak](#) eta beste zenbait gazte mugimenduk egindako lanari esker:

Euskal Herriko egutegietan gorriz markatuta agertzen zaigu gure herriaren ukazioa eta honen asimilazioa helburu duten zenbait data. Espainiar eta Frantziar estatuek inposaturiko egutegiaren menpe bizi gara Euskal Herriko herritarrak! (erakunde hauek ere bat egiten zuten idazki horrekin: Bai Euskal Herriari, Euskal Herriaren Euskaraz, Ikasle Abertzaleak, Gazte Independentistak, Euskal Herriak Bere Eskola, Askapena, Esait, Anitzak, Bilgune Feminista, Anitzak, Elkartzen eta Eguzki).

[Iñaki Uriarte Calendario festivo en Euskal Herria](#)

f) Egutegia: Udalbiltza

Udalbiltzak 2003an Nazio Identitate Batzordean 4 jaiegun alternatibo proposatu zuen: martxoak 3 Gasteizen 1976an erahildako langileengatik; martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna; ekainak 24 euskal mitologian udako solstizioak duen garrantziagatik eta abenduak 3 Euskararen eta Nafarroaren estatu burujabearen eguna.

Horietako bat, adibidez, abenduaren 3a ofizializatzeko saiakerak egon dira Eusko Legebiltzarrean baina ez da lortu.

g) Egutegia: Ilargi egutegia

Antzina euskaldunok eta herri askok ilargi egutegia erabili dugu. Egutegi horrek 13 hilabete eta bakoitzak 28 egun ditu, hau da, 364 egun guztira. Urtea osatzeko falta den eguna Eguberria zen. Hilabeteak, berbak berak dioen bezala, ilargi beten fase guztien epea da eta horrela gizakia, emakumea bereziki, naturarekin bat zihoan. Zergatik aldatu zuten hain aldrebes den egutegi bategatik? (hilabete batzuek 30 egun, beste batzuek 31, batek 28...).

Bestetik urte hasiera, Nafarroan martxoaren 25ean ospatzen omen zen XIV. mendean: <http://euskerarenjatorria.eus/?p=33626>

5.2. Egoera

a) Nazio Eguna

Aberri edo Nazioaren egun indartsu batek laguntza handia eman izan die herriei haien burujabetasunerako bidean.

Noiz eta nola egiten den garrantzitsua da, horrelako egun batek burujabetze prozesuan asko lagun dezakeelako. Gure bi egunak opor erdi-erdian daude. Aberri Eguna hasieran ona zen, Aste Santua ez zelako opor garaia, baina gaur egun jende asko kanpora joaten da. Eta bestea, Orreaga Eguna, Abuztuaren 15ean denez, opor garaia erdi erdian ere harrapatzen gaitu.

Kataluniaren eguna, Diada, irailaren 11n da eta garai ona da, opor garaia amaituta eta ikasturte berriaren hasieran kokatzen delako. Diadak, azken urteotan izugarritzakoak izan dira, 2.000.000 lagun inguruk parte hartu duelako, maila gorena kostaldetik egin zuten giza katea izan zen, 1.500.000 lagunekin. Eta egun indartsu horiei esker, burujabetasun prozesua geldiezin bihurtzen ari da. Galizian opor garaian da, uztailaren 25ean eta nahiko jende mobilizatzen dute, denek Santiago Compostelakoan egiten dutelako behintzat.

Gurean, azken hamarkadetakoa Aberri Eguna leku desberdinetan ospatu izan dugu. Egun bakoitzean 6-7 bat deialdi egoten dira. Hau, egia esan, ez da inon gertatzen. Galizian, adibidez, nahiz eta estrategia desberdinak egon, Santiago Compostelakoan ospatzen dute denek, batera, nahiz eta talde bakoitza bereizita joaten den eta gero bakoitzak bere taldearekin ospatzen jarraitzen duen. Herritar guztiek bat egin beharko genuke eta estrategia bat adostu.

b) Nazio Egutegia

Borroka hau garrantzitsua da eta ezin dugu atzera egin. Agian, irizpide gisa, egun batekin hastea izan daiteke. Saiatu lurralde osoan jai egun bat bederen berdina ospatzen eta hor gure indar guztia jarri. Hori sendotzea lortuko bagenu, besteak etorriko lirateke.

Egun hori ospatzeko, adibidez, Iparraldean 1. mundu gerraren eta Hegoaldean espainiar Kontituzioaren egunetan lan egin eta horien ordean abenduaren 3an jai hartu?

5.3. Jasotako proposamenak

a) Aberri Eguna

Zein egunetan egin?	<p>Gehienen eritzia Aberri Eguna dagoen moduan utzi behar da.</p> <p>Naziogintza Bi egun proposatzen ditugu, Katalunian, Flandrian edo Eskozian bezalaxe: JAI NAZIONAL POLITIKOA eta JAI NAZIONAL KULTURALA. Lehenengoa JAI NAZIONAL POLITIKOA gure ustez ABERRI EGUNAK izan beharko luke, data aldatuta (ikus gero).</p> <p>Bigarrena, jai nazional kulturala, abenduaren 3an, Euskararen Egunean, ospatu beharko litzateke. Katalanek ere Diada (Jai nazional politikoa) eta Sant Jordi (Jai nazional kulturala) dituzte.</p> <p>Beste proposamen batzuk Orreaga Eguna oso garrantzitsua da. Orreaga Fundazioak antolatzen du baina lagundu beharko litzaieke.</p> <p>Zabalate Eguna ere ospatu liteke, bisigoden aurka 200 urtez irabazteagatik.</p> <p>Orreaga eta Zabalate egunetan beste ukitu batekin ospatu: ibilaldiak, solasaldiak historiaz, Txandaka egin: urte baten Orreagan eta bestean Zabalaten.</p> <p>Bi egun hauek Aberri Egunarekin bateragarriak dira.</p> <p>Gabixola Aberri Eguna Abenduaren 3an egitean, Euskerararen eta Nafarroaren Egunean</p> <p>Beste egun adierazgarriak Nafarroaren Eguna, Baigorriin, apirilaren azken igandean. Noingo guduaren galera, ekainean.</p>
Lekua	<p>Udalbiltza Lizarra-Garazi garaian horrela ospatu zuten. Diasporakoek horrela egiten dute beti.</p> <p>Urtzi Sakanan egitea, Urdiaingo zelaietan, Euskal Herriko erdigune geografikoan.</p> <p>Lantaldean esanda baina adostasunik ez Urtean hiriburu batean ospatzea, txandaka? Hasteko agian, hasi zen moduan: Bilbon, Donostia, Gasteiz, Iruña, Baiona (ez zen ospatu).</p>
Data	<p>Gehienen eritzia Aberri Eguna dagoen egunean utzi behar da.</p> <p>Naziogintza Aberri Eguna jarraitu ospatzen baina egutegiaren data aldatuz. Izan ere, ez du zentzurik gaur egun Jai Nazional hori erreljio-jai batekin (aste santuko igandea) lotzea. Beraz, apirilean izan beharko luke, baina beste data batean.</p>

	<p>Eta jai egun ofiziala izan beharko luke Euskal Herri osoan (Espainiako Konstituzioaren eguna edo Frantziako Uztailaren 14a diren bezalaxe)</p> <p>Patxi Alaña</p> <p>Aste Santuan jende asko kanpora joaten da eta hori handicap bat da. Nafarroan XIV. Mendean urte hasiera martxoaren 25ean ospatzen omen zen. Urte hitzak horia zalduko luke, udaberriari goiko elurrak ur bihurtzen hasten direnean. Zentzua edukiko luke: urtea udaberriari hastea, udazkenaren erdialdea izatea, udazkenaren heldu aroa eta negua amaiera. Agian gure Aberri Eguna martxoaren azken igandean ospatu eta ahal dugunean 25ean ofizializatu. Edo Pazko astelehenean ospatzea? Horrela oportetarik datozenak eta irten ez direnak agian hobeto?</p>
Antolaketa	<p>Lantaldean esanda baina adostasunik ez</p> <p>Alderdiak ez dira gai izan modu bateratu bat antolatzeko. Independentistek aurten ez dute. Zer egin?</p> <p>Adierazpen bat herriari aurkezteko eta erakundeei izenpetzeko eskatzen: alderdien esku ezin dugu utzi, denok inplikatu behar gara, erakundeei konpromiso zehatzak eskatu: bandera jartzea, konpromisoak hartzea...</p>

b) Nazio Egutegia

Egunak	<p>Udalbiltza</p> <p>Lantaldeak proposamena ondo ikusten du: Martxoak 8 Emakumearen Eguna, Ekainak 24 San Juan eta Abenduak 3 Euskeraren Eguna.</p>
Antolaketa	<p>Lantaldean esanda baina adostasunik ez</p> <p>Utzi oraingo Espainiako eta Frantziakoak ukitu gabe baina Euskal Herri osoan jaieguna bat denok batera ospatzea lortu: Abenduaren 3. Arrazoiak: euskeraren eguna eta oraingo Nabarraren eguna izanik errazago litzateke. Sindikatuen laguntza ezinbestekoa da.</p> <p>Edo martxoak 8 jai egun bihurtzeko aukerak egon daitezke.</p>

6. Aldarria: Aberri librearen alde, jende librea zutik, Gora Euskadi askatuta...

6.1. Azalpena



Wikipedia

a) Aberri librearen alde, jende librea zutik!

"Obanosko Infantzoiaren Biltzarrek XIII. eta XIV. mendeetan Nafarroako Erresumako infantzoiek eginiko batzarrak ziren. Batzarrak kapare edo kaparedun izeneko bigarren mailako nobleek (zaldun, kleriko eta nekazari libreak) osatzen zituzten, eta Nafarroako usadio eta ohiturak defenditu zituzten, errege eta ahaide nagusien (nobleteria, apezpikua eta burgesia) gehiegikeriak aurre eginez." (Wikipedia)

Beste bertsio batzuk ere badaude:

- **Aberri askearen alde, jende librea, jaiki**
- **Aberria libre izan dadin, herriak ere libre behar du**
- **Aske izan, aberria aske izateko**

Latinez honela da: "Pro libertate patria, gens libera state" eta gazteleraz ere bertsio batzuk daude:

- *Sed libres para que la patria sea libre*
- *La gente debe ser libre para que la patria puede serlo*
- *Por la libertad de la Patria, gente libre en pie*
- *En nombre de la patria, sed libres*



b) Gora Euskadi askatuta

Hauxe izan zen Hegoaldean, estatu espainiarreko Errepublikara garaian eta gero ere Iparraldera zabaldua, gudarien borroketan, manifestazio eta elkarretaratze askoren amaieran eta bestelakoetan erabilitako eslogan garrantzitsua, gure helburua zein den argi azaldu izan duena. Azken boladan **Gora Nafarroa askatuta** ere entzuten hasi da.



c) "Euzkotarren aberria Euzkadi da eta "Jaun-goikua eta Lagi-zaña (JEL)"

Esaldi hauek mugarrizko izan ziren kontzientzia nazionala hartzen hasteko. Sabin Aranaren sortutakoa dira eta horrekin proiektu nazional propioa abian jarri zuen.

JELekin, hau da, Jaungoikoa eta Lege zaharrekin kristautasuna eta foruen garrantzia nabarmendu nahi izan zuen.



d) Denok eman behar dugu zerbait, gutxi batzuk dena eman behar ez dezaten

Argalak esandako esaldi hau ere mugarrria izan zen, burujabetza prozesuetan ahalik eta jende gehienek partaidetza behar dugula adierazteko.

Ezin da bizitza emateko prest egon direnen esku soilik utzi behar eta lagundu izan zuen, bakoitzak bere esparruan eta bere modura, herri honek bere burujabetza lortzeko inoiz izan ez duen mugimendu erroldoia sendotzeko: ikastolak, euskaltegiak, elkarteak...

Beste bertsio batzuk izan ditu:

Denok eman behar dugu zerbait, etxeoandreek dena eman behar ez dezaten

Denok hitz egin behar dugu zerbait, gutxi batzuk dena hitz egin behar ez dezaten (Jon Sarasua)

e) Beste eslogan adierazgarriak

Gure hizkuntzarekin lotutako eslogan edo esaera batzuek ere laguntza handia eman dute kontzientziazio nazional-linguistikoa sortzen, adibidez:

- Joxan Artze: **Hizkuntza bat ez da galtzen, ez dakitenek ikasten ez dutelako dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik.** Honek beste bertsio batzuk ere izan ditu:
 - **Hizkuntza bat irabazten da dakigunok egiten dugulako eta ez dakizuenok ikasten duzelako baita / Euskarak batzen gaitu, euskarak askatzen gaitu** (Urtzi Ihitza).
 - **Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, inperialistek eurena inposatzen dutelako baizik** (Asisko Urmeneta)
- Xalbador: **Herria da gorputza, hizkuntza, bihotza**
- Txillardegi: **Euskaldunon aberria euskara da.** Leloak baino baieztapen indartsuak: *Euskararen aldeko borrokatik at, euskal abertzaletasunak ez dik funtsik / Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; baina estaturik gabe, ziur ezetz.*
- Joseba Sarrionandia: **Euskara da gure territorio libre bakarra.**
- **Ez dago zapaltzaileen hizkuntzan askatu den herririk** (Egilea ?).
- **Euskarak baino ez gaitu herri egiten**

6.2. Egoera

Garai honetarako eslogan indartsu bat beharko genuke, askapen bidean lagungarri.

6.3. Jasotako proposamenak

Oraingoz ez da proposamenik jaso.



e) 1989an Pasaportea

Herri Batasunak Iruñan ospatutako Aberri Egunean, kalean bertan hasi zen KAS erakundea pasaporte hau banatzen 1989an, han zigilatzen zutelarik. 13.000 ale inguru banatu ziren ondorengo bi urteetan. Herritar askok erabili egiten zuten eta onartu zuten herrialdeen artean, besteak beste, Kuba, Alemania eta Norvegia ditugu.



f) 1990ean Euskal Herritartasun Agiria

KASen agiri hau ere oso ezaguna izan zen, hiru urtez jarraian, 1990, 1991 eta 1992ko Aberri Egunean, milaka ale banatu zirelako Iruñan. Agiria triptiko modura eginda zegoen eta datu pertsonalez gain, gomendio batzuk ere ematen ziren: norberaren erabilpenerako zela eta inolaz ere kontrolerako, are gutxiago, kontrol polizialetarako..., Euskal Herriko Herritartasuna, euskalduna beraz, baieztatzen zigula....



g) 1995ean ENA Euskal Nortasun Agiria (kartulina)

Lehenengoa Urtzi Ihitzza euskaltzaleak eskuz egin zuen 1985ean eta 1995ean itxura aldatu eta eredu hau zabaltzen hasi zen, jadanik ENA sigla erabiliz. Eredu honetatik 2.000 ale banatu ziren. Jendeak sinatu, bere argazkia ipini, eta plastifikatu egiten zuen bere kabuz. Eta horrela 1997ko bukaera arte. 2 urte eta erdiko tarte horretan ehunka lagun identifikatuko ziren ENA eredu honen bidez.



h) 1997an ENA Euskal Nortasun Agiria (Elkarte)

1997ko urrian Bilboaldeko euskaltzale talde batek Urtzi Ihitzaren ekimena ikusita eta bera inplikatu, elkarte bat sortu, eredu hobetu eta proiektu handiago bat abian jarri zuen. Abenduan Durangoko Azokan zabaltzen hasi zen eta geroztik hor egon da beti agiri hau eskaintzen, baita beste hainbat lekutan ere.

Elkarteak 21 urte hauetan 37.800 agiri egin ditu.

Agiriak 43 udaletan aitortpen ofiziala eskuratu du udalbatzak onetsitako erabaki baten bidez edo kudeaketak egiteko besterik gabe onartzen dute. Herritarrek erosketak egitean euren burua identifikatzeko, Iparraldean errefuxiatu batzuek euren burua identifikatzeko (Administrazioak

beste agiririk ez dietelako eskaini), bozkatzeko, muga pasatzeko eta gauza askotarako erabiltzen da agiria.

ENA elkarteak beste ekimen asko egin ditu: Euskal Jatorri Agiria (norberaren izen-abizenen esanahiekin), Sendi Agiria, ANA agiria, gaiarekin lotutako 20 argitalpen, Europako nazioei eta herritartasunari buruzko 500 liburuz osatutako liburutegi publikoa, 8 ENA Egunak, etab.

ENA eskuratzeko edozein estatutan kontuan hartzen diren irizpideetako bat bete behar da: euskalduna izatea (bertako hizkuntza jakitea), edo EHN jaioa izatea, edo bertako baten seme-alaba edo ezkontidea izatea edo bertan 5 urtez gutxienez errolatuta egotea.

2016an Atzeritarren Nortasun Agiria ANA egiten hasi da. Euskal Herrian bost urte baino gutxiagoz bizitzen daramaten kanpotarrei eskaintzen zaie.



i) 2001ean Euskal Herriko Naziotasun Agiria (EHNA)

Bai Euskal Herriari mugimenduaren ekimenez 125.000 mila izenpe lortu ziren, Udalbiltzak honako agiria sortu zezan.

Agiriari Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (EHNA) izena jarri zitzaion eta 58.500 ale egitera heldu ziren, lehenengo 150ak, Zestoan 2001eko irailean banatu zirelarik.

Naziotasun aitormenaren azken agiriok 2009ko ekainean egin ziren, ordurako estatu espainiarrak Udalbiltza legez kanpo jartzea erabaki zuelarik, partaide batzuk kartzelaratzera helduz. Naziotasun Aitormena 234 herritan tramitatzera heldu zen.

Wikipedian dioenez, “1948ko Giza eskubideen aldarrikapen unibertsaleko 15. artikuluan oinarritzen da EHNA. Bertan pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea esaten da. Eta inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere jarraitzen du... EHNA ez da karnet bat, adierazpen bat baizik. EHNA egiten duen orok bat egiten du adierazpen horrekin eta horretarako ematen zaio agiria. Adierazpenak honakoa dio hitzez hitz:.. Nik, euskal herritarra naizen honek, zera aldarrikatzen dut:

Euskal Herria Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroa Behereko eta Garaiko, Lapurdiko eta Zuberoako lurraldeez osaturiko herria da.

Euskal Herriaren hizkuntza euskara da, denon begirune osoa behar duena, eta euskal lurralde osoan estatus ofizial nahikoa izan behar du.

Euskal Herria bere buruaren jabe da, nazio beregain eta librea, eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea du.

Adierazpenaren ondoren aitormen bat dator, honakoa dioena:

Ni euskal herritarra naiz eta euskal naziotasunaren jabe naiz. Oharmen, nahimen eta erabakimen osoz, Euskal Herriaren bizitzako partaide naiz, eta guztiz aintzakotzat hartzen dut Euskal Herriaren berezko izaera eta beregain bizitzeko borondatea, bai egungoa eta bai etorkizuneko.



j) 2001etik EAJk egindako ENAren kopia

EAJk zenbait urtez ENAren kopia egin izan du, alderdiko bazkideak eta beste herritarrak identifikatzeko. 8.500 agiri inguru egin zuen.

Aurrekaldea ENA agiriaren berdintsua da eta atzeko aldean Gernikako Arbolaren irudia dauka.

2008aren inguruan egiteari utzi zion.



k) 2004an Euskal Sendi Agiria

Euskal familiek ere agiri propioa edukitzeko, erraz eramateko eta argazkiak dituen agiri hau egiten hasi zen ENA 2004tik aurrera, ale gutxi egin diren arren.

7.2. Egoera

ENA, Naziotasun Aitormena eta ENAren kopiaren artean 100.000 herritar baino gehiagok ba dugu gure burua euskeraz identifikatuak izateko aukera. ENA, EAJ eta Udalbiltzaren artean bilerak egin ditugu Agiri bateratua adosteko. Dena dela jarraitzen duen ekimen bakarra ENArena da.

7.3. Jasotako proposamenak

a) Udalbiltza	ENAren eta Udalbiltzaren 4 bilera egin ziren zerbait adosteko baina, bat batean, Udalbiltzak bete Naziotasun Aitormena berriro egingo duela esan du.
c) Zenbait	Inkestak erantzutean jendeak beste proposamen batzuk egin ditu baina zehaztasun askorik gabe: <ul style="list-style-type: none"> - NA Nafar Agiria - EN Euskal Herri Naparra - Gure euskalduntasuna azaltzen duena - Pasaporte soilik erabiltzea, nortasun agiririk ez

8. Internet domeinua: .nb, .eus, .eh...

8.1. Azalpena



a) .eus

Sortzaileek honela definitu dute: “.eus Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatearen Interneteko lehen mailako domeinua da.

EUS, hortaz, tresna bat da, euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen duena, euskararen normalizazioan lagunduko duena eta euskararen herriari nazioarteko aitortza eskaintzen diona.” [.eus](#)

Arduradunek diotenez, domeinua eskuratzeko euskeraz aritu, edo edukiren bat gure hizkuntzan eduki edota euskal kulturaz aritu edo sustatu behar dute.

Daukatenen artean %90ean euskera erabiltzen dute, beste %83an gaztelera (euskera-gaztelera webgune elebidunak direlako), % 47an ingelesa eta % 12an frantsesa.

8.2. Egoera

Arlo honetan ez da eztabaida publikorik ikusi orain arte.

8.3. Jasotako proposamenak

Eneko del Castillo

Herrialdeentzako goi mailako domeinua (ingelesez, Country code top-level domain edo ccTLD) herrialde edo menpeko lurralde batentzako gordetako goi mailako domeinua da. Domeinu hauek bi karakterek osatzen dituzte, eta kasu gehienetan ISO 3166 estandarrarekin bat datoz.

Gure kasurako ezin ditugu hauek erabili: eu: Europar Batasuna; .eh: Mendebaldeko Sahara; .na: Namibia; .ne: Niger. Gure izen ofizialaren arabera domeinu berri bat sortu beharko dugu beste izkiak erabiliz, adibidez, .nv adibidez edo .nb

Aipatzekoa da Hungariaren kasua, hungarieraz Magyarország esaten da baina bere domeinua .hu dela. Gure kasuan Navarra, Navarre, Euskal Herria baina domeinua .nv

Beste proposamenak


Euskal Herria: .eh

Baskonia hartuz gero: .bk

EH Nabarra hartuz gero: ehn

9. Bestelako ikurrak: Lauburua, Eguzkilorea...

9.1. Azalpena



a) Lauburua

Etimologiak zehazten digunez, lau buruz osatutako ikurra da. Askorentzat bakoitzak elementu bat irudikatzen du: lurra, ura, airea eta sua. Lehenengo lekukotzak kristo aurreko hilarrietan dago.

Lauburu hitza Manuel Larramendik erabili zuen lehenengo aldiz 1735 inguruan.

Indian, Txinan, Korean, Bretainan, Asturiasen... ere antzekoak edo berdinak diren ikurrak erabiltzen dituzte: triskela...

Mugimenduan dagoen gurutze bat ei da eta hilarrietan gurutzearen ordeztartzen da. Eguzkia eta eguzki izpiak eta haren mugimendu birakaria era sinbolikoan irudikatzen ditu.

Eskumarantz badago marraztuta positibotasuna, eguzkia edo biritza adierazten du eta ezkererantz badago, pasiboa, negatibotasuna, ilargia eta heriotza. Hilarrietan bi eratara agertzen dira nahiz eta ezkereranzkoa da betiko atsedena adierazten duena, batzuen iritziz.

Beste batzuek ere diotenez “antzinako euskal erlijioaren seinale bide da, Ama Lurra eta Eguzkia gurtzen ziren garaietako.”



Eguzkilorea


(Irudia: Redmasai)

b) Eguzkilorea

Mitologian indar handi du eguzkiloreak. Eguzkiarekin duen itxuragatik bere balioak esleitzen zitzaizkion, hala nola, baserriak eta bordak babesteko gaitasuna, madarikazioen aurkako babesa ematea...

Marik eskaini omen zigun gauean ere babestuak egon gintezen. Horregatik etxe eta baserrietako ateetan jartzen da, horiek babesteko.

c) Beste batzuk



euskaltzaleenbiltzarra.eus

1901


1902

Euskaltzaleen Biltzarra
Hendaian
(ikurrina eta Nafarroako
bandera batzeko ahalegina)



1877

Nafarroako Euskarazko Elkargoa
(Kanpion...) Mendiek zazpi
lurraldeak irudikatzen dituzte.
Vasconia bankuko ikurra izan
zen urte askotan.




1890

Ramon de la Sotak
Euskalerrria elkartearantzat
proposatutako bandera (gero
Sabin Aranak erabilitako
kolore berdinekin)



1970ko hamarkadan euskal
kosta ez nuklearizatzeko




1970ko hamarkadan Txillidak
amnistia eskatzeko sortutakoa




1978 Euskeraren aldeko
bilkura erraldoia San
Mamesen



1980an Oñatitik Bilbora egin
zen lehenengo Korrikaren
ikurra



1987 inguruan EHEk egindako
bandera



Autoetan jartzekoa

Eta hemen ehunka ikur jar genezake. Zure ustez zeintzuk dira eragin handia izan duten ikurrek?

10. Ekarpenak

a) Urtzi Ihitza eta Patxi Alaña

Oinarrizko testua osatu dute.

b) Jaime Albillos

Armarriari buruzko informazioa eman du eta oinarrizko txostenera gehitu dira: Zazpiak baten herrialdeen ordena alfabetoaren arabera ez dela izan behar, garrantziaren arabera baizik, Gipuzkoako armarrarian zuhaitzak kostaldean irudikatuta zeudela eta ez itsaso gainean zuzenean, etab.

c) Nabarralde

Nafarroako banderari buruzko zehaztapen batzuk bidali ditu eta txostenera gehitu dira.

d) Iñaki Arrieta

Xahoren bandera zein den zehaztu digu. Artzek *Txoria txori* non idatzi zuen eta armarrari buruz ere informazio asko: Iparraldeko hirurak bat 2. mundu guda ostekoa dela, laurak bat Pedro Egañak sortu zuela 1867an, Amantzio Urriolabeitiaren Zazpiak bat berezia egin zuela, etab.

e) Naziogintza

Naziogintza taldeak erabiltzen duen Ikurrinari izarra jartzearen arrazoiak azaldu dizkigu eta lotura jarri dugu.

f) EH Askatasunak

Testu hau igorri digu: "Aztertu dugu eta oso interesgarria iruditzen zaigu, baina beste zeregin batzuk lantzen ari gara eta plataforma gisa ez gara antolakuntzan sartuko. Aldiz, jarraipena egingo diogu gogoetaren garapenari eta ahal badugu norbanako gisa agertuko gara biltzarretara.

Plataforma gisa egiten dugun ekarpena da halako gogoeta estrategikoak oso garrantzitsuak direla, baina ikurrena oso arlo garrantzitsua izaki, hausnarketa ongi bideratzea funtsezkoa dela, bestela ikur desberdinen zaleen arteko talkak areagotu eta nahasmena hedatu bidaiteke. Ziur gaude arrisku hau kontuan hartu duzuela, baina azpimarragarria iruditzen zaigu.

Honi loturik, garrantzitsua iruditzen zaigu sektore desberdinen arteko desberdintasunak era eraikitzaile batean bideratzea. Adibidez, ikurrinzale-nafarzale ezinikusiak murriztu eta konpatibletasuna bultzatzea burujabetzaren aldeko bidean, bakoitzak bata edo bestea defendatu arren, bestea ere errespetatuz. Hau da, sektore desberdinek bere hautuak egin eta defendatzea, bideragarri izan behar da nazio ikur guztiekiko begirunearekin.

Guk plataforma gisa ikurrina hartzen dugu nazio bandera nagusitzat, baina ez dugu arazorik nafarrekin. Nazio askapenaren alde biak bateragarri ager daitezkeen heinean.

Gainera anti-inperialista eta langile gisa izar gorridun ikurrina erabiltzea ere aurreikusi dugu. "Estelada" nolabait, ikurrina independentista eta anti-inperialista gisa nabarmentzeko.

Aldiz, ikurrina bera, ikur autonomikotzat ezin dela oparitu ere uste dugu. Hori da espainiar okupatzaileek nahi izan dutena, izaera nazionala kendu eta autonomikoa ematea, baina nahasmena eragin badute ere, ez dute lortu eta ez dute lortu behar. Argi dago gaur egun ikurrina dela bai herri euskaldunarengan eta bai nazioartean gure ikur nagusi eta ezagunena. Frantziako Tourrean edo Espainiako Vueltan ikusi da: euskaldunen bandera nagusia diferentzia handiarekin. Hau kontuan hartzekoa da.

Izenarekin ez dugu uste zalantzarik behar lukeenik: "Baskonia" eta gisako izenak ez dugu uste propiotzat ditugunik. Euskaldunok gure herriari **Euskal Herria** esaten diogu. Bai da interesgarria komunitate nazionala, Herri Euskaldun gisa hartzea. Hau da Euskal Herria (Pais Vasco, Pays Basque...) eta Herri Euskalduna (Pueblo Vasco, Peuple Basque).

Hutsunea dagoen heinean nazio ereserkiaren arloan aurrerapen bat behar dela uste dugu. Guk "Eusko Gudariak" erabiltzen dugu askapen borrokaren kantu gisa, baina borroka kantu bat da eta nazio ereserkia beste bat izan liteke. Esan bezala puntu honetan hutsunea nabaria da eta euskal selekzioek parte hartzean adibidez igerri egiten da.

g) Eneko Bidegain

Testu hau igorri digu:

Lehen galdera da: zer egin *Euskadi* izenarekin?

Argi dago, berez, Euskal Herriko zazpi herrialdeak biltzen direla Euskadi izendapenean, proiektu politiko bat adierazten duela, eta berriki arte Euskal Herria-ren sinonimoa zela.

Orain hitz nahasgarria da. Gehienetan, "*Euskadi*" erratean, *Euskal Autonomia Erkidegoa* adierazten da, edo jendeak *Euskadi* mugatzen du EAera. Nahasgarria da, batzuek entzuten dugulako *Euskal Herria*.

Proposamen erradikala egiten dut: "*Euskadi*" hitza ezabatzea gure terminologiatik. Hitz hori erre da. Euskadi berez ez da EAE. *Euskadi* beti izan bada *Euskal Herria*-ren sinonimo, *Euskadi*-ren erabilera okerrak kalte egin diezaioke, epe ertainera, *Euskal Herria* hitzari ere, eta hel gintezke pentsatzera Euskal Herria ere EAE dela. Kazetari batek "*Euskadiko aurrekontuak*" aipatzen dituenean, jakin behar luke espainolismoaren helburuekin bat egiten duela, nahita edo nahigabe. Askoz garbiago geldituko litzateke, *EAEko* erabiltzea eta beste kasuetan *Bizkai*, *Araba* eta *Gipuzkoako* erabiltzea: instituzioari dagokionean *EAE*, eta gainerakoetan, *Bizkaia*, *Gipuzkoa* eta *Araba*.

Badago *Euskadi* hitza abandonatzeak bihotzean ximiko egiten dionik? Nostalgiaatik? Hitz egokia zelakoan? Hitzak modaz ere pasatzen dira. Euskadi errotoa zen garai batez, gaur egun ez da errotoa. Nahasgarria da, eta kezkarik gabe diot: hitz hori baztertu behar da, eta bazterrarazi behar da. Espainolistek baizik ez dute erabiliko. Ironikoa da, independentismoaren hitza izatetik nola pasa den zapaltzaileen hitza izatera. Pena eman diezaike batzuei, baina hitz hori galdu dugu. Erre da. Ahanzturara kondenatu behar dugu, *Euskal Herria* salbatzeko.

Vasconia?

Azkenaldian batzuek berreskuratu dute hitz hori. Nik uste frikikeria bat dela. Benetako arrazoia da *Euskadi* hitzak –eta honen ondorioz *País Vasco*, *Pays Basque* eta *Euskal Herria* hitzek– sortzen duten nahasmenetik ihes egiteko proposamen gisa ikusten dut. Mendeak edo milurteak dira hitz hori gure hiztegitik baztertu samar dagoela. Ez nuke berpiztuko. Are gutxiago, azkenaldiko nahasmenari ihes egiteko bide bat baldin bada, *Euskadi* eta *Euskal Herria* hitzen erabilpen okerra indartzea litzatekeelako horren ondorioa.

Nafarroa?

Gure estatuaren izena da *Nafarroa*. Logikoena zatekeen izen hori ematea gure herri politikoari. Berez, herriaren izena da *Euskal Herria* eta estatuaren izena *Nafarroa*. Berreskura ote liteke, modu masiboan, *Nafarroa* hitzaren zentzu politiko hori? Onartuko lukete bizkaitarrek? Epe luzera begira, pentsa liteke hitz horren aldeko kanpaina egitea. Baina, gaur egun, ez gaude horretan.

Nire hautua: *Euskal Herria*

Herri honen izen zaharra, mendeetan zehar iraun duena, zazpi herrialdeetan erabiltzen dena eta, oraingoz behintzat, zazpi herrialdeak barne biltzen dituen. Euskaltzaindiak ere argi definitzen du

zer den Euskal Herria. Erne ibili behar dugu, ordea: ez dugu utzi behar *Euskadi* hitzari gertatu zaiona gertatzera.

h) Felipe Campo Ramirez

Testu hau igorri digu: La cuestión planteada en este artículo (artículo publicado en Berria), así como los comentarios que ha suscitado, pone de manifiesto la imperiosa necesidad de abordarla de forma unánime pero ante todo con una metodología adecuada. Porque no se trata de tomar conciencia sobre si somos un Pueblo que ha olvidado su nombre, cosa que ciertamente jamás ha sucedido, sino de comprender el error fundamental que implica el proponer/esperar que la precisión terminológica sobre nuestra identidad colectiva: ya sea como Pueblo, como País o como Estado, es algo que pueda venir de las disposiciones legislativas/administrativas de los dos Estados ocupantes bajo los que los Vascos estamos sometidos; o que esa identidad pueda mantenerse siquiera en las condiciones establecidas por esos Estados bajo las que nos vemos obligado a movernos. Creer que eso pueda ser posible es un desatino que – espero – a nadie se le escapa y que doy por descartado sin más consideración. Los Vascos no somos un Pueblo que ha olvidado su nombre; y si muchos de nosotros no hablamos nuestro idioma nacional: el Euskera, eso es tampoco es porque de pronto lo hayamos olvidado como quien olvida una cita y sin saber cómo hemos empezado a hablar Español y Francés! No, eso ha ocurrido porque nos lo han quitado: porque el imperial-colonialismo franco-hispano nos ha mutilado haciéndonos mudos en nuestro idioma. Pero ni hemos olvidado que somos Vascos y que nuestro único idioma nacional es el Euskera, ni tampoco quiénes y cómo nos han arrebatado nuestro idioma.

Desde los Romanos, todos los Imperios y los Pueblos que nos han conocido nos han designado - a través del Latín, de sus diferentes dialectos y de la influencia de éstos sobre otros idiomas - con el hetero-glotónimo que aquéllos nos dieron: Vascones/Üascones/Wascones/Vascos/Basques/Bascli/Basken etc. Como es sabido, y dado que la “v” latina equivalía fonéticamente a una “u”, es posible que la raíz “uask” de Vascones podría haber derivado de la raíz “eusk”. Sea como fuere, para nosotros es completamente irrelevante cómo nos llaman los demás, del mismo modo que a los Alemanes les trae sin cuidado que en Español se los llame así, en Italiano Tedeschi, o en Inglés Germans: ellos saben que son Deutsch y que su País es Deutschland, y lo demás no es algo que sea - ni que ellos consideren - de su incumbencia

Del mismo modo, también nosotros tenemos perfectamente claro desde siempre que el auto-glotónimo con el que los Vascos se han designado a sí mismos en su propio idioma es Euskaldunak, es decir: aquéllos cuyo idioma es el Euskara; o Euskal Herria, o sea: el Pueblo del Euskara. La cuestión que se nos plantea actualmente es que este segundo término ha sido utilizado, desde su primera aparición escrita conocida [con la grafía eusquel erria], para designar tanto el Pueblo como el País del Euskera, y así aparece hasta en tres ocasiones en el manuscrito del alavés Juan Pérez de Lazarraga (1564):

[...] beti çagie laudatu çegaiti doçun eusquel erria aynbat bentajaz dotadu. (f. 18) [siempre seréis alabado porque habéis dotado a Euskal Herria de tantas ventajas.]

[...] çegayti eusquel errian dira ederr guztioç dotadu. (f. 18v) [porque se ha dotado a Euskal Herria de todas estas bellezas.]

[...] çeñetan ditut eçautu eusquel erriau oy nola eben erregue batec pobladu. (f. 18v) [por los cuales he sabido cómo un rey pobló esta Euskal Herria.]

Pero es perfectamente natural que se produjera ese titubeo/confusión entre Pueblo y País en aquellas épocas. El mismo Martín Lutero, cuando unos cuarenta años antes había dejado tal vez la primera constancia escrita del término “Pueblo o Nación alemana” (término utilizado por él en el que se considera el primer manifiesto revolucionario de la historia difundido mediante la

imprensa), lo había hecho utilizando el sustantivo “Nation”, que tanto podía aplicarse al Pueblo/Nación como al País. Este manifiesto lleva por título: *An den Christlichen Adel teutscher Nation*, es decir: “A la Nobleza Cristiana de la Nación alemana” (1520).

En esta misma línea Joannes de Leizarraga, en la dedicatoria a la Reina Joanna III de Navarra de su traducción del Nuevo Testamento al Euskera (1571), afirma “estar seguro de que los Vascos [Heuscaldunac, en su ortografía], entre todas las demás naciones, no somos tan bárbaros que no podamos conocer y alabar a Dios nuestro Señor en nuestro propio idioma”: *Alabaina segur içanez ecen Heuscaldunac, berce natione gucien artean, ez garela hain bassa non gure lengoagez ecin eçagut eta lauda deçagun gure lainko launa*. Y que “lo que me da la mayor seguridad es la esperanza de que por este medio la pura palabra de Dios tendrá entrada y aumento en el país/pueblo Vasco” [*Heuscal-herrian*]: *Baina are guehienic bihotz eman ykan cerautana cen nic nuen sperança, ecen moien hunez laincoaren hitz purac ykanen luela sartze eta auançamendu Heuscal-herrian*. Y en la nota que a continuación dirige “A los Vascos” [Heuscaldvney] lectores de su obra les indica que “cada cual sabe la diferencia y diversidad que hay en el país/pueblo vasco en la forma de hablar, incluso casi de una casa a otra”: [...] *batbederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeko maneran cer differentia eta diuersitate den*. A diferencia de la primera, en esta segunda ocasión escribe el término Euskal Herria con minúscula inicial y sin guión intermedio.

Otro tanto nos encontramos en la nota que Axular dirige “Al lector” (*Irakurtzaileari*) de su obra Gero (1643), cuando escribe: “Sé asimismo que no puedo extenderme a todas las variedades habladas del euskara. Puesto que de muchas y diferentes maneras se hablan en el pueblo/país vasco: en la Alta Navarra, en la Baja Navarra, en Zuberoa, en Lapurdi, en Bizkaia, en Gipuzkoa, en el país de Alaba, y en otros muchos lugares” (*Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarazko mintzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta differentki mintzatzen baitira euskal herrian. Nafarroa garaian, Nafarroa beherean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhutan*).

Así pues, el recurso a los clásicos no nos resuelve la cuestión terminológica de distinguir entre el Pueblo y el País Vasco en nuestro propio idioma. Por supuesto, eso no está causado porque haya en Euskera la menor carencia idiomática al respecto sino simplemente porque en aquellas épocas la necesidad de esa distinción no se hizo sentir e incluso tal vez resultaba superflua, según hemos visto en esos ejemplos así como en el de Lutero. Es preciso tener en cuenta que, como es evidente, es el Territorio/País el que de forma natural es definido/nombrado por adscripción al Pueblo que lo habita, y no a la inversa: El País de los Daneses, de los Alemanes, de los Vascos... Sin embargo hoy en día parece necesario establecer esa distinción entre Pueblo y País: en primer lugar por simple precisión terminológica; pero sobre todo porque, dada la importancia capital que el concepto de “Pueblo” tiene en el derecho internacional como sujeto agente del derecho de independencia, libre disposición o autodeterminación que corresponde a todos los Pueblos, necesitamos tener en Euskera el término que lo exprese de forma precisa y distinta, del mismo modo que existe en los idiomas que nos rodean: Pueblo Vasco/Peuple Basque/Basque People etc.

Por supuesto se trata de una cuestión que deberá resolverse con el mayor consenso de las autoridades de la lengua vasca: académicas y literarias. Sin embargo, parece difícil que pueda haber una expresión que corresponda mejor al concepto de Pueblo Vasco que la ya consagrada Euskal Herria. A partir de ahí, lo que se plantearía a continuación sería establecer otra expresión distinta para designar en Euskera al País Vasco o País de los Vascos/Pays Basque/Basque Country/Baskenland etc., haciéndolo de forma universalmente aceptada. El universo al que me refiero es, por supuesto, el universo del Pueblo Vasco como Pueblo sujeto de su propio, inalienable e imprescriptible de derecho de autodeterminación o independencia.

Para algunos este término podría ser Euskadi: neologismo expresamente creado por Sabino Arana para designar a todos los Territorios de los Vascos. Sin embargo, puesto que ese término ha sido distorsionado, falsificado y reducido sin el menor pudor por quienes traicionando a su creador, de quien se reclaman sucesores, han confiscado su legado y lo han adaptado para designar una simple circunscripción administrativa de la España en la que ellos se han integrado, es difícil que en estas condiciones pueda ser ya útil para designar al País de los Vascos. O, mejor aún, a los Países/Territorios de los Vascos: del mismo modo que existen los Países Bajos, lo cuales - curiosamente - están formados también sobre la base de las Siete Provincias Unidas que en 1579 constituyeron la Unión de Utrecht, base de su Estado actual, creada para defenderse del imperialismo y las agresiones de la Monarquía Hispano-Católica

En esta línea de pensamiento, su designación en Euskera mediante el término *Euskaldunen Herri-aldeak/Lurr-aldeak* no estaría descaminado. En su canción Agur Euskal-Herria el bardo de Urretxu José María Iparraguirre, creador de nuestro himno nacional *Gernika-ko Arbola*, utiliza el término *Herri-alde* para designar inequívocamente el concepto de “País”; si bien las necesidades métricas-musicales lo llevaron a finalizar sus versos con la expresión “*Euskal Herrira*”, en vez de hacerlo con “*Euskal Herri-aldera*” como debería haberlo hecho siguiendo la lógica de su exposición:

Gazte-gaztetandikan / - herritik kanpora -

Estranjeri-aldean / pasa det denbora.

Herri-alde guztietan / toki onak ba-dira,

Bainan bihotzak dio: / “Zoaz Euskal Herrira!”

Queda en manos de poetas y escritores la tarea de consolidar mediante su uso el término que mejor exprese en Euskera el concepto de País, de acuerdo con su genio y tradición literaria propios. En cambio, queda fuera de toda cuestión que el Estado de los Vascos, a saber: la confederación de repúblicas, condados y señoríos vascónicos históricamente constituida a finales del S. VIII o como muy tarde principios del IX en torno al Reino de Pamplona, fue a continuación y lo sigue siendo hasta la actualidad el Reino de Navarra; en Euskera: Nabarra-ko Erresuma, cuya vigencia, continuidad y actualidad es un dato político fundamental que nos es preciso mantener sin el menor equívoco ni vacilación.

i) Iparla: Euskal Herriaren Hizkuntza, Erresuma ta Ikurrei buruzko adierazpena

Euskal proto-Europear Herriak Pirinio-etako bere aterbean bizitzen milurtekoak zeramatzanean ez ziren oraindik Europe-ko Herri asko existitu ere egiten; eta Herri berri horien dialekto edo azpi-dialekto ofizialak agertuak ere ez ziren jadanik bizirik zegoenean - aintzinako denboretatik gainera - Euskaldunen hizkuntza: Euskara, zeinari ukatu egiten baitiote orain existentzia bera “herri eta kultur aniztasunaren Europe” horretan.

Era berean, oraingo Europear Batasun Inperialistaren Estatu anitz ere ez ziren existitzen Iruñeko Erresuma sortu zenean: Euskaldunen (edo Baskonen, Erromatarrek deitu zuten bezala) Estatua, Nabarra-ko Erresumaren aitzindaria. Ezta ere – konkistaren panegiristek berek aitorturik – “espainolek Nabarra-ko Erresuma inbaditu, azpiratu, konfiskatu eta mendean hartu zutenean”: okupatua, zatitua eta anexionatua beren Europe-ar albokoen eta hauen lagun zibil, militar eta elizkoien bortxa, bortizkeria eta terrorismoa erabilirik.

Latinaren dialektoak izanki (Punikoaren-ekin gerta zitekeen bezala, orduko Gerletan Erroma gauditua izan balitz), gure artean Frantsesa eta Espainola (inperialismoaren agenteek “gatzelania” deitzen dutena komeni zaienean, Espainola-Euskara oposizio erabatekoa eta saihestezina ezkutatu eta ekidin ahal izateko) oraingo izatea, Euskal Herriarekin zerikusia ez

duten gertakari historiko arrotzen ondorio da, ta mendetan zehar sortutako menderakuntza baten aztarna, gure Herriaren eta bere Estatuaren aurkako eraso, okupazio, zatikatze, anexo eta kolonizazioan abiapuntu duena; Espainia eta Frantziako Estatu inperialistek egina eginkizun kriminala, hilketen eta Estatu Terrorismoa bitartez gauzaturiko hain zuzen.

Euskara da Euskal Herriaren nazio hizkuntza berezko bakarra. Espainia eta Frantziaren nazionalismo inperialistaren eskutik Euskarak (*lingua navarrorum*, Nafar errege-erreginek izendatu zuten) pairatu debekuak, eta gure arima, arnasa eta herri-baldintza zaigun gure hizkuntza erazteko burutu hilketak genozidio delitua suposatzen dute, sekula ahaztu eta barkatuko ez duguna.

Herri guzien askatasun edo autodeterminazio eskubideak — giza eskubideetan lehena dena, oinarrizko eskubideak ukan ahal izateko lehen baldintza — dakartzan inplikazioen arabera, Euskaldunen Herri-aldetan Estatu okupatzaileek ezarritako okupazio indarren eta kolonizazio/azpiratze aparatua Euskal Herri-aldetatik kanpo berehala atera behar dira inperialismoak sortutako arazo orok soluzio demokratikoa izateko, baita Euskara berreskuratzeko ere. Hau gertatzen ez den bitartean, Estatu okupatzaileen instituzioetan parte ez hartzea eta hauek inperialistak direla etengabe salatzea da bere burua demokratikotzat eduki nahi duen oposizio ororen lehen egitekoa. Espainia eta Frantziaren okupazio-militarreko okupazioaren menderakuntza eta harekiko kolaborazioa ez dadila gehiago mozerrotu, “zilegi”, “ez-indarrezko” eta “demokratiko”-tzat joz.

Gure nazio hizkuntzaren eraberako berreskurapena da gure Estatuaren helburu behinena, hiritar ororen eskubide ukazina delako. Helburu honek baliabide materialak, malgutasuna eta ulerkortasuna (abiapuntu dugun egoeraren zailtasunagatik) behar ditu, baita Euskara ikasteko eta erabiltzeko ahalegin ohoragarria egingo dutenengandik espero den konpromezu zinezkoa. Modu unibertsalean lortzeko, baina, beharrezkoa da gure independentzia berreskuratzea. Historian zehar mingarriki frogatu ahal izan dugunez, Espainia eta Frantziaren ekosistema inperialistan ez dago eta ez da egoten ahal Euskal Herriarendako eta Euskararendako tokirik.

Gainerakoan, ikusirik alde batetik Espainol eta Frantsesaren inposaketak gure Estatuari ekarri dizkion hizkuntza eragozpenak, eta bestetik, egungo munduak egiten digun interkomunikazioaren galdea, garbi dago *lingua franca* funtzional bakarra hartu behar dugula gure Estatua operatiboa izango bada. Ahalbidetuko duena gure inguruan diren garapen demokratikoko guneekiko lotura; beti eutsiz eta jorratuz gure izaera eta esentzia: gure euskal hizkuntza eta kultura

Euskal Herriaren eta bere Estatuaren ikurrak eta banderak, Herri eta Estatu gisa agertzeko historikoki erabiliak izan diren guziak izanen dira, dokumentu historiografikoen bitartez helarazia izan zaigun bezala. Horiekin batera, Arana Goiri anaiek diseinatutako bandera ere gure ondare komunaren parte da, sujeto politiko berari erreferentzia egiteko izan zelako sortua eta herriak onartua: Euskaldunen Nazioa independente eta burujabea, bere eskubide guzien jabe eta Euskaldunen Herri-alde historikoetan ezarria. Ikur honek ere gure askatasun, demokrazia eta independentzia gogoia du irudikatzen, Espainia eta Frantziaren inperialismoa, kolonialismoa eta Nazionalismo faszistaren eraso eta hilketen aurrean erakutsia eta adierazia. Nabarra-ko Erresuma den gure Estatu historikoarenak du, noski, lehentasuna.

Iparla

Gu Gera Euskal Herria! Nabarra-Ko Erresuma: Euskaldunen Estatua!

j) Iparla: Declaración sobre el Idioma, el Estado y los símbolos del Pueblo Vasco

Muchos Pueblos de Europa no existían siquiera cuando el proto-europeo Pueblo Eúskaro llevaba viviendo muchos milenios en su refugio peri-pirenaico; y los dialectos o sub-dialectos oficiales u oficiosos de esos nuevos Pueblos no habían aparecido aún cuando desde tiempos inmemoriales vivía el idioma de los Eúskaros: el Euskara, al que ahora niegan la existencia en “la Europa de la diversidad de sus pueblos y de sus culturas”.

Igualmente, muchos Estados de la actual Unión Imperialista Europea no existían cuando se constituyó el Reino de Pamplona: el Estado de los Vascos (o *Vascones*, como los habían llamado los Romanos), antecesor del Reino de Navarra. Ni siquiera cuando - según afirmaban los propios panegiristas de la conquista - “los españoles invadieron, subyugaron, confiscaron y conservaron el Reino de Navarra”: ocupado, desmembrado y anexionado mediante la agresión, la guerra, la violencia y el terrorismo de sus vecinos europeos y de los cómplices civiles, militares y eclesiásticos de éstos.

Dialectos del Latín (como eventualmente podría haber sucedido con los del Púnico si acaso Roma hubiera sido derrotada en aquellas Guerras, o con los idiomas Fráncicos y Góticos), la actual presencia entre nosotros del Francés y el Español (que los agentes del imperialismo, cuando les conviene, llaman “castellano” a fin de camuflar y evitar de ese modo la irreductible e irremediable oposición Español-Euskara) es consecuencia de contingencias históricas ajenas y hostiles al Pueblo Vasco, y huella de una alienación creada durante siglos a partir de la agresión, ocupación, desmembración, anexión y colonización contra nuestro Pueblo y su Estado: el Reino de Navarra; una empresa criminal realizada por los Estados imperialistas de España y de Francia mediante crímenes y Terrorismo de Estado.

El Euskara es el único idioma nacional y propio del Pueblo Vasco. La persecución y proscripción del Euskera (*lingua navarrorum*, según fue designado por los Monarcas navarros) a manos del Nacionalismo imperialista hispano-francés, y los crímenes cometidos para arrancarnos el idioma que constituye nuestro aliento, alma y condición de Pueblo, son un delito de genocidio que jamás será olvidado ni perdonado.

En ejercicio de las implicaciones que entraña el derecho de libertad, libre disposición o autodeterminación de todos los Pueblos: primero de los derechos humanos y “condición previa para el pleno disfrute de todos los derechos humanos fundamentales”, la evacuación incondicional e inmediata de las fuerzas de ocupación y de todo el aparato de subyugación y colonización instalados por los mencionados Estados ocupantes en los Territorios de los Vascos constituye la exigencia absoluta para la resolución democrática de los problemas creados por el imperialismo colonialista, y es también la exigencia básica para el restablecimiento del Euskera. Mientras esa evacuación no se produzca, la negativa a toda colaboración y participación en las instituciones de los Estados ocupantes y la permanente denuncia de éstos como imperialistas es la condición primera de toda oposición que se pretenda realmente democrática y no sea simplemente camuflado colaboracionismo y sumisión a los regímenes de ocupación militar de España y Francia, presentados como “legítimos, no-violentos y democráticos”.

La recuperación plena de nuestro idioma nacional: derecho irrenunciable de todo ciudadano, es un objetivo primordial de nuestro Estado; objetivo cuyo logro requiere tanto de recursos materiales, flexibilidad y comprensión (dada la difícil situación de la que partimos), así como del sincero compromiso que se espera de quienes deben hacer el loable esfuerzo de aprenderlo y usarlo, pero que únicamente podrá conseguirse de forma universal a partir de la recuperación de nuestra independencia. Como bien dolorosamente hemos comprobado a lo largo de la Historia,

en el ecosistema imperialista de España y de Francia no hay ni puede haber lugar para el Pueblo Vasco ni para el Euskera.

Por lo demás está claro que, dados, por un lado, los hándicaps idiomáticos creados a nuestro Estado como resultado de la imposición del Español y el Francés, y por otro las exigencias de inter-comunicación que nos impone el mundo actual, la operatividad de nuestro Estado nos plantea la necesidad ineludible de adoptar una única *lingua franca* funcional de acuerdo a criterios de eficacia y utilidad, la cual nos permita la conexión con las áreas de desarrollo democrático de nuestro entorno; si bien manteniendo y cultivando siempre con tesón nuestra esencia: nuestros propios idioma y cultura euskéricos.

Los emblemas y banderas del Pueblo Vasco/Euskal-Herria y de su Estado: el Reino de Navarra, son todos los que históricamente han sido utilizados para simbolizar su existencia como Pueblo y Estado soberano e independiente, tal como nos han sido transmitidos por la documentación historiográfica. Junto con ellos, puesto que fue concebida y popularmente adoptada para representar el mismo sujeto político: la Nación de los Vascos independiente y soberana constituida en la plenitud de sus derechos y asentada en la totalidad de los Territorios históricos de los Vascos, la bandera bi-crucífera diseñada por los hermanos Arana-Goiri (cuya humillación, reducción y recuperación por el imperialismo han sido ignominiosamente permitidas por los colaboracionistas en la transición intra-totalitaria al segundo franquismo actualmente reinante) forma parte también del patrimonio común de símbolos que expresan y han galvanizado nuestras ansias de libertad, democracia e independencia nacional frente a las agresiones y los crímenes del imperialismo, el colonialismo y el Nacionalismo fascistas de España, de Francia y de sus aliados internacionales del Eje; conservando la pre-eminencia, como es natural, la bandera de nuestro Estado histórico: el Reino de Navarra.

k) Andoni Esparza Leibar: Heráldica Institucional en los territorios de habla vasca

Andonik 35 orrialdetako ekarpena egin du. Txosten hori berak ikurrei buruz egindako ikerketa luze-zabala da eta irakurtzea beharrazkoa da informazio asko eta asko dakarrelako. Zenbait kontu garrantzitsu txosten nagusian gehitu ditugu. Biltzarkideei bidali zaie eta hona hemen aukibidea:

0. Introducción
1. La tradición, posterior influencia del renacentismo vasco
2. Territorios históricos
 - 2.1. Antiguo régimen
 - 2.2. Siglo XX
 - 2.2.1. Gobierno de Euskadi (1936)
 - 2.2.2. Modificación de los escudos de Bizkaia y Gipuzkoa
 - 2.2.3. Departament des Pyrénées Atlantiques
3. Entidades locales
 - 3.1. Perspectiva de cada territorio
 - 3.1.1. Navarra
 - 3.1.2. Euskadi
 - 3.1.3. Iparralde
 - 3.2. Características generales
 - 3.2.1. Algunas figuras
 - 3.2.2. Influencia de las instituciones de ámbito superior
 - 3.2.3. Otros aspectos
4. Comentarios finales

I) Andoni Esparza Leibar: *Euskal Herriko blasoia finkatzeko beharra eta Euskal Herriak ez du himnorik*

Euskal Herriko blasoia finkatzeko beharra

http://pmb.idd.fr/estekak/ikas/Berria/200812/20081231_04_EH_Blasoia.pdf

Euskal Herriak ez du himnorik

http://pmb.idd.fr/estekak/ikas/Berria/201001/20100109_04_Iritzia_EHko_himnoa.pdf

Euskal Herriak ez du himnorik, populazioaren gehiengoak onartzen duen bat, behintzat. Baina, historian zehar, saio ugari izan dira.

Gernikako Arbola dugu lehendabizikoa. 1853. urtetik aurrera izugarrizko arrakasta izan zuen. Himno gisa egokia ez dela azaltzeko, arrazoi desberdinak eman dira: euskara traketsa darabilela, Bizkaiarekin batez ere lotura duela, edo Iparragirre (orduko euskaldun gehienak bezala) karlista zela. Azken hori ez da, noski, kontuan hartzeko arrazoi bat. Garrantzia duena hitzak dira, ez egilearen ideologia. Baina, egia da, gaur egunean ez dela ia abesten.

Lehendabiziko Aberri Egunaren deialdia 1932. urtean zabaldu zen. Aurrez abertzaleek San Inazioaren eguna ospatzen zuten (orduan Gipuzkoako eta Bizkaiko patroia zelako). Horregatik *Iñaki Deunaren Ereserkia*-k bete zuen, modu batean, papera. Baina gaur inork ez dio zentzu hori ematen.

Urte batzuk geroago Eusko Alderdi Jeltzaleak *Euzko Abendaren Ereserkia*-ren erabilera bultzatu zuen. 1983tik Euskal Autonomia Erkidegoaren himno ofiziala da, hitzik gabe: egiten ziren aipamen erlijiosoarengatik baztertu zituzten. Baina Nafarroan edo Iparraldean ez zuen inolako arrakastarik izan, eta gaur egun, gainera -Euskadin ofiziala denez-, Euskal Herriko beste lurraldeak ordezkatzeko ez du inolako logikarik. Gogora dezagun Nafarroak ere baduela bere ereserkia, baina inork ez du proposatu beste lurraldeetan erabiltzea.

Eusko Gudariak izan da beste aukera bat, baina hamarkadak direla Herri Batasunakoek eta haien oinordeko politikoek abesten dute bakarrik. Beraz, horrek ere ez du balio.

Une honetan, galdetuko genioke geure buruari: zentzurik ba ahal du, XXI. mendearen hasieran, himno baten bila aritzeak?

Askok pentsatuko dute ez duela inolako faltarik egiten. Batzuen ustez, Espainiaren edo Frantziaren aurkako elementu bat izango zelako. Beste batzuentzat, nazionalismo guztiak ezkorrek direlako, pertsonen arteko mugak eta gatazkak sortzen dituztelako.

Ikuspuntu horiek errespetatu eta neurri batean ulertzen ditut, baina ez nago ados.

Alde batetik, abertzaletasuna eta demokrazia bateragarriak dira. Hortaz aparte, talde edo nazio batek, irauteko, sinboloak lagungarriak ditu. Horregatik, arlo hori mantentzea interesgarria da.

Euskal Herriari dagokionez, ikurrina oso ongi errotu zen. Blasoien atala (Zazpiak Bat) konplikatuagoa da, baina gaur ez dut heraldikaz hitz egingo. Beraz, himnoa falta zaigu, eta komenigarria izango litzateke hutsune hori betetzea.

Iragana aztertuz, badakigu zer ez dugun egin behar. Adibidez, alderdikeriak arriskutsuak dira, abestia denona izan behar da eta. Talde edo ideologia bati lotua baldin badago, besteek ez dute onartuko. Hemendik kanpora ere gertatu izana da. Adibidez Errusian sobietar garaikoa erabiltzen dute gaur egun, baina hitzak aldatu dizkiote.

Bestalde, himnoaren edukiak aproposa izan behar du gizarte demokratiko batentzat. Alemaniako *Deutschland über alles*, adibidez, aldatu egin zuten, egokitzeko.

Baina historia demokratikoa duten estatuetan ere antzeko arazoak gertatzen dira, gizartearen bilakaerarengatik. Erresuma Batuko *God Save the Queen*, adibidez, polita da entzuteko... nahiz

eta hitzak zerbait inozoak eta guztiz zaharkituak izan. Baina *La Marseillaise*-renak ere aldatu izan nahi dituzte, odoltsuegia delako.

Ez da hau gai erraza, baina begi bistan dago ereserki batek hitzak izan behar dituela, abesteko gai izateko. Gogora ditzagun, bestela, gai honi buruz Espainiakoarekin noizbehinka izan diren eztabaidak.

Euskal lurrera bueltatuz, aipatu behar da beste himno proposamen batzuk ere egon direla. *Jeiki, Jeiki, euskotarrak* dugu adibide bat. Doinua Iparraldekoa da, oso zaharra: «Olandresen ibarra» aipatzen duenez, segur aski orain direla ehunka urte sortua. Hitzen parte bat mantenduz, XX. mende hasieran, Hegoaldean letra berri bat eman zitzaion. Bertsio desberdinak daude hala ere. Hau da bat:

*Jeiki, jeiki, euskotarrak
laster dator eguna (2)
Sortaldetik agiri da
argi gozo biguna
bere aldean, bildurtuta,
ihesi doa iluna (2).*

Interneten pixka bat begiratu ondoren, adibidez, azalpen hau aurkitu dut: «*Jeiki, Jeiki* melodiak himno baten traza inconfundiblea du». Ados nago.

Berez, antzinakoa izateaz gain, ez da lurralde batera mugatzen, errotua dago eta (garrantzitsuena!) hitzak guztiz aproposak dira: ez dute ideia demokratikoen aurkako ezer. Musikari dagokionez, moldaketak egiteko oso aproposa da.

Komenigarria deritzot eztabaida bat hasteari gai honi buruz. Horretarako izango litzateke aproposa Interneten jartzea himno hautagai guztiak, bakoitza fitxa batekin (azalpen historiko eta teknikoak emateko), eta gero aukera eman aldeko edo aurkako arrazoiak idazteko. Modu berean eta aurrerago, bozketa egiteko aukera ere izango genuke.

Esandakoa, eztabaida has dadila!

m) Andoni Esparza Leibar: Euskal Herriko armarría: Zazpiak Bat

Terminologiari buruz aipamen bat egin behar dut. Armarría bi hitz lotzen ditu: armen harria da (gazteleraz piedra armera edo frantsesez pierre aux armes). Teknikoki horretarako aproposagoa izango litzateke blasoi hitza erabiltzea, baina armarría zentzu horrekin modu orokorrean erabiltzen denez, gauza bera egingo dut.

Zazpiak Bat armarría 1892. urtean sortu zen, Donibane Lohitzuneko Udalak antolatutako euskal festetarako diseinatu zuten.




Ilustración nº. 5. Cartel anunciador de las Fiestas Vascas celebradas el Saint Jean de Luz en agosto de 1892. Es la primera representación gráfica con los escudos de todas las provincias de Euskal Herria. Encima del escudo figura la firma del dibujante y la cifra 92.

A - Zazpiak Bat, 1892. urtekoa.

Ikusi, armarri bakoitzaren ondoan lurraldeari dagokion izena jarri ziotela. Hori da, neurri batean, Lapurdi eta Zuberoakoak orduan asmatu zirelako.

Hurrengo urteotan Zazpiak Baten bertsio asko izan dira. Zabalduenak ikusiko ditugu

1931. urtean Urriolabeitiak sortu zuen Eusko Alderdi Jeltzaleak oraindik ere erabiltzen duen Euskal Herriko blasoia bertsioa.



B – 1931koa

Honi kanpoko apaingarriak jarri zizkion. Oso ederra da, baina alderdi baten kutsua duenez, ez du denentzat balio.


Gaur egun gehien erabiltzen dena, hau da.



C – Gaur egun oso zabaldua dagoena

Ezker abertzaleak, adibidez, bertsio hau du erabiltzen du.

Beste aukerak bat da, blaso tradizionalak jartzea, hau da: Arabakoa gaztelerazko testuarekin, Bizkaikoa otsoekin, Gipuzkoakoa errege eta kanoiekin eta Lapurdikoa lis lorearekin.



D – Blaso tradizionalekin

Ikur bat zabaltzeko oso garrantzitsua da kontsentsuak lortzea, adostasunak. Guzti hau kontuan hartuz, ikusi behar dugu zer aurreratu den orain arte eta zer gelditzen den egiteko

Orain arte adostutakoa

Bi alderdi abertzale handiak erabiltzen dituzten bertsioetan adostasun puntu ba lortu dela ikusi dezakegu. Lurrealdeko blasoiak orden alfabetikoa jarraituz ipintzen dituzte. Goitik behera eta ezkerretik eskuinera: Araba (1) , Bizkaia (2), Gipuzkoa (3), Lapurdi (4), Nafarroa (5) eta Zuberoa (6). Kasualitatez, erdian gelditzen dira biztanle gehien duena (Bizkaia) eta azalera handikoa (Nafarroa).

Aztertu behar diren puntuak

1- Lurrealdeko blasoiaren edukia finkatzea da garrantzitsuena. Ni adibidez tradizio zalea naiz, Bizkaikoa otsoekin jarriko nuke, Gipuzkoakoa kanoi eta erregearekin, etab. Baina uste dut, irtenbide logikoena, hau dela: instituzio demokratikoek onartutakoak jarri. Kasu honetan, Lapurdikoa lis lorearekin ipini behar da.

2 - Ezkutuaren forma. Gotikoa asko erabili da iraganean eta gaur ere. Baina aproposagoa da ia karratua, askoz hobe sartzen direlako 4. eta 6. zatietako armak (Lapurdi eta Zuberoa). Ezkutu gotikoa ederra da, baina kasu honetan desegokia.

3 – Kanpoko apaingarriak. Ezin da eredu bat erabaki, zeren B bertsioan bezala, bakarrik batzuen izango da.

Askatasuna ona da. Horrela edozein erakundeak (kultur eta kirol taldeak, elkarte gastronomikoak, etab.) bere kanpoko apaingarriak ahal ditu jarri, horrela bere nortasuna eta euskal sentimendua uztartuz.

Aztertzen ari garen kasuan, jatorrizko arabierako /h/-tik erromantzeko /f/-rako bilakabide edo urratsa egiaztatu beharko litzateke (*nahar* > *nafar*), eta hala egin zuen Lekuonak: “...*hay también casos a la inversa, en que las formas h pasan a f. (...): El árabe al-hori nos da en castellano alforín= horreo. Al-hauz nos da alfoz= arrabal. Al-haba nos da alfaba= porción de tierra. Alhadia nos da alfadía= cohecho, fraude. Al-haquin, alfaquin= médico. Al-hachar, alfarje= piedra de moler aceituna. Al-jayat, alfayate= sastre. Al-holi, alfolí= granero, horreo. Y, por fin, por no alargar innecesariamente esta lista, al-jilel nos da alfiler= clavija de hierro.*”

Horrela beraz, jatorriko arabeko [h/j] (eztarriko aspiratuak) erromantze edo gaztelaniako [f] (ezpainetakoak) bihurturik. Hemendik gainerako euskarazko aldagaietara, *nabarra/naparra*, arazorik gabe.

EUSKARA. EUSKAL HERRIA.

Baskonia izen nagusiaren kasuan, **basoko** izenetik abiatutik, **basko** izen sinkopatura iritsi gara eta bide horretatik jarraituz:

basko > **vasko** (grafia aldaketa): espainierak.

vasko > **uasko** (grafia aldaketa, atzera berriz): Goizuuieta, Arruçu, Çauala...

uasko > **ausko** (metatesia): “Elimberri, Augusta Auscorum, Auch (Auscii)” (Lartigue)

ausko > **eusko** (diptongo itxiera)

⁴ ARTURO CAMPION. - “Navarra en su vida histórica”. - Geografía del País Vasco-navarro - Navarra, tom. I, pág. 406, nota 90.

Caro Barojak (1985, 136-137) ere, **harremanetan** jarrin zituen “**ausci**” izena eta “**eusk-**” osagaia, aipatu ondoren zein autorek erabiltzen duen “ausci” izena: *Auskion* (**Estrabon**), “*Aquitanorum clarissimi sunt Ausci*” eta “*in Auscis Eliumberrum*” (**Mela**), *Ausci* (**Plinio**), *auskioi* (**Ptolomeo**), “*Novem populos Ausci comendant*” (**Ammiano Marcelino**).

Caro Barojak ere: “*El plural ‘ausci’, parece que debe corresponder a un singular ‘auscus’.*” (< **uascus** < **vascus** < **bascus** ???)

Laburbilduz, orduan:

basoko > *basko* > *vasko* > *uasko* > *ausko* > **eusko** (Euskara)
> **vasco** (Gaztelania)

Behin hitz elkartuetako lehen osagai gisa baliatzen dugun *eusko* erdietsita, honetatik abiatutik, **Euskara** eta **Euskal Herria** izenak ere ondoriozta ditzakegu.

Lehenari buruz, irakurria dut nonbait *esku* eta *era* bere osagaitako eman duenaren proposamena, baina hizkuntzak berak zail egiten duen hipotesia kontuan ez izanda, bestela ere, eskuko kontua edo eskura duguna baino burmuinetakoagoa dela iruditzen zait hizkuntzarena eta, lehentxeago aipatu dudana *eusko* hitza, *Euskara* hitz elkartuaren lehen osagaia delakoan nago:

eusko + -(e)ra > euskara

Eta *Euskara* hitzetik abiatutik: **Euskal Herria, euskaldun, euskaltzain, Euskal Jaiak / Festa.**

Euskal Herria da, bestalde, hizpide ditudan eta dokumentatuta dauden toponimo nagusien artean berrien edo modernoena, hizkuntzak eskaintzen dituen baliabideak profitaturik sortua, “*euskararen herria*” zenak antolakuntza-erakunde propioak galdu zituen garaikoa, XVI. mendekoa. Hasiera batean Joanes **Leizarragak** lehen aldiz **1571**n (Testamentu berria, **Heuskal-Herria**), erabili zuelakoan geunden, baina hara non, Arabako Ekialdeko Lautadako Larrean bizi zen Joan **Perez de Lazarragak** ere bere eskuizkribuan (Dianea & koplak, **Eusquel Erria**) **1564-1567** urteen artean, urte batzuk lehenago beraz, erabili zuela erakutsi zigun.

GURE HERRIAREN IZENA.

Non egiten dira ondorengo hizkerak bereziki?

frantsesa..... Frantziar; *espainiera* Espainiar; *italiera* ... Italian; *ingelesa* ... Ingalaterran; *suediera* ... Suediar; *germaniera* ... Germaniar; *katalaniera* ...Kataluniar; *galegoa* ... Galiziar; *errusiera* ... Errusiar.

Eta horrela jarraitu dezakegu luze. Kasu guztiak ez dira horrelakoak, baina gehienak bai, zalantzarik gabe. Orduan... **euskara**..... **Euskal Herria** (*euskararen herria*)

Hala ere norbaitek, erantsiko dit noizbait **lingua navarrorum** ere erabili zela gure hizkuntza aipatzeko eta horregatik, agian, **Nabarra** erabili beharko genukeela. Eta zer esan beharko genuke, orduan, Gaztela aldean hainbestetan erabili zuten **lingua vizcaína** izendapena kontuan harturik?

Nafarroako ikur izan den eta oraindik ere den Xabierko Frantziskoren hizkuntzari buruz ondorengo diote amaieran web orrian “La lengua de San Francisco Javier” artikuluan: “*A la edad de 46 murió, con la sola compañía de 'Antonio China', en la isla de Sanción, a tres leguas de la costa de China. Murió musitando jaculatorias en euskera. Porque la suya natural era la **lingua vizcaína**. Las primeras y las últimas palabras que salieron de los labios de Francisco de Xabier fueron dichas en euskera.*”(euskalkultura.com)

Navarrorum erakusketa zela eta, Peio Monteano historialariak Xabierko Frantziskoren hizkuntzari buruz ondorengo zioen Noticias de Navarra egunkarian (2017-XII-10): “En la

exposición *Navarrorum* del Archivo de Navarra se muestra una carta en la que San Francisco Javier afirma clara y rotundamente que su lengua nativa es el euskera. Sin embargo, hay aún quienes siguen manteniendo que la lengua del santo era en realidad el castellano. Se escudan en que el original de la carta se ha perdido y en que la *lengua vizcaína* a la que se refería el santo era en realidad una forma de hablar castellano. Como comisario de la exposición y especialista en la Navarra del siglo XVI me gustaría explicar por qué su postura es insostenible desde el punto de vista histórico.

La carta: En enero de 1544, Francisco de Xabier enviaba desde la India una extensa carta a los jesuitas europeos. Entre otras cosas, les contaba las dificultades que tenía para evangelizar a los indígenas: *“como ellos no me entendiesen, ni yo a ellos, por su lengua ser natural malabar y la mía vizcaína...”*

Harrigarria litzateke Bizkaiak izenarekin Penintsula ia osoa adieraztea, ez horrenbeste Euskal Herria, horrela egin baitzuten maiz Cervantes-ek eta beste askok:

*“Todo esto que don Quijote decía escuchaba un escudero de los que el coche acompañaban, que era vizcaíno⁵, el cual, viendo que no quería dejar pasar el coche adelante, sino que decía que luego había de dar la vuelta al Toboso, se fue para don Quijote y, asiéndole de la lanza, le dijo, **en mala lengua castellana y peor vizcaína**, desta manera:”* (El Quijote, I. zatia, VIII. Atala)

Inori bururatzen zaio BIZKAIA izena proposatzea?

t) Hainbaten artean: Nafarroako banderari buruz hainbat ohar

Lehen testu erreferentzia 1450 urte inguruan agertzen da, Bianako printzeari buruzko testu batean, esanez, bere armarritik hartutako Nafarroako armekin bakarrik bandera bat eginik bere aurkarien kontra joan zela borroka egitera. Mikel Zuzak aurkitu du erreferentzia hori eta 2018an argitaratu zuen "Principe de Viana el hombre que pudo reinar" liburuan. Bianako printzearen armarría ezaguna da eta bertako Nafarroako armak, karbunkulua, itxia eta borobiltxoekin da eta erdian borobiltxo berde batekin.

1512an Luis Correa-ren Kronikan idatzita agertzen da, nafarrak bandera gorri eta urre koloreko banda batzuek dituen bandera baten azpian babesten zirela.

Henrike II.a Nafarroako erregea hiltzean, 1555 urtean, bere hiletan Nafarroako bandera handi bat eraman zuten. Kronika dago idatzita antzinako frantseseko testu batean.

Carlos V. enperadorearen hiletan 1558 urtean ere ikusi daiteke Nafar bandera. Bertan inperioaren menpe zeuden estatuak agertzen dira, Flandria, Austria, Sardinia, Aragoi... gaur egungo bandera berdinarekin. Bertan ikusi daitekeen Nafarroako bandera ondorengoa da: karbunkulua bandera osoan, itxia, borobiltxoekin eta erdian borobiltxo berdea.

Joseph Garat Hiriartek, 1803-1811 urteetan, euskal estatu proiektua bat proposatzean Napoleonen inperio barruan, Nafarroako bandera proposatu zuen estatu horren bandera modura.


Udalbiltzak, 2013 urtean, Nafarroako bandera historikoa proposatu zuen ikurrinarekin batera, lotura hauetan ikusi daitekeen bezala:

https://www.berria.eus/albisteak/92782/udalbiltzak_euskal_herriko_banderak_kalera_at_eratzeko_deia_egin_die_herritarrei.htm

<https://www.youtube.com/watch?v=XDwg51-3SgE>

⁵ Vasco.

Udalbiltzak testu bat ere zabaldu zuen ikurrei buruz, hori ere kontutan hartu beharko zen. *



Nafarroako bandera historikoa berreskuratzea proposatzen da, nahiz eta mugimendu berri batentzat beste bandera berri bat aukeratu daitekeen. Nafarroako bandera historikoa berreskuratzea aurrerapauso bat izango zen. Hau ere proposamenen barruan egon daiteke, nafar bandera historikoa. Ondorengo loturan ikusi daiteke bere irudia:

<http://nabarlur.blogspot.com/2019/06/la-bandera-de-navarra.html>

Bi ikurrak erabili nahi badira, erdi eta erdi ere erabili daiteke. Altsasun diseinu honekin mural bat dago margotua.


Oihenart-ek idatzi zuena ere kontutan hartzea komeni da, bere 1638ko Notitia Utriusque Vasconiae liburuan. Bertan Nafarroako armariari buruz informazio interesgarria dago, esanez kateak 1580 urte inguruan hasi zirela erabiltzen eta karbunkulua ordezkatzten:

http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/19/19026047.pdf?fbclid=IwAR1tV3eHQoskw69mrm0ga4IS7ST7EiYePNV8Y-tGvl6nkk572WUtE_uG6M

Nafarroa Garaian 20. mendean instituzio ofizialek erabili ditzuzten armari ereduak. Gaurko eguneko armariaren logoan anilleteekin kateak adierazi nahi dira, nahiz eta Nafarroako armari historikoak ez ditu inoiz anilleteak izan.



Escudo de 1910 realizado por la Comisión de Monumentos, coincidente con los reproducidos en *Diario de Navarra* y el 80 en 1937.



Escudo de 1931, durante la II República, que solamente modifica la corona real por la mural.



Escudo de 1937, con la laureada, donde introducen los aros o argollas en las uniones de los extremos.



Así el acuerdo de 1980 se produjo el 23E, aprobándose la norma final del 81. Hasta el 85 se improvisaron algunos escudos.



Escudo de 1985 elaborado por Diputación que no volvía al de 1910, sino que remarcaba más la variante de 1937.



Diseño funcional de 1985, que volvía a hacer de la variante del 37 la protagonista exclusiva.

1910ean diseinatu zuten banderatzeko bat, aurretik erabiltzen zen karbunkulua kateengatik ordezkatzuz:
https://www.naiz.eus/media/asset_publics/resources/000/344/410/original/arrano8_uriz_.jpg

Aberri eguna noiz eta izan beharko zuen esanahiari buruzko dokumentu bat 1978. urtekoa:
http://euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/anaitasuna/html/358-359.html
29-49. Dosierra: Aberri Eguna

u) Rafa Santxez Muxika: zenbait proposamen

Egia da gure herri honek izenetik hasi eta sinboloetan ere nahasmen eta adostasun falta dezente baduela: Euskal Herria, Euskadi, Nafarroa, Nabarra... ikurriña, arranoa, Nafarroako gorria... kateak, karbunkulua... Gora eta Gora, Eusko Gudariak, Nafarroako Gortetakoak, Agur Jaunak, Txoria Txori, Gernikako Arbola... Batzuk itsasaldeko Euskal Herria berdearen erakusgarri omen, besteak mahasti eta lautada gorriena aldiz. Nire ustez inperialismo espainiarrak -edota, agian hobeto esanda supremazismo gaztelarrak- ondo baino hobeto asmatu du Estatu Autonomikoaren estrategia zatikatzaillearekin. Franco hil zenean egonkor samar pentsa genitzakeen hainbat kontzeptu oso kolokan daude gaur egungo euskal-nafarron artean; eta, beldurrak nago, are eta nahasiago belaunaldi gazteen artean. Hiru alorretan zentratuko naiz:

Izena:

Zer izen dauka gu bizi garen lurraldeak, nazioak edo herri honek? Garai bateko Euzkadi egungo Euskadi bihurtu da. Nik ez dut inoiz ulertu herri honi izen bat asmatzeko sabinismoaren premia hori. Begirunerik handiena diet Euzkadiren defentsan bizia emandakoei. Baina baita, "errelatuan" ahantzita edo ezabatuta izanagatik, Nafarroaren Erresumaren alde emandakoei ere. Hala ere, orain Euzkadi-País Vasco dugu: Espainiako beste Autonomia Komunitate bat, alegia. Eta, bestalde, Navarra, Comunidad Foral. Vascos eta navarros "euskaldunak" eta "nafarrak" zatiketa finkatzen joan da azken urteotan eta normaltzat jotzen da hiritar askoren (gehienen ote?) artean; baita euskaldun askoren artean ere. Sakanako euskaldun batek "soy vasco" esanez gero, ezetz esango dionik ez zaio faltako, ez Espainian ezta Euskadiko hainbat tokitan ere ez: "tú serás navarro, ¿no?". Aldi berean, erdarazko País Vasco kontzeptuak Navarra kanpoan utzi du. Euskadin eta Nafarroan banatzen den Turismo Saileko eskuorri bakoitza, besteak beste, zatiketa horren tresna izan da azken berrogei urteotan. Zatiketa honen errua Nafarroa garaiko herritarrei leporatu ohi zaie ia beti. Ez dago zalantzarik badaudela konkistaren oinordeko militante euren artean, baina egungo egoeraraino eraman gaituzten gaizki egindakoak hobe genuke denon artean banatu, nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Nafarroako Foru Erkidegoan.

Muturreko joerak bazter guztietan topa daitezke: Enkarterrietan, Lautadan, Goierrin, Erriberan edo Zuberoan, berdin dio. Izan ere, konponbidea bilatze aldera ona litzateke dagoenetik abiatzea.

Nire proposamena Euskal Herriaren Konfederazio Nafarra (EHKONA) edo Euskal Herriaren Batasun Nafarra (EHBANA) da. Bai, jakin badakit inork ez duela halako izen luzea solasaldi arruntean erabiliko. Agian, auto matrikuletan, nortasun agirietan eta halakoetarako izango litzateke. Bestela, Euskal Herria-Nafarroa, edota Euskal Herria-Nabarra esango litzateke. Luzeegia oraindik? Ba ziurrenik batzuek Euskal Herria hobetsiko dute eta beste batzuek Nabarra edo Nafarroa. Ba, hala, bedi. Egungo egoeratik abiatuta, nire ustez dagoen bide bakarra jendeari euren bazter edo muturretik ahal den gutxien bortxatzeke eroso samar egon daiteken erdigune batera hurbiltzea genuke bidea.

Erdaraz Vasconia berreskuratzea gustura ikusiko nuke. Hala ere, badakit Vasconia, Waskonia, Gaskoina: Gasconia, Gascuña, Gascuña, Gascuña eta Gascuña badirela ere. País Vasco CAVekin identifikatzen ohi da eta Navarra baztertzen du gehienen imajinarioan.

Gainera, Komunitate Foraleko batzuei Vasconia hurbilagoa egingo zaielakoan nago ni. Vasco-navarro izendapena arazorik gabe erabiliko nuke.


Eta honetara iritsita, zein ikur proposatzen dut Euskal Herriaren Konfederazio Nafarra (EHKONA), Euskal Herriaren Batasun Nafarra (EHBANA) Euskal Herria-Nafarroa, Vasconia horrentzat?

Bandera:


Aurreko ildoari jarraiki, ez nuke ikur berririk asmatuko. Daudenak daude eta euskal-nafar gehienek aintzat dauzkate. Nik, beraz, biak batuko nituzke ikur batean. Neuk, ez dut zalantzan jarriko Ikurriña eta Nafarroaren gorria, biak ala biak, euskaldun guztion ikurrak direnik. Ez dit ardura, norik asmatutakoa edo zein erabilera egin zaion bakoitzari, batez ere azken urteotan. Ikurriña Euskal Herriaren eta bere naziotasunaren ikurtzat hartzen dut nik. Nafarroako armarría eta bandera gorria, aldiz, euskaldunak/baskoiak egitura estatalean antolatu direnean Europako erresumen artean identifikatzeko ikurra. Ikurriñan euskara, ohiturak, gu nazio euskalduna egiten gaituen oro ikusten dut nik. Nafarroako gorria gure Euskal Herriaren independentziaren sinboloa. Zein baino zein euskaldunago, abertzaleago, bateragarriago?

Nazioa sentimendu konpartitua da. Tourrean eskuetan ikurrina astintzen ikusten diren zaleek euren nazioaren bereizgarri eta sentimendu konpartitua erakutsi nahi diote munduari. Orain, beraz, ezin zaie esaten joan ezetz, ezetz, Nafarroako gorria hori baino zaharragoa dela eta gu independientea gineneko ikurra dela, eta hobe aldatzeko. Nekez konbentzituko dituzu San Mameseko zaleak, edo Biarritz Olympiquekoak kasu. Zer esanik bizia ikurriñagatik arriskatu duten asko eta asko.

Baina, zorionez, orain dela hogeit bat urte hasitako joera bat gero eta indar handiagoz doa zabaltzen. San Ferminetako Txupinazoan, manifestaldietan, ekitaldi politikotan, eta hainbat eta hainbat okasiotan ikurriña eta Nafarroako gorria bata bestearen ondoren doaz. Nire proposamena beraz, ikur bakar batean elkartzea. Eta berriro diot hobe iruditzen zaidalako dagoenetik abiatzea. Horrela, hau da nik proposatuko nukeena:



Beste ekarpenen artean beste diseinu batzuk ikusi ditut, armarría erdigunean pendoi zaharrena irudikatuz edo, esaterako, Nabarralde proposatu izan dituenak izan zitezkeen ere.




Nabarralde fundazioak erabilitakoak

Nik aukera arrazoi estetikoagatik eta ikurriña eta karbunkuluaren forma antzagatik egin dudala onartu beharra daukat. Eta lau kuarteletan Nafarroako Erresumaren dinastiek maiz erabili izan duten bezala baina, kasu honetan, sinbologia honekin: ekialde-mendebalde, ipar- hegoalde, egungo erkidegoak batuz Euskal Herria eta Nafarroa gauza bera.

Armarria:

Armarria dela eta, guztiz ados nago Nafarroako armarriaren erdia hartu beharko lukeela eta, horrela, Eneko del Castillok proposatutakoa oso egokia iruditzen zait.



Ereserkia:

Euskal-nafar guztion ereserkiak baldintza batzuk bete beharko lituzkeela pentsatzen dut nik: Bateragarria, kantagarria, solemnea: Euskal-nafarroko abeslari herri bat izan gara beti. Ekitaldi batean, estadio batean kasu edo ekitaldi instituzional batean, jendea kantatzen irudikatzen dut nik. Beraz, ezin daiteke izan orain dagoen *Gora ta Gora* edo *Nafarroako Gortetakoa*. *Gora ta Gora* EAJarekin dagoelako. *Gora ta Gora*, gainera, inork gutxik dakielako abesten. Bestalde, *Nafarroako Gortetakoa* egungo erkide foralekoa delako. Hala ere, *Nafarroako Gortetakoa* ekitaldi instituzionaletarako gordeko nuke daukan ondare historikoagatik eta solemnitategatik. *Nafarroako Gortetako Ereserkia*, berriz, kantatzeko oso zaila iruditu zait beti, kantatuta entzun dudana bakoitzean koroa ezinean zebilela iruditu izan zait beti.

Gernikako Arbola: ereserki historikoa eta solemnea ere bai. Onartua bai Gernikako Haritzaren aurrean zein Gaztelu Plazan, abertzaleek zein karlistek abestutakoa. Gaur egun, ostera, *Jainkoaren* aipamena askorentzat tokiz kanpo egon daitekeelakoan nago.

Agur Jauna: letra erraza, laburra, errez ikasteko modukoa, solemnea. Berdintasunaren mezua oso egokia gaur egun. Baina, beti ere letrari moldaketa parekide eta erlijio kutxu barekoa eginez, EHUK egindakoaren bidetik. Iparraldean ereserki moduan kirol partidenetan abesten da. Nafarroa Osoan onartua -mendebaldeko Euskadin zein Nafarroa Garaian ere guztiz onartuta.

Txoriak Txori: letra erraza, laburra, oso herrikoa. Mezua oso egokia.

Eusko Gudaria: letra erraza, laburra, oso herrikoa. Baina, aukeran, ekitaldi gehienerako militarregia. Bere tokia omenaldietan izan beharko luke. Gainera, Euzkadi hitza bakarrik erabiltzea oztopo izan daiteke.

Jaiki-jaiki: letra erraz samarra, laburra, oso solemnea baina ezezagun samarra.

Txanton Piperrri (Euskal Herriko semeak gera...): letra erraz samarra, laburra, oso solemnea baina ezezagun samarra.

Etiketatea eta Nazioartekotasuna

Nazioartekotasuna, Imagen de país: beste ikurtzat hartzen dut nik. Eusko label, branding, Navarra Reyno gourmet, Basque Culinary Center, Bilbao Exhibition Centre, Bilbao Night Marathon, Urdaibai Bird Centre, Humanity At Work, Basque Railway, SSIFF... Donostiako Zinemaldia alegia... "and a long list of sundry other fucking cool names..." Baina hori bai Arabako ardo bat edo Nafarroakoa erosiz gero, nekez topatuko duzue etiketa bat euskaraz. Nik erosten dudanean etiketan azalpen bat euskaraz daramana lehenesten dut, horrek dezente murrizten dit aukera baina. Lata baten osagarriak hizkuntza zerrenda luze batean aurkituko dituzue, baina euskaraz nekez.

Badaude salbuespen batzuk, baina oso urriak. Iparraldeko gaztaren bat, Nafarroa garaiko upategi bat, garagardo artisauak ... Industrian eta ustezko gauza serio serioetan ez. Tontokaria omen da eta, gainera, ekoizlearen askatasunaren aurkakoa antza.

Katalanek urteak daramazkigute. Ia etiketa denak, beste hizkuntzekin batera, katalanez daude. Nafarroa-Euskal Herria honetan salbuespena da, ostera. Piquillo piperrak edo orburu poteak,

agian, Errigora kanpaina dagoenean ikusiko dituzue etiketa euskaraz daramatela. Ea, ba, Erriberako enpresarioak bezala beste denak ere konturatzen diren euskara ere etiketan erabiliz gero, produktua ez dela ustelduko eta, aldiz, merkatu bat zabalduko zaiela euren poltsikoen mesederako. Mundu mailan, nazioartekotze lanean, etiketak euskaraz egoteak mapan jartzen gaitu. Etiketatzea (etiketajea) beste ikur bat da.

11. Eranskinak

a) 181027 Lehenengo Biltzarraren aurkezpena

Egun on eta ongi etorri guztioi Nazio Ikurrei buruzko I Biltzar honetara.

ENAn hasierako urteetatik askotan euki dugu honako galdera gure artean: Sinbolook gure nortasunaren zati al dira, ala gure nortasuna ere azaltzen al dute? Azkenean gai honekiko Biltzar oso bat antolatzea heldu gara, Biltzarre eta ENAren artean, herritargo osoari zabaldu eta eskaintzen dioguna.

Handia da herritarren artean euskal ikurrei buruz daukagun ezjakintasuna, izan ere ez eskola, ikastola, institutu, unibertsitateetan eta abarretan ez da honako gairik irakasten, nonbaiteko salbuespen batzuekin agian. Gu geuk gure kabuz ikasi behar izan dugu hona dakarkizuegun guzti hau, gutxi ez dena gaiari buruz ia libururik ez dagoen honetan. Gutariko batzuen ustez asignatura oso bat izan beharko litzateke hezkuntza ofizialean. Gainera ikurren gaiak beste gehienak ikutzen ditu: mitologia, geografia, historia, hizkuntza, literatura, lurraldetasuna, ideologia, politika, nortasuna bera... Eta horrela eztabaida bizia bilakatzen da, denok baitaukagu mota bateko edo besteko jakingura. Gai sakondu orduko ikuspegi zabalagoa eukitzen hasten gara eta errealitatea hobeto ezagutzen dugu, berau eraldatzeko nahi eta behar dugun norabidean.

Badakigu jakin, ikur baino askoz gehiago direla hemen tratatuko ditugun gaiak: Herri oso baten izena adibidez, ez da ikur hutsa bakarrik, sinboloa baino askoz gehiago da, eta geroko eztabaidan horixe ondorioztatuko dugula iruditzen zaigu. Izena izana delako, eta izanari izena dagokiolako, hitz bakoitzarekin esaten duguna eta adierazten dugunarekin zehatzak izan behar gara. Euskara bezain zehatzak.

Beraz, eta idatzita utzi dugun bezala, 9 dira landu eta eztabaidatu beharreko atalak:

Nazioaren izena.	Leloa edo eslogana.
Armarria.	Egutegi nazionala.
Bandera.	Nortasun Agiria.
Ereserkia edo himnoa	Bestelako ikurrak.
Nazio Eguna.	

Atal bakoitza gutariko batek azalduko du, gero denok euki ditzakegun informazioa eta datuak zuzendu edo gehitzeari ekingo diogu eta arratsean taldeka eztabaidatuko dugu, gaiok goizean zehar ikasi eta landu ondoren.

Nazio izaera duten ikurrak azaltzen saiatu izan gara, hau da, euskal eremu osorako sortuak edota eragina dutenak. Gehiago egon daitezke.

Guk dakigula lehendabizi egiten da Euskal Herrian honako Biltzar ireki bat. Gutxi ala asko egoteak inportantzia daukan arren, gaudenok gaudelako ez daukagu horregatik garrantzi gehiago ala gutxiagorik, gaietan sakontzeak eta ondorioak ateratzeak bai daukate beren mamia eta.

Bururatzen zaigu ondo legokeela gai honekin (ikurrak, banderak, armarriak...) elkarte oso bat antolatzea eta ikurren berri ematearekin batera ikastaroak, kongresuak, topaketak... burutzea, gai honetan -bexilologia esaten diote-, dagoen beste huts bat gehiago betetzearren.

Orain 21 urte ENAren hasi ginenean ere lau pertsona izan ginen. Geroko urteotan etorri zen guztiaren berri emango dizuegu eguerdian. Milaka kilometrotako ibilbideak urrats bakar batekin hasten dira eta!

Bestetik esatea 15.500 helbide elektroniko baino gehiagotara bidali izan dugula Biltzarraren propaganda, lortu nahi dugunaren tamaina hartu dezazuen, ez baita txantxetako gauza hemen tratatuko duguna.

Aurreko guztiagatik kutsu pedagogikoa eman nahi izan diogu Biltzarrari ere, azken buruan bititza osoa amaierarik gabeko ikastaro bat baita arlo guztietan.

Beraz, zuzena denari eutsi eta okerra dena guztion artean zuzendu dezagun.

Ekin diezaiogun ikurren gaiari!

b) 181030 Prentsa oharra: Burujabetzarako bidean nazio ikurrak eguneratu?

Urriaren 27an gure nazioak dituen ikur adierazgarrienei buruz gogoeta egin zen, horien historiari buruz jaso den txostena osatuz eta etorkizunera begira eta burujabetzarako prozesua kontuan hartuz (norbanakoena, herriena eta nazioarena), nondik jo beharko genukeen eztabaidatuz.

Egoera berezi batean gaudela aipatu zen, batetik, azken urteotan ikur batzuen esanahia ez delako jada guztientzako berdina. Hau batez ere Hegoaldeko autonomia erkidego biek izen eta bandera bana bereganatzean gertatu da. Bestetik, mendebaldean sortutako sinbologiaren (ikurrina...) eta ekialdean sortutako sinbologiaren artean (Nafarroakoa) dagoen talka ez dugu azken 100 hauetan gaingitu.

Lehenengo bilkura honetan 8 ikur mota aztertu, eta laburbilduz, gai hauek aipatu ziren:

Nazioaren izena. Batzuek *Nabarra* edo *Nafarroa* erabiltzailearen alde azaldu ziren, izan dugun estatua izan delako eta zerotik hasi beharrean hori berreskuratzea burujabetasuna lortzeko bide laburragoa izan daitekeelako. Beste batzuek *Euskal Herria* erabiltzearen alde kokatu ziren, euskera, kultura eta herriarekin hobeto lotzen delako, baita 5 mendeetako historia duelako ere. *Euskadi* hitza termino nahasgarri bihurtzen ari dela aipatu zen, autonomia erkidego batekin eta ez lurralde osoarekin etengabe lotzeagatik. Baskonia izen zaharraren alde ez zen inor azaldu.

Armarria. Nafarroaren armarritik, ondoren Hirurak Batetik eta Laurak Batetik pasatuz, Zazpiak Batera heldu arte egon zen prozesuari buruz azalpen asko entzun ziren. Gehienak oraingo Zazpiak Baten alde azaldu ziren baina kritika batzuk entzun ziren. Adibidez, Espainiako armarrian Nafarroa azken lekuan badago ere, berorren espazioaren %25 betetzen duela eta, aldiz, Zazpiak Baten 5. lekuan dagoela (heraldikan ordena oso garrantzitsua da) eta espazio gutxiago duela. Bestetik izan dugun Estatua (Nabarra) eta bertako eskualdeak maila berean jartzen dituela. Horrez gain, sei armari daudela aipatu zen nahiz eta Zazpiak bat deitu. Horri batek erantzun zion Nafarroakoa bi aldiz zenbatu behar denez 7 direla eta ondo dagoela. Nafarroakoari zentralitate gehiago eta diaspora eta itsasoa ere gehitzeko proposamen bat egon zen.

Bandera. Ikur honek eztabaida gehien piztu zuen. Lehendabizi luze hitz egin zen izan ditugun banderei buruz: zer, nola, zergatik, koloreetako esanahiak... Ondoren hiru jarrera ikusi ziren: oraingo Ikurrinaren alde daudenak, Nafarroako bandera zaharraren alde daudenak eta bandera biak uztartzea defendatzen dutenak. Nafarroako banderari dagokionez kateak ez direla erabili behar eta horren ordez eredu zaharra, pomelatua, hobe dela argi geratu zen etorritakoen artean. Bitxikeri moduan aipatu zen banderaren biribiralak, pomaok baino ez ote diren batzarren irudikapena izango, Orreagan frankoei eta Araban bisigodoei 250 urtez irabazteko eta gure estatua sortzeko, gure armada auzolanaren bidez herriz herri osatzen zelako. Hau da, biribilek herri bakoitzaren batzar burujabea irudika lezaketela.

Ereserkia. Hemen orain arte gehien entzun eta erabili diren ereserki edo kanta azaldu eta kantatu ziren: *Nafarroako Gorteetako ereserkia*, *Gora ta gora*, *Gernikako Arbola*, *eusko Gudariak*, *Agur Jaun-andreak eta Txoriak txori*. Ondoren bakoitzak norberarengan sortzen duen inpresioa zein den aipatu zen. Batek Nafarroakoa musika tresna gutxirekin jotzeko ez omen dela egokia

aipatu zuen. Beste batzuek ea testuak laikoak ez ote diren izan behar esan eta zentzu horretan letra batzuk aldatu beharko lirakekeela. Kanta batzuek generoa kontuan hartuta aldaketak behar dituztela ere argi geratu zen.

Nazio eguna. Hemen bi gai aipatu ziren, batetik eguna eta, bestetik, deialdia egiteko era. Egunari dagokionez Aberri Eguna zein Orreaga Eguna jaiegunetan direnez, jende asko kanpora joaten dela aipatu zen. Horrez gain, batzuek euren erakundearen eguna bultzatzen dutela gehiago. Katalanek Diada kurtso hasieran dutela aipatu zen, irailean, data oso aproposan. Batzuk Aberri Eguna bere horretan uztea, Abenduaren 3ra pasatzea (Euskeraren Egunarekin lotuz), edo jaieguna ez den beste batera eta gure historiarekin lotuta egon daitekeenera aipatu zen. Bestetik deialdia alderdien esku uztea baino ez litzateke hobe izango 100 bat elkarte batu eta deia eurek egingo balute, Katalunian elkarrekin deituta batasuna hobeto lortu dutelako.

Eslogana. Gure historian mugarrak izan diren leloak aipatu ziren: Obanosekoa (*Aberri askea herritar askeentzat*), Aranarenak (*Euskotarren aberria Euskadi da, JEL*), Gora Euskadi askatuta, *Denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuk dena eman behar ez dezaten, Hizkuntza bat ez da galtzen...*, Edo ezazagunagoak: *Ez dago zapaltzaileen hizkuntzan askatu den herririk...* Aipatu zenez, ondo legoke oraingo egoera definitu eta iparra markatuko lukeen lelo berri bat sortzea.

Egutegia. Hernanin eta ondoren ikastetxe askotan gauzatu dituzten ekimenak aipatu ondoren, Udalbiltzak 4 jaiegunen proposamena aipatu eta ondo ikusi zen: martxoak 3 (Gasteizkoa gogoan izateko), martxoak 8 (Emakumeen Nazioarteko Eguna), ekainak 24 (udako solstizioa) eta abenduak 3 (Euskeraren Eguna). Hau mota guztietako elkarrekin eta batez ere sindikatuek bultzatu beharko luketela eta agian 2 egunekin hastea hobe zela proposatu zen: Emakumeen Eguna (emakumeen mugimenduak indarra duelako) eta udako solstizioarena (jai hori oraindik oso bizirik dugulako).

Nortasun agiria. Hemen lehenengo Jaurlaritzak sortu zituen agirietatik orain arte izan ditugun nortasun agiriak aipatu ziren eta ENAren eta Naziotasunaren Aitormenaren artean proiektu bakar bat egitearen beharra.

Orain herritarrei gogoeta honekin jarraitzeko proposatzen dizuegu, www.biltzarre.eus webgunean egongo diren ikur bakoitzaren foroaren bidez zuen ekarpen eta irizpideak azaltzeko. Ondoren, urtebete barru 2. biltzarra egingo dugu eta hor proposamen guztien gainean beste gogoeta sakonagoa egingo da, ondoren, herritarrei egingo den bozketa publiko baten bidez azken hitza emateko.

Eutsi gure nazio ikurrei!

c) 181102 Erreportajea Berrian: Herria nola irudikatu

https://www.berria.eus/paperekoa/1932/004/001/2018-11-02/herria_nola_irudikatu.htm

Edurne Begiristain

Nazio ikurrei buruzko eztabaida sustatzeari eta ikur horiek eguneratzeari buruzko biltzarra egin berri dute Bilbon, Biltzarre eta ENA elkarrekin antolatuta. Ikurrak «burujabetza indartzeko» osagaiak diren heinean, eztabaidan parte hartzeko deia egin diote gizarteari. 2020. urtean aurkeztuko dituzte ondorioak.

Nazio guztiek dituzte beren nortasunean oinarrituko sinboloak. Euskal Herrian ere, kontzientzia nazionala sendotzeko berebiziko garrantzia dute euskal identitatearekin lotutako elementuek: banderek, ereserkiek, armarriek... Haatik, egoera politiko eta sozialak baldintzatuta, gaur egun ikur batzuk ez dira lagungarriak herria irudikatzeko.

Nazio ikurrei buruzko eztabaida sustatzea ezinbestekoa dela iritzita, Biltzarre eta ENA elkarteek Nazio Ikurren I. Biltzarra antolatu zuten joan den larunbaterako, Bilbon. Erabakitzeko eskubideari eta burujabetzari buruzko eztabaida mahai gainean egonda, nazio ikurrei buruz eztabaidatzeko «garai politiko ezin egokiagoa» dela adierazi dio BERRIari Patxi Alaña Biltzarreko kideak. Alaña ikurrei buruzko eztabaida gizarteratzeko eskatu du: «Burujabetza prozesuari indarra eman nahi badiogu, denok inplikatu beharko dugu gai honetan».

Ikurrek herria egituratzen laguntzen dute, baina Euskal Herriaren kasuan bi «arazo handi» ikusten dituzte eztabaidaren sustatzaileek. Batetik, mendebaldeko eta ekialdeko sinbologiaren arteko «talka» dagoela, eta, bestetik, egoera politiko berri honetan ikur guztiak bateratu, eguneratu eta aldatu behar ote diren erabaki behar dela. «Aurrera egiten lagunduko diguten ikurrak bultzatu behar ditugu. Zerbait egiteko garaia heldu da», diote.

Bilboko biltzarrean zortzi ikur aztertu zituzten: nazioaren izena, armarrria, bandera, ereserkia, nazio eguna, leloak, egutegia eta nortasun agiria. Eztabaida irekita, herritarrei aukera eman nahi diete orain euren ekarpenak egiteko. Horretarako, ikur bakoitzari buruzko foro bat zabalduko dute www.biltzarre.eus atarian, eta otsailera bitartean ekarpenak egiteko parada egongo da bertan. Irizpideak finkatuta, ikurrak berritzeko proposamenak egin ahal izango dira 2019ko martxotik aurrera, eta horiek aztertuko dituzte urriaren 26an, Iruñean egingo duten bigarren biltzarrean. Bertan aukeratutako ikur berriak bozkatu ondoren, 2020ko ekainean argitaratuko dituzte ondorioak.



NAZIOAREN IZENA

Nazioa izendatzeko hitzaren inguruan eztabaida zabala dago azken urteotan, ikuspegi estrategiko oso desberdinekin. «Eztabaida handia dago Euskal Herria arlo kultural-linguistikorako eta Euskadi edo Nafarroa arlo instituzional-politikorako erabili behar ote diren», azaldu du Alaña.

Larunbateko biltzarrean kezka hori azaleratu zen. Batzuk Nabarra edo Nafarroa erabiltzearen alde azaldu ziren, «izan dugun estatua izan delako eta hutsetik hasi beharrean hori berreskuratzea burujabetasuna lortzeko bide laburragoa izan daitekeelako». Beste batzuk, aldiz, Euskal Herria erabiltzearen alde agertu ziren, bost mendeko historia duelako eta «euskararekin, kulturarekin eta herriarekin hobeto lotzen delako». Alaña jakinarazi duenez, Euskadi hitza erabiltzea baztertu zuten gehienek, termino «nahasgarria» bilakatzen ari delako, eta lurralde osoarekin baino gehiago autonomia erkidego batekin lotzen delako.

BANDERA

Ikurrina ala Nafarroako bandera? Azken urteotan eztabaida zabala dago euskal estatua irudikatzen duen bandera egokienari buruz. Bi iritzi nagusi dira. Batetik, Nafarroako bandera hobesten dutenak daude, hainbat arrazoiengatik: garai bateko erreinutik estatua

berreskuratzeko bidea «erraztuko» lukeelako, Amaiurren edo Noainen independentziaren alde borrokatu zirenen ikurra izan zelako, eta nafar guztiek bat egiteko —ekialdekoak barne— ikurrik aproposena delako. Bestetik, ikurrinaren aldekoak daude, herriaren alde «bizitza eman dutenen» ordezkari egokiena delakoan. Badira, hala ere, hirugarren bide baten aldekoak eta bandera biak uztartzea defendatzen dutenak.

Biltzarreko ordezkariak uste du banderari buruzko eztabaidak «bete-bete» eragiten diola burujabetasunari. Kataluniako esteladari erreparatu dio eredia bilatzeko: «Katalanek izar bat jarri zioten euren banderari, eta estelada sortu, burujabetasunaren bila doan herri bat direla adierazteko. Guk ere hemen antzeko zerbait egin beharko genuke benetan burujabe izan nahi badugu». Bide horretan, Euskal Herriak independentzia nahi duela irudikatzeko ikur berri bat sortzea proposatu dute biltzarrean. Nolakoa izan behar duen, ordea, ez dute adostu.

ERESERKIA

Gainerako ikurretan bezala, ereserkiari buruzko eztabaidan ere ez dago adostasunik. Egun bi ereserki ofizial daude, bata EAEn (Gora eta Gora) eta bestea Nafarroa Garaian (Gorteetako Ereserkia). Zein aukeratu, ordea, herri burujabe baterako? Galdera horri erantzuten saiatu dira batzarrean, baina ez dute lortu proposamen bateraturik. Ereserki ofizialak ez ezik, bestelako kantak ere proposatu dituzte funtzio hori betetzeko: Gernikako Arbola, Eusko Gudariak, Agur jaun-andreak eta Txoria txori.

ARMARRIA

Zazpiak bat armarririk herrialdeen batasuna adierazten du, eta adostasun handiena duen ikurra da. Hala ere, armariari buruzko eztabaida zabaltzea beharrezkoa dela uste dute Biltzarrek eta ENAK, argitzeko, besteak beste, ea egokia litzatekeen Nafarroako armariari toki handiagoa ematea edo diasporari lekua egitea.

Larunbateko bileran parte hartu zutenek ia aho batez babestu zuten Zazpiak bat armariaren egungo eredia, baina kritika batzuk ere entzun ziren: adibidez, Espainiako armarririk Nafarroa azken lekuan badago ere, berorren espazioaren %25 betetzen duela, eta, aldiz, Zazpiak bat-en bosgarren lekuan dagoela, espazio txikiagoan. Nafarroakoari «zentralitate handiagoa» ematea eta diaspora eta itsasoa armarrira gehitzeko proposamen bat ere egin zuten batzarrean.

NAZIO EGUNA

Burujabetzarako bidean «lagungarri» izan ohi da aberri edo nazioaren eguna ospatzea, eta hori noiz eta nola egiten den, horrek badu bere garrantzia, Alaña azpimarratu duenez. Euskal Herrian, baina, ez dago ospakizun bateraturik: Aberri Eguna ospatzen dute alderdi abertzaleek, nork bere aldetik; bere garaian, Askatasunaren Eguna ere antolatu izan zuten Orreaga taldeak eta Herri Batasunak; Euskal Herria Eguna egin izan du Bai Euskal Herriari mugimenduak, eta Independentista Sareak Independentzia Eguna ospatzen du, egun eta toki ezberdinetan. «Hori ez da beste inon gertatzen», kexu da Alaña. Uste du Euskal Herriak aberri edo nazioaren egun «indartsu bat» behar duela eta ezinbestekoa dela «estrategia bateratu bat» adostea.

Bilboko biltzarrean Kataluniako Diada jarri zuten eredu gisa. Alaña ere egun horren garrantzia azpimarratu du, erreferentziatzat hartuta: «ANC eta Omnium elkarrean lanari esker eta azken urteotan egun horrek bildutako jendetzari esker, Kataluniako burujabetza prozesua geldiezin bilakatzen ari da». Eredu horri jarraikiz, beharrezkoa ikusten du Euskal Herrian ere herri mugimenduak hartzea nazio egutegia lantzeko ardura.

LELOA

Euskal Herriaren historian mugarri izan dira hainbat eslogan. Hiru dira, nagusiki, ezagunenak. Batetik, Euzkotarren aberria Euzkadi da, Sabin Aranak sortua, foralismoarekin hautsi eta proiektu nazional propioaren alde egindako borroka laburbiltzen duena. Bestetik, Gora Euskadi askatuta, Errepublika garaian gudarien borroketan erabilitako leloa, eta gaur egun arte erabili dena. Azkenik, Jose Miguel Beñaran Argala ETAko buruzagi zenak sortutakoa, burujabetzaren alde ahalik eta jende gehienaren partaidetza eskatzeko: Denok eman behar dugu zerbait, gutxi batzuek dena eman behar izan ez dezaten.

Era berean, badira bestelako lelo batzuk hizkuntzarekin zerikusia dutenak eta kontzientziazio nazionala eta linguistikoa sortzeko lagungarriak izan direnak. Nazio ikurren biltzarrean aipatu zituzten horietako batzuk: Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik (Joxan Artze), Herria da gorputza, hizkuntza, bihotza (Xalbador), Jaungoikoa eta Lagizarra (Sabin Arana)...

«Gaur egun, ordea, beharrezkoa al da lelo indartsu bat askapen bidean lagungarri izango dena?». Galdera hori mahai gainean jarri dute Biltzarrek eta ENAk, eta hausnartzeko gonbita egin diete herritarrei. «Ongi legoke oraingo egoera definitu eta iparra zehaztuko lukeen lelo berri bat sortuko bagenu», dio Alañak.

EGUTEGIA

Euskal Herriko egutegietan gorri markatuta agertzen diren hainbat data Espainiako eta Frantziako estatuek «inposatutakoak» direla diote hainbat eragilek, eta egutegi propioa lantzeko beharra aldarrikatzen dute. Udalbiltzak, esaterako, Nazio Identitate Batzordean lau jaiegun alternatibo proposatu zituen 2003an: martxoak 3, Gasteizen 1976an eraildako langileengatik; martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Egunagatik; ekainak 24, euskal mitologian udako solstizioak duen garrantziagatik; eta abenduak 3, Euskararen eta Nafarroaren estatu burujabearen egunagatik. Abenduaren 3a ofizializatzeko saiakerak egin izan dira Eusko Legebiltzarrean, baina ez da adostasunik lortu. Egutegi propioaren aldeko borrokari eustea proposatu dute Biltzarrek eta ENAk, eta begi onez jaso dute ideia bileran bildutakoek. Ezinbestekotzat jo dute elkarten eta sindikatuen esku uztea Udalbiltzaren egutegia bultzatzeko ardura.

NORTASUN AGIRIA

Euskal Herrian ekinbide bat baino gehiago egon da nortasun agiri propioa izateko: 1936an, Eusko Jaurlaritzak atera zuen Euzko Izat Agiria; 1983an, Muga txartela Euzkotarrak taldeak; 1989an, Pasaporteak KASek; 1990ean Euskal Herritartasun Agiria KASek; 1997an, Euskal Nortasun Agiria ENAk; 2001ean, EHNA Euskal Herriko Naziotasun Agiria Bai Euskal Herriari mugimenduak, eta, urte berean, ENAren agiria EAJk.

Horretan ere, nortasun agiri propiorako proiektu «bakar eta indartsu» bat adostea beharrezkotzat jo dute Biltzarrek eta ENAk.

d) 190527 Nazio ikurrei buruzko eztabaida eta hitzaldiak ekainean

- Ikur horien barruan gure naziorako proposatzen diren izena, armatarria, bandera, ereserkia, aberri eguna eta egutegi nazionala, eslogana, nortasun agiria eta internet domeinua sartzen dira.

- Azken hamarkadan ikur hauetako batzuei buruzko eztabaida zabaldu da, Nafarroako banderaren erabilera ere handitu da, Aberri Egun bateratua antolatzea ametsa dela dirudi, batzutan ikur nazional batzuk ikur autonomiko bihurtu direla ematen du...
- Hitzaldietan nazio ikurrek gure herriaren egituraketan izan duten garrantzia eta batez ere etorkizunari begira eguneratzerik behar ote duten eztabaidatuko da, burujabetzarako bidean hobeto laguntzeko.
- Hitzaldiak Bilbon ekainaren 5ean, Altsasun 12an eta Zarautzen 18an izan dira.
- Hitzaldietan, besteak beste, honakoek hartu dute parte: Gontzal Mendibilek, Tasio Erkizia, Enrike Zelaia, Iñaki Askoagak, Patxi Zabaletak, Jose Luis Erdoziak, Gaizka Basalduak, Eneko del Castillo, Jose Mari Lejardik, Iñaki Lopez de Luzuriaga, Iñigo Larramendi, Koldo Martinez Urionabarrenetxea
- Iazko urrian Nazio Ikurrei buruzko 1. bilkura izan zen prozesu honen abiapuntua Bilbon eta datorren urrian amaitu da Iruñian egingo den beste bilkura batekin.
- Gidaliburu batean, nazio ikur bakoitzari buruzko historia eta oinarrizko informazioa, dagoen eztabaida eta jaso diren proposamenak irakurri daitezke.
- www.biltzarre.eus-en foro bat dago eta bertan informazioa ikusteaz gain, norberaren iritzia emateko lekua ere badago. Horretarako 8 galdera hauei erantzun ahal zaie: Zein da zure ustez gure naziorako izenik egokiena? Eta armarririk egokiena? Eta bandera? Eta ereserkia? Eta Aberri Eguna eta egutegia? Eta eslogana? Eta nortasun agiria? Eta domeinua?

Atxikitako PDFan egin diren proposamenen laburpenak eta irudiak

Hitzaldien zehaztapena

Bilbon, ekainaren 5ean, eguaztena, 18:30etan, Zazpikaleetako Burtsan.

Hizlariak: Gontzal Mendibil, Tasio Erkizia, Gaizka Basaldua.

Altsasun ekainaren 12an, asteazkena, 18:30etan, Gure Etxean.

Hizlariak: Patxi Zabaletak, Enrike Zelaia, Jose Luis Erdozia, Eneko del Castillo, Iñigo Larramendi, Koldo Martinez Urionabarrenetxea

Zarautzen ekainaren 18an, asteartea, 18:30etan, Etxezabalan.

Hizlariak: Iñaki Askoaga, Jose Mari Lejardi, Iñaki Lopez de Luzuriaga.